



SAKONTZE EGITASMOA

**Lizarra, euskararen
biziberritzetik
indarberritzera**

(1.2 bertsioa, 2012ko uztaila)

Egilea: Alfredo Dufur Otheguy

Tutorea: Patxi Juaristi Larrinaga

AURKIBIDEA:

I – AURKIBIDEA.....	1
II – HELBURUAK, AITZINSOLASA, ESKERRAK.....	3
III – DIAGNOSTIKOA.....	5
1. LIZARRAREN KOKAPENAREN TESTUINGURUA	
1.1. Estellerria edo Lizarralde.....	5
1.2. Oharrak Estellerria eskualdeari.....	6
1.3. Estellerria Nafarroan, euskara.....	8
2. EGOERA SOZIOEKONOMIKOA	
2.1. Biztanleria.....	9
2.2. Ekonomia.....	11
3. EUSKARAREN BILAKAERA LIZARRAN ETA ESTELLERRIAN	
3.1. Lizarra hiri bilakatu zenekoa: Erdi Aroa.....	14
3.2. Berezko euskara galdu zutenekoa: XVI-XIX. mendeak.....	27
3.3. Berreskurapenaren hastapenak: XIX. mendetik 1936ra.....	32
3.4. Berreskurapena: Lizarra Ikastolatik XXI. mendera.....	36
3.5. Historiaren amaiera, etorkizunaren hasiera.....	37
4. ONARPEN INSTITUZIONALA	
4.1. Araudia.....	39
4.2. Hizkuntza politika.....	40
4.3. Ondorioak.....	46
5. IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOAK	
5.1. Erroldaren gainean eginiko azterketak.....	47
5.2. Kale Neurketak.....	55
5.3. Euskarabideak eginiko inkesta (2008).....	59
5.4. Azken hamarkadako 3 urtetako haurren eskola-matrikulazioak ereduka banatuta.....	64

6. EUSKALGINTZAKO ERAGILEAK	
6.1. Lizarra Ikastola.....	68
6.2. Remontibal eskola.....	72
6.3. B.H.I. Lizarraldea: Institutua.....	75
6.4. Arieta haur eskola.....	79
6.5. Beinat Etxepare AEK euskaltegia.....	84
6.6. Udaleko Euskara Zerbitzua.....	88
6.7. Garean Euskaldunon Elkarte.....	90
6.8. Euskal Herrian Euskaraz.....	91
6.9. Bestelako eragileak.....	91
6.9.1. LiGA: Lizarrako Gazte Asanblada.....	92
6.9.2. Gure Izkuntza elkarte.....	95
6.9.3. Irujo Etxea Elkarte.....	97
6.9.4. Bai Euskarari Ziurtagiridunak.....	98
7. EUSKALGINTZARI INKESTA	
7.1. Inkesta.....	99
7.2. Zer/nor da euskalgintza Lizarran.....	101
7.3. Jendarte esparruak.....	102
IV – DIAGNOSTIKOAN OINARRITUZ HAUSNARKETA.....	107
1. ARAZOAK	
1.1. Sintomak.....	107
1.2. Krisia.....	108
2. FASE BERRIRAKO HAUSNARKETA: BIZIBERRITZETIK INDARBERRITZERA	
2.1. Gaur egungo esfortzua.....	111
2.2. Indarberritzea lehentasun.....	112
2.3. Arrakasta eta euskara.....	114
V – TAULEN, GRAFIKOEN, MAPEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA.....	115
VI – WEBGUNEAK, BIBLIOGRAFIA ETA OHARRAK.....	127

II – HELBURUAK, aitzinsolasa

Lan honen burutzeko eremu geografiko konkretua aukeratu da, Lizarra (Nafarroa). Bertan, hizkuntza-aldagai nagusien arabera euskararen bilakaera aztertuko da. Era paraleloan, bertako euskalgintzako eragileak zerrendatu, zehaztu eta haien bilakaera eta egungo egoera aztertu (oinarrizko datuak, lan esparruak, betetzen duten jendarte-espazioa). Bestetik, Lizarra euskaldunoi begira erronkak antzeman eta proposamenak egin (elkarlana, lan esparru komunetan elkartu, lehia era jasangarri batera bideratu aurrerago elkarlana lortze aldera ...).

Lizarrak fase berri batean sartzeko aukera du, orain artean hizkuntza biziberritzeak izan du erabateko lehentasuna eta horri esker potentzialitate handia irabazi da, baina epealdi berrian sartzeko garaia iritsi da: **hizkuntza ezagutzaren bidez biziberritzetik hiztun-sarea indarberritzera jo behar dugu, lehentasun berriak zehaztu behar dira.**

Aldi berean, Lizarra, Euskal Herrian ematen ari diren erronka handien laborategi izan ahal da: HTI ereduaren ezartze goiztiarra, zenbait talderen euskararen aurkako jarrera oldarkorra, hizkuntza-gatazkaren ikur izan ahal den eskolako hizkuntza ereduak (G, A, HTI, HTI-A eta D ereduak eskaintza), Nafarroako *hizkuntza eremu*en arabera zatikatzean eskualde eredugarria (Lizarra *eremu mistoa*, ondoan dagoen Aiegi eta 4 kilometrotara dagoen Villatuerta aldez, ez) ... baina, aldi berean, Lizarra euskalgintzan nazio mailako aktore gehienak daude: Ikastola, D eredu publikoak, AEK, Udaleko Euskara Zerbitzua, Garean Euskaldunon Elkarte eta EHE; horrekin batera hainbat urtetan euskalduntzearen aldetik eredugarria izan ahal den garapena ezagutu duela esan genezake.

Euskal munduak bi lehentasun zehaztu dituela, edo zehazte bidean dagoela, ematen du: euskaraz bizi diren herriak babestu (Euskal Herriaren ikuspegitik arnagune ditugu UEMA eta antzeko egoera soziolinguistikoan dauden herriak) eta Euskal Herriko metropoliak (Bilbo handia, Gasteiz, Donostialdea, Lapurdiko kostaldea eta Iruñerria). Aurreko paragrafoan Lizarra laborategia izan ahal dela esan dugunean, ezaugarrietan antzekotasunak dituzten beste eskualdetan eman ahal den garapena bertan aurreikus daitekeela esan nahi dugu.

Lizarrak dituen bereizgarriak direla eta: biztanleria txikia baina esanguratsua (14.251 biztanle), euskalgintzako aktore nagusiak, euskal komunitatea ia erabat galdua izatetik berau birsortzera iritsi ... antzeko ezaugarriak dituzten metropolien joerak azkarrago nabaritu dira Lizarra. **Euskararen berreskurapenaren termometro**, edo irudi bidez adierazia:



ESKER ONAK

Sakontze Egitasmo honetan, ezinbertzekoak izan zaizkit hainbat eta hainbat lagun; hauek, haien denbora baliatu behar izan dute inkestak betetzeko, edota bertzelako informazioa emateko.

Administrazioaren laguntza batzuetan zalantzarria izan denean ere, ezin gauza bera erran administrazioko langileekin. Zentzu horretan, esker on berezia opatu nahi diet langile anonimo horiei, haien laguntzarik gabe, ezinbertzean, lan hau edukietan askozaz ere pobreagoa izanen litzateke. Administrazioaren jardunak sortzen dizkien zailtasunak gainean izanik ere, haien denbora eta ezagutzak lan honen mesedetan erabiltzeagatik, esker anitz.

Bertzetik, euskalgintzako kide horiei, inkestak bete behar izan dituzten horiei eta bilerak egiteko erabateko prestutasuna izan duten horiei, eskerrik beroenak. Lizarraldeko euskaldunonganako engaiamenduaz gain, lan honetan izan duzuen parte hartze eta hauspotu duzuen interesagatik, ordaindu ezin den laguntza eman didazue. Eskerrak beraz zuen erakundeei eta zeuei ere; eguneroko jardun horrekin bertze batzuen arduragabekeriak eta hainbaten ezinikusiak gainditzeko gai zarete. Gauza bera nazio mailako euskalgintzako erakunde eta kideei ere.

Ezagutza jasotzea bezain garrantzitsua izan da lagunen eta familiaren egunerokotasuna; nola eskertu pazientzia hori?

Eta ezin bukatu atal hau HIZNET-ek eta nire lan honen tutoreak, Patxi Juaristi Larrinagak, eskainitako ikastaroa, laguntza eta ezagutza aipatu gabe. Zinez polita izan da urte honetan ikasitakoa eta nahiko nuke azterlan hau, hein batean bada ere, horren erakusgarri izatea. Ezagutza jasotzea gozatzea izan bada ere, espero dut hemendik aurrera tresna bilakatzea niretzat; eta, Nafarroan gaudenez, baieztapen horri honakoa gehituko nioke:

... erranen diet ezagutza mailu bat dela ...

III – DIAGNOSTIKOA

1. LIZARRAREN KOKAPENAREN TESTUINGURUA

Lizarraren diagnostikoari ekiteko, lehenik eta behin bere kokapenaz eta testuinguruaz aritu behar gara. Non dago Lizarra, inguruarekiko zer suposatzen duen eta inguru horrek berak zer suposatzen dion.

1.1. Estellerria edo Lizarralde


Lizarra (14.251 biztanle 2011an), Nafarroako erdialdean eta mendebaldean kokatua dagoen hiria da eta Lizarrako Merindadearen hiriburua dugu. Bertan Estellerriko herriei eskaintzen zaizkien zerbitzu asko pilatzen dira, esate baterako D ereduko ikastetxeak (Lizarra Ikastola zein Remontibal eskola publikoa), Gartzia Orkoien erietxea, epaitegiak, Beinatz Etxepare AEK euskaltegia, Jurramendiko Mankomunitatea, Suhiltzaileak, Institutua ... esan ahal da Estellerriko zerbitzu publiko gehienak Lizarran zentralizatuta daudela.

Jurramendiko Mankomunitateak adibidez ia Estellerri osoa artatzen du; eskaintzen dituen zerbitzuak honakoak dira: ur eta zaborren kudeaketa, turismo partzuergoa (CTTE), herri garapena (TEDER) eta hirigintza bulegoa (ORVE).

1. taula: Lizarra, Euskal Herriaren eta Nafarroaren testuinguruan (2011ko datuak, EH-koak izan ezik)

	Lizarrako Merindadea	Nafarroan	Euskal Herrian
Biztanleria	66.317	%10,94	%2,2
Azalera	2.068 km ²	%19,90	%9,87
Dentsitatea	32,06 b/km ²	61,79 b/km ²	143 b/km ²
Udalerriak	72	%26,47	%10,54

1. grafikoa: Lizarrako Merindadearen biztanleria



Estellerriko biztanleriaren garapena. Iturria: wikipedia



Eremu mistoan bizi den biztanleria

2006an 16851, %26,17

2010ean 17381, %26,3

Euskara eta legeriaren aldetik, Nafarroan 18/1986 Foru Legea dago indarrean, bertan zehazten denaren arabera Nafarroa hiru eremutan banatzen da. Eremu horietako bakoitzean hizkuntza eskubide ezberdinak ditu euskaldunak eta, horrela, bosgarren artikulua Estellerria bi eremutan banatzen du: Lizarra bera eta Estellerriko ipar-ekialdea (Goñi, Jaitz, Gesalatz, Deierri, Lezaun eta Abartzuza) *eremu mistoan* dauden bitartean, bestelako Estellerria *eremu ez-euskaldunean* kokatzen da. Hori dela eta, euskararen lege babesaren aldetik Estellerriko herriak egoera zeharo ezberdinean daude.

Lizarrako Merindadearen gehiena *eremu ez-euskaldunean* egon arren, eskaintzen diren zerbitzu asko Lizarran izanik honek aukerak eman beharko lituzke zeharkako moduan hizkuntzaren trataera hobetzen. *Eremu mistoan* egoteak, oro har, hiritarrei eskubide gutxi batzuk onartzen dizkie, horien artean haurrak euskarazko murgiltze ereduan eskolatzekoa; nahiz eta zenbaitetan horrela ez izan, Noain kasu. *Eremu mistoaren* zonaldea Estellerrian urria izan arren, hainbat aukera daude haurrak euskaraz eskolatzeko: Lizarrako Remontibal eskola publikoa, Lizarra Ikastola, Erentzun Ikastola (Viana) eta Ibaialde Ikastola (Lodosa).

2. taula: Lizarra, Lizarrako Merindadearen testuinguruan

	Lizarra	Lizarrako Merindadearen
Biztanleria	14.251	%21,49
Azalera	15,39 km ²	%0,74
Dentsitatea	928,99 b/km ²	32,06 b/km ²
Udalerriak	1	%1,39

Horretaz gain, A eredia (euskara irakasgaia) eskaintzen duten hainbat eskola daude, *eremu mistotik* at bada ere. Honako herrietako eskola publikoek eskaintzen dute: Abartzuza, Allo, Antzin, Andosilla, Arroitz, Carcar, Deikaztelu, Lerin, Lezaun, Lizarra, Lodosa, Los Arcos, Mendabia, Oteitza, San Adrian, Sartaguda, Sesma, Viana, Villatuerta eta Zudaire. Hauekin batera Aiegi (Mater Dei), Lizarra (Santa Ana) eta Mendabiako (Nuestra Señora de los Dolores) eskola pribatuak ere eskaintzen dute A eredia. Hau da, ia eskola guztietan eskaintzen dira D edo A ereduak (2010/2011 ikasturteko datuak).

1.2 Oharrak Estellerria eskualdeari

Esan beharra dago Nafarroako eskualde administratiboak ez daudela oso argi. Orain artean *Lizarrako Merindadea* erabili dugu Nafarroako azpi eskualde gisara, eta Estellerriren sinonimo. 2000. urtean baina, Nafarroako administrazioak egin zuen eskualdeen sailkatzearen arabera, Lizarra, *Ekialdeko Estellerria* azpi-eskualdean legoke. Azpi eskualde honek, berez *Lizarrako Merindadearen* zati bat, 42 udalerri, 1.105,09 km² eta 33.319 biztanle lituzke (2011). Agerikoa denez, bai Lizarrarekiko distantzia aldetik bai Lizarrak eskualde honetan duen pisu demografikoagatik ere (biztanleriaren %42,8), eragin handiagoa izanen du eskualde honen gainean; bai zerbitzu aldetik bai ekonomia aldetik ere pentsatzekoa da harreman estuagoak izanen dutela bertako herritarrek Lizarrakoekin.


3. taula: Lizarrako ingurune hurbila

Bestalde, eta bukatzeko, *Lizarrako Merindadea* eta *Ekialdeko Estellerria* azpi eskualdeen barnean beste bat sor genezake. Lizarratik bost kilometro eskasera hainbat herri daude eta herri hauek osotara 3.607 biztanle dituzte (2011ko datuak). Hemendik aurrera nagusiki Lizarrako 14.251 biztanleei buruzko azterketa egingo badugu ere, ezin ahaztu harreman oso estua dutela udalerri hauetako 17.858 biztanleek. Hein handi batean esan genezake Lizarraren parte direla.

Herriak	Dist.	Biztanl.
Lizarra	0 km	14.251
Aiegi	2,1 km	1.932
Bearin (Deierri)	2,8 km	197
Villatuerta	4,2 km	1.122
Zubielki (Allin)	4,5 km	104
Arbeiza (Allin)	4,6 km	162
Arandigoien (Dierri)	4,9 km	90
GUZTIRA:	-	17.858

Lizarrarako Merindadeko eskolen kokapenaren mapa, eta horrekin batera Ekialdeko Estellerria azpi eskualdea litzatekeena (marra berdeaz adierazia), Mendebaldeko Estellerria azpi eskualdea (marra arrosa, Vianaldea) marra arrosaz adierazia:

1.Mapa: Lizarrarako Merindadeko eskolen mapa




Ohartu Lizarrarako eskola publikoak eremu zabalari ematen diola zerbitzu eta, hortaz, berez eremu ez-euskaldunean dauden udalerrri batzuek euskarazko murgiltze ereduko ikasketak jaso ditzaketela era alegalean bada ere.

1.3 Estellerria Nafarroan, euskara

Azpiko mapan Nafarroako udalerriak ditugu, haien euskara ezagutza 2001eko erroldan bildutako datuen arabera koloreztatua izan da. Horrez gain 2012an indarrean zegoen hizkuntza eremuen banaketa ageri da: *Eremu euskalduna* iparraldean, *Eremu mistoa* erdialdean eta *Eremu ez-euskalduna* hegoaldean.

Mapan ikus liteke Lizarran D eredua eta euskaltegia izateak Estellerrian izan duen eragina, *Eremu mistotik* haratago nabarmen zabaldu da euskararen ezagutza. Orain berrogei urte, Estellerriko eskualdea %0 eta %5-eko bitarteko euskara ezagutza mailan zegoen. Antzeko egoera ematen da Vianan, baina Lizarra inguruan ez bezala Vianako herriak bakarrik gaintitu du %5-eko euskara ezagutza langa (hamar irakasle eta 100 ikasletik gora ditu eskolak).


2. Mapa: Nafarroako udalerriak, Hizkuntza Eremuak (2012an) eta Euskara Ezagutza (2001eko erroldan)



2 EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

2.1 Biztanleriaⁱ

2. grafikoa: Lizarrako biztanleak adinka. 2011eko zentsua



Honako hau da Lizarrako biztanleriaren adinkako banaketa. Euskaldunen aldetik, datu zehatzik izan ez arren pentsatzekoa da kopuru aldetik bi epealdi gako daudela. Batetik 0-40 urte bitartekoa (ikastolan murgiltze eredua ezarri zenetik) eta bestetik 0-18 urtetakoa (eskola publikoan D eredua ezarri zenetik). Bietan era adierazgarrian euskaldunen kopuruan handitzea izatea espero da.


Azken hamar urteotan biztanleria gazteak goraka egin duen arren, Lizarrako biztanleriaren datuak zahartzen ari den herri batenak dira. Hona hemen hori erakusten duten zenbait datu:ⁱⁱ

4. taula: Lizarrako biztanleriaren batz besteko adinaren bilakaera

	1975	1981	1986	1991	1996	2001	2011
Batz besteko adina	33	34	35	37	40	41	42
<20 biztanleria %	34,30	32,57	29,84	26,39	21,81	18,49	19,57
20-59 biztanleria %	51,07	52,08	52,65	53,80	55,68	58,45	55,16
>59 biztanleria %	14,63	15,36	17,51	19,81	22,51	23,07	25,27
Hazkunde tasa		1,37	0,58	0,22	-0,30	0,74	0,90
Biztanleria	11.267	12.230	12.603	12.741	12.552	13.024	14.251

Hala eta guztiz ere, biztanleria gaztea (16 urtetik beherakoa), etengabe hazten aritu da 2000ko hamarkadaren erdialdetik, honen zergatia izan ahal dena hurrengo atalean topa dezakegu:

3. grafikoa: 16 urtetik beherako biztanleria Lizarran (errolda)



2.2.1 Komunitate berriak: etorkinak


5. taula: Udal erroldetanⁱⁱⁱ, etorkinen jatorria

	2001	2002	2003	2006	2009	2011
LIZARRA	12.887	13.150	13.449	13.892	14.238	14.251
ETORKINAK	42	337	859	1.334	1.672	1.547
Ehunekoa	%0,3	%2,6	%6,4	%9,6	%11,7	%10,9
EUROPA	17	20	56	182	378	428
Errumania				57	152	173
Portugal					122	124
AFRIKA	4	41	134	189	221	275
Moroko		21	55	65	127	148
Argelia					72	101
AMERIKA	17	266	661	928	1.022	777
Ekuatore		152	464	651	679	442
Kolonia		91	138	184	143	115
Bolivia				10	84	85
ASIA	4	5	8	35	51	67


Ikusi ahal denez, azken urteotan nabarmen igo da biztanleria etorkina, eta biztanleria osoaren %11a izatera igaro da 2011n. Oro har, hauen jatorria Ekuatore, Kolonia, Bolivia, Errumania, Portugal, Moroko eta Argelia da. Hazkunde joera baina, apurtu egin da eta beherakada xume bat agertu zaigu 2011ko datuetan, beherakada hori baina ez da homogeneoa izan, latinoamerikarrak (ekuatortarrak eta kolonbiarrak batipat) gutxitze gogorra jasan badute ere beste komunitateek gorako joerari eutsi diote.

Etorkinen beste ezaugarri bat dugu gaztetasuna eta gizon gehiago izatea da (2009ko datuetan, 904 gizon eta 768 emakume) eta jatorrizko hizkuntza gaztelania dutela hein handi batean (latinoamerikarrak %50 inguru ziren 2011n).

4.grafikoa: Etorkinen kopuruaren bilakaera adinaren arabera (Erroldaren datuak)



5.grafikoa: Etorkinak, 16 urte baino gazteago (errolaren datuak)



Ikusi ahal denez, haur eta gazte etorkinen biztanleriak nabarmen egin du gora 2009 bitarte. Urte hartan, beherako joera hartu zuen. Ohartu beharra dago grafikoan ageri den informazioa biztanleria etorkina dela, hau da, atzerrian jaioetako haur eta nerabeena. Demagun 2002an etorritako bikote atzeritar batek berarekin bi haur zekartela, eta, etorri eta berehala beste haur bat izan zutela. Aurreneko biak grafiko honetan agertuko lirateke, hirugarrena ordea, ez zen agertuko bertan jaioa zelako. Hortaz, gazteen artean, biztanleria etorkinaren eragina hemen plazaratutakoa baino handiagoa izatea pentsatzekoa da.

2.2 Ekonomia


Lizarraldean bi azpi-eskualde genituzke: batetik Mendebaldeko Estellerria, industria gune garrantzitsua, batipat ondoan dagoen Errioxa eta Logroñoren eraginez; eta Ekialdeko Estellerria, Zerbitzu Sektore garatuarekin, nagusiki Merkataritza Minorista (nahiz eta azkenaldian sektore turistikoa ere garatu egin den) eta Nekazaritza (nagusiki zerealetan eta ardogintzan oinarrituta).

6. taula: Eskualdeko enpresa nagusiak^{iv}

Enpresa izena	Herria	Jarduera
Renolit Hispania, S.A.	Villatuerta	Plastikozko materialak
Papelera del Ebro, S.A.	Viana	Paper pasta, papera eta kartoia egin
Schmidt-Clemens Spain (Unipersonal)	Abaigar	Altzairugintza
EGA Textil, S.A.	Lizarra	Ehungintzan
Servicios de Montejurra, S.A.	Lizarra	Ur banaketa, Araztegia, zabor jasotzea (Ur Partzuergoa)
Tenerías Omega, S.A.	Villatuerta	Larrugintza
Smoby España, S.A. (UNICE)	Lizarra	Jolas eta jostailuak
Gráficas Estella, S.L.	Villatuerta	Inprimategia
Construcciones Luciano Elcarte, S.L.	Lizarra	Eraikuntza
Mater Dei Puy-Anderaz y N^a Sra del Puy	Lizarra	Hezkuntza

Ikusi ahal denez, hamar enpresa handienetatik bost kokatzen dira Lizarran eta beste hiru ondoan dagoen Villatuertako industrialdean; hauetatik bi zerbitzu enpresak ditugu (Ur Partzuergoa eta eskola katolikoak), beste bat eraikuntza enpresa eta falta direnak industria.

6. grafikoa: 2010-2011ko Lizarrako enpresak alor ekonomikoen arabera



Ondoko grafikoari so eginez gero (enpresa kopuruak dira, ez hauen tamaina), 2010ean, Eraikuntza alorreko enpresek pisu handia dute Lizarran (%26, 236 enpresa, 2011ko datuak), Industriak ordea ez (%8, 71 enpresa). 2005 eta 2010 bitartean, Eraikuntza-Industria enpresa kopuruak %7,3 egin du behera.

Merkataritza sektoreak Lizarran duen pisua bistakoa da, Merkataritza Minoristak %51 dira (468 enpresa), honi lotuta,


garrantzi handiko beste sektore bat taberna/jatetxeena dugu %11rekin (98 enpresa). Tamaina apalagoa dute Merkataritza Maioristek %3 (32 enpresa) eta Ostalaritzak %1 (12 enpresa). Azken urteetako garapenaren aldetik, Merkataritza Maioristek %5,9 egin dute behera 2005-2010 bosturtekoan, Taberna/Jatetxeek aldiz %9,4 gora eta Merkataritza Minoristek %2,1 behera (2008-2010 urteei so eginez gero ordea, jaitsiera %16koa izan da). Merkataritza minoristei begira, 2011ko daturik ez badugu ere, epealdi honetan aurreko hiru urteko joera jarraitu duela ematen du, krisiak gogor kolpatu ditu.

7. taula: Merkataritza minoristak (2010) ^v

Mota	Azpi-mota	Kopurua
Elikadura		133
	Besteak	122
	Supermerkatuak	11
Ez elikadura		281
	Zapatak eta jantziak	70
	Etxebizitza	66
	Beste	145
Misto eta beste		54
	Hipermerkatua	1
	Auzo biltegiak	8
	Merkataritza ibiltaria, azoka	40
	Beste	5

Langabeziaren aldetik, 2007 bitarte langabezi maila baxuak izan badira ere (%6tik behera ia hamarkada osoan), azken urteotan nabarmen egin du gora. Gogoratu 2005-2010 bosturtekoan, Eraikuntza/Industria enpresen kopuruak %7,3 egin duela behera eta 2008-2010 bitartean Merkataritza Minoristen enpresa kopuruak berriz %16 egin duela behera. Honen eraginez, langabezia-maila bikoiztu egin da.

7. grafikoa: langabezia / biztanleria aktibo potentziala^{vi}



Langabeziaren gorakadaren beste zantzu bat Estellerrian aurkeztutako ERE-ak ditugu: 2009an 57 ERE eskatu ziren (48 onartu ziren eta 1.221 langileri eragin zien), 2010ean 38 (31 onartu eta 565 langileri eragin) eta 2011n 40 eskatu ziren (28 onartu eta 492 langileri eragin). ERE-en sektoreei begiratuta, 2009ko ERE gehienak industriak jaso zituen (%56,25), 2010ekoak ordea Eraikuntzak (%45,16) eta 2011n Industriak eta Eraikuntzak (%39,29 sektoreko).^{vii}

3 EUSKARAREN BILAKAERA LIZARRAN ETA ESTELLERRIAN

Lizarran gaur egungo euskararen egoeraren diagnostikoa egin aitzin, hiriaren historia aztertu beharko genuke bertako euskal hiztun komunitateak izandako bilakaera ezagutzeko. XXI. mendean Lizarran eta Estellerrian euskarak duen errotzea ulertzeko iragana ezagutzea ezinbesteko delakoan Estellerriko eta Lizarrako euskararen historia nolabait laburbiltzen saiatu da hemen. Hala eta guztiz ere, hirugarren atal honetan dagoen informazioa, historialaria ez den norbaiten hurbilpen bat besterik ez da, mugak muga, ahalik eta zorrotzen egina.

3.1 Lizarra hiri bilakatu zenekoa: Erdi Aroa. Hizkuntza aniztasuna.

IX. mendean, eskualdeko beste herrien moduan Lizarra herri txiki euskalduna zen, Iruñeako erresumaren hego mendebaldeko muga zegoelarik. Hegoaldean Kordobako Emirerria eta bestaldean Iruñeako erresuma izan arren, eskualdea eremu euskaldun elebarra zen.

Erdi Aroaren hasieran eskualdeak Deierri zuen izena, Deioko gazteluaren boterearen erakusle (Lizarratik bederatzi bat kilometrotara). Gotorlekurik nagusia, Deio, Emirerriaren esku egon arren eskualdearen kontrola ez zegoen batere argi. Musulmanek ez zuten beste asentamendurik Deioko gaztelutik aparte eta razzien bidez eragiten zuten inguruan.


Garai hartan bertan, inguruan beste bi gaztelu garrantzitsu zeuden, bat Arroitzan (hegoalderago) eta bestea Lizarran. Gaztelua izateak adierazten du Lizarrak bazuela nolabaiteko garrantzia garai hartan, nahiz eta gero lortuko zuenarekin ezin alderatu. Erret herria zen ordurako, Iruñeako erresumaren eraginpean.

908an Iruñeako Antso Gartzea I-ak Deioko gotorlekua konkistatzean Lizarra eta honen ingurua muga izateari utzi zioten eta Iruñeako erresumaren baitan geratuko ziren hortik aurrera. Honekin batera, Lizarraren garapenerako garrantzitsua izango zen beste gertakari batek bere hastapenak ezagutu zituen 814. urtean; Done Jakueren erlikiak aurkitu omen zituzten Galizian. Horrela, IX. mendearen bukaeran Europan zehar zabalduko zen berria, X. eta, batez ere, XI. mendeetan erromesen kopurua asko handituko zen. XII. mendearen lehen erdian goren gradoa ezagutu zuten erromesaldiek.

Horietako zenbait erromes ezagunek euskararen aztarnak jaso zituzten haien liburu eta oharretan: horien artean dugu Aymeric-en Codex Calistinus-a, XII. mendeko lehen erdikoa. Bertan agertzen dira euskara hiztegitxo bat, Lizarraren aipamena eta Lizarra ondoko Lorkan (Salado ibaian, Lizarratik 9 kilometrotara) bi *nabarroekin* izandako pasadizoa. Ohar moduan adierazi, garaiko adierazpenetan, *nabarro* eta euskaldun eskutik doazen bi termino direla.

Done Jakue Bidearen gainbehera XIV. mendean hasi zen, eta XV. ean oraindik gehiago apaldu egin zen; horrela, Bideak hiri eta herrietan izan zuen garrantzi sozioekonomikoa gutxituz joan zen eta bere inguruan indartu ziren gizataldeak ahuldu eta desagerrarazi.

3. Mapa: XIV. mendeko Lizarra



XIV. mendeko Lizarra. Kolore morez eta zuriz San Martin burgua, urdinez San Miguel eta laranjaz San Juan (San Juanen azpialdean haragi kolorez jatorrizko herria: Lizarra). San Miguel, San Juan eta San Martin burguen artean Ega ibaia. Ikusi baita ere monasterio sarea San Juanen gainean (San Francisco, Santa Clara eta San Benito). Marra gorriak Done Jakue bidearen noranzkoa. (*Lizarrako institutuko ikasle eta irakasleek eginiko maketa*)

Irudia: XIV. mendeko Lizarra (Jose Mari Minguez-en artelana)



3.1.1 Frankoak

XI. mendean, erromesaldien gorakada dela eta garaiko botere politikoek Done Jakue Bidean hiri berriak edo zeudenak handitzen hasi ziren, eta ospitaleak (Iratxe kasu, Lizarratik hiru kilometrotara) egokitu ere. Horretarako eskubide edo Foruak emanez Frankoen migrazioa bultzatu zuten erregeek; hauek merkatariak, dendariak, ostalariak eta artisau finak ziren.

Antso V.a Ramirez erregeak (1076-1094) Lizarra “berri” bat sortu zuen kanpotarrentzat, Ega ibaiaren eskuinaldean. Horrela Done Jakue bidea kilometro gutxi batzuk iparraldera desbideratu eta Lizarra herrixkaren eremura ekarri zuen. Honen zergatia Erregea eta Elizaren arteko gatazka zela ematen du, Lizarra erregearen kontrolpeko herria zen, Zarapuz (jatorrizko bidea) ordea Elizaren menpe zegoen.

Lizarra “berri” hau Nafarroako aurreneko burgua izango zen. Atzerritarrek bertan lehendik bizitzen hasi baziren ere (1076tik gutxienez), 1090. urtean emango zien Antso V.a erregeak Forua, eta horrekin Lizarra herrixkaren eremuan bi bizileku sortu. Batetik, Ega ibaiaren alde batean jatorrizko Lizarra eta bestetik, atzerritarrez hornitutako hiri berria: Stella. Atzerritar hauek okzitaniarrak ziren eta haien hizkuntza eta kultura ere ekarri zuten haiekin. Historian zehar bi izendapenak topatuko ditugu hemendik aurrera, jatorrizko Lizarra eta Estella berria. Lizarra herrixkako biztanleak nekazari eta abeltzainak ziren nagusiki, Stellan berriz artisauak eta merkatariak bizi ziren.

Foruaren arabera erregeak eskainitako eskubide eskusiboak zituzten okzitaniarrek. Alde batetik erromesekiko merkataritzaren monopolioa, autogobernua zuten eta bestetik, sortu berri zen burguan (garai hartan San Martin, gaur San Pedro) nafarrei bizitzea debekatzen zitzairen, eta beraz eskubideak izatea. Berez, ez nafarrek ez nobleek ezta apaizek ere ezin zuten Stellan bizi ez bazen herriko kontzejuaren baimenarekin.

Abizenen bitartez, burguen sortzetik (edo ia) nafarrak zeudela badakigu, Etxabarritarrak kasu. Hauek, ziurrenik, nafar artisau edo merkatari familiak izanen ziren. Pentsa liteke, okzitaniarrek nolazpait asimilatuko zituztela nafar kulturako hauek burguko jendartean komunitate txikia zelako eta horrela integratzeko beharra sortuko zitzaielako.

Burguaren kontzejua osatu eta gero inguruko nafarrak onartzen hasi baziren ere, nabaria izan zen hasieran San Martin burgua populatu zuten familia aristokrata burges okzitaniarrek hirian botere politiko eta ekonomiko handia mantendu zutela. Haien hizkuntza eta kultura ere mende gutxi batzuetan mantendu zuten. Franko izatea hasieran kultura jakin batekoa izatea esan nahi zuen (okzitaniarra), eta aldi berean eskubide eta askatasun batzuen jabea (Forua). Denborarekin eskubide eskusibitatea galdu egin zen eta Franko izatea distintzio ezaugarria bilakatu: identitatea, jatorria ... Lizarrako elitea ingurunetik bereiziko zuen beste elementu bat bilakatu zen, eta horrekin batera okzitaniarra, identitate elementua.

Okzitanieraren ezarpen sakonaren beste adierazgarri bat XIII. eta XIV. mendeetako Udal ordenantzak dira. Berauek hizkuntza hain jasoan egon ez arren (kalean erabiltzearen seinale), ordenantzetan XIV. mendearen bigarren erdira arte okzitaniar hizkuntza erabili izan zen.^{viii}

Ez hori bakarrik, XV. mendearen bigarren aldiko eta XVI. mende hasierako hiri ordenantzatan^{ix} gaztelania edo nafar-aragoeran idatzita badaude ere, okzitanieraren eragina topa daiteke oraindik orain. Ordenantzen azterketagatik, ematen duenez okzitaniera nafar-aragoar erromantzearen baitan disolbatuko zen XIV. mendearen bigarren erdian eta XV. mendean zehar. Baina, XVI. mendean zehar gaztelania nagusitzen joango zen azkenean erabat nagusitu arte. Toño Ros historialariak kontatzen digunez “garaiko aberatsen artean ez zegoen eskubide edo ekonomia ezberdintasunik, hortaz hizkuntza eta kultura zerabilten ezberdintzeko”.

Hala ere, ordenantzek ez dute hizkuntza biziaren seinalea ematen, bakarrik XIV. mendearen erdira arte Udalean gobernatzen zuen talde pribilegiatuak okzitaniera zuela prestigiozko hizkuntza. XIV. mendeko bigarren erdiko aldaketa hori izan zen, prestigio hizkuntza erromantze berri bat izango zela: nafar-aragoar erromantzea hain zuzen ere. Honek adieraz dezake hiztun-komunitate moduan okzitanieraren desagerpena beranduen XIV. mendean genukeela, prestigioan ere alboraturik geratu zenean. Hiztun komunitate esparru berarengatik lehiatzen, azkenean Iruñeatik sustatzen zen erromantze berria nagusituko zen.

Esanguratsua da garai hartako prestigio-hizkuntzaren borroka; Lizarran bertan dagoen Santa Clara komentua (1289-1290) hiriko elite okzitaniarrak sortu zuen, eta izaera horri eutsi zion mendetan. Komentutik berrogeita hamar metrotara Nafarroako erregeek San Benito komentua sortu zuten eta honetan berriz *latin-txarra* edo erromantze nafar-aragoarra erabili. Garai bertsuan Udaletxean dokumentuak okzitanieraz jasotzen zirenean San Juan parrokiari latin erromanizatuan jasotzen ziren, edo nafar-aragoar erromantzean. Nahasketa handia dago bi hizkuntzen komunitateen artean, baina dirudienez jatorrizko elite okzitaniarrak bere hizkuntzari eutsi zion hainbat mendetan; interes ekonomiko eta politikoei lagunduta ziurrenik.

Lizarra, frankoen etorreraz geroztik, merkataritza gune izan da beti; alde batetik mendialdea eta erriberaren artean eta bertzetik Done Jakue Bidearen inguruko negozioen bitartez. Hain zuzen ere, bi negozio gune horiek aldi berean indarra izan zutenean ezagutu zuen gorenaldia Lizarrak: XIII. mendean eta XIV. mendearen hasieran biztanleria kopururik altuena ezagutu zuen hiriak.

3.1.2 Judutarrak

Okzitaniarrekin batera beste komunitate bat etorri zen Lizarrara eta Elgacena auzoa sortu, Juduak. Haien kultura, erlijioa eta hizkuntza ekarri zuten eta botere ekonomiko handia eskuratu zuten. Jardun nagusiak merkataritza, kredituak eta artisautza ziren.

Juduek elite kultural eta ekonomikoa osatzen zuten, boteretsuen kontseilariak ziren eta urruneko lurrekin komertziatzen zuten. Judu lizarratar ezagunak izan ziren Rabbi David Deslilüah legegizona (1306-XX), Menahem Ben Seraq idazlea (1310-1385), edo Ezkerra familia. Lizarrakoa Nafarroako hirugarren judu komunitaterik garrantzitsuena izan zen, Tuterari eta Iruñakoaren atzetik. 1366ko *erroldan* adibidez hiriaren biztanleriaren %10 ziren.

Aljama honen aberastasunaren ikur, 1290etik 1321era izandako zergen inguruko azterlanak plazaratua: Lizarrako juduek hiriko zergen %80 inguru ordaintzen zuten, hirian gutxiengoa izan arren. Haien errentak 400.000 ingurukoak ziren.^x Aberastasun horren lekuko dugu honako hau ere, garai haietan Nafarroako koroak biltzen zuen zergen %10 inguru Lizarrako Aljamakoak ziren. Horrekin batera, biztanleriaren aldetik ere garairik oparoena izan zen epealdi hau, 190 Sutondo inguru zeuden (750 eta 950 biztanle artean).^{xi}

XIV. mendea krisi garaia izan zen Europa osoan zehar eta Nafarroan bereziki gogorra izan zen, baita Lizarrako juduentzako ere. 1328an juduen auzoa eraso eta suntsitu zuten herritarrek. Suntsiketa horretan ez ziren herritar soilak aritu, Lizarrako kontzejuari 10.000 liberatako isuna jarri zitzaion eta baita hainbat norbanakori ere, haien artean Lizarrako notarioa; arpilatzea Pedro de Ollogoyen fraide frantziskotarrak xaxatuta egin zen. Mende honetan Lizarrako judu komunitateak etengabeko gainbehera jasango zuen, eta biztanleria berreskuratuko zuen arren, ez zuten ordura arte izandako aberastasuna (zentzu zabalean ulertuta) berreskuratuko. Arpilatzearen ondoko urteetan adibidez, juduen errentek ez zuten 100.000 kopurua gainditzen eta 1330eko hamarkadan ez zuten 200.000 gaindituko.^{xii}

Ez dirudi hebreeraren hiztun komunitateak XIV. mendea gaindituko zuenik.^{xiii} Horretaz gain, zalantzarik da hebreera eguneroko hizkuntza ote zen edo idazteko eta eginkizun erlijiosoetarako hizkuntza soilik. Zalantzarik ez dago eleanitzak zirela eta euskara ere bere bazutela (Ezkerra familia boteretsua adibidez, euskal jatorrikoa zen).

Hiztun komunitatea mantendu ez bazen ere, juduen komunitatea bai mantenduko zela XV. mendera arte. Gaztela eta Aragoiko koroak 1492an kanporatu zituzten haien erresumetatik. Nafarroako erresuman berriz, erbesteratu beharrean, ondoko erresumetatik kanporatutakoei sarbidea ahalbidetu eta zergarik inposatu gabe errefuxiatuak hartu zituzten 1498ra arte. Urte hartan, Errege Katolikoen presiopean, juduak Nafarroatik kanporatuko zituzten. Urte hori izango zen Lizarrako juduen komunitatearen berandueneko desagertze data.

3.1.3 Hiriaren garapena Erdi Aroan

Har dezagun berriz garaiko ekonomia ardatz, lehen esan dugu Estella hiria San Martin burguari foruak ematean sortu zela; honek erromesei bideratutako negozioa zeukan. Hiriaren kokagunea dela eta, mendialdeko ekonomia eta Erriberako ekonomiaren arteko erdigunean, eskualdearekin salerosteko azokaren beharra zegoen. Frankoei eskainitako foruan zehazten zen azoka egiteko aukera bazutela inguruko herritarrekin komertziatzeko; burgutik kanpo ordea, nafarrak ezin baitziren bertan negozioak egitera sartu. Hori dela eta harresien eta ibaiaren bestaldean (Lizarra herria eta Estellaren erdibidean) azoka bat sortu zen eta horren inguruan bizitoki berri bat osatu, denboraren poderioz San Miguel izango zena.


Auzo edo herri berri honek ez zuen forurik izango hasieran, San Martin foruaren pean bizi baitzen bertako komertzioa, San Martin auzoari emandako azoka eskubidearen pean hain zuzen ere. Etxea San Martinen izateak eskubideak ematen zizkien baina hainbatek negozioa eta bizitza San Miguel inguruan izango zuten.

Egonkortasun hori hautsiko zuen gertakari historiko bat suertatu zen: 1076tik Nafarroak eta Aragoak koroa bera bazuten ere 1135ean banatuko ziren eta Nafarroak erresuma independentea osatu zuen berriro. Horrek zertan eragin zuen Lizarran? Estellak Aragoiko San Juan de la Peña monasterioari ordaintzen zizkion zergak baina Nafarroako erregea eta Iratxe monasterioa ez zeuden horrekin konforme. Hori dela eta Erregeak erret burgua sortu zuen, San Juan, eta hiriari foru berria eman zion: hemendik aurrera Lizarra osoak (hiru burguek, San Martin, San Miguel eta San Juan –Lizarra herria bere barnean hartuz-) Foru bera izango dute, hau da eskubide berdinak. Honekin batera, San Miguelgoari bezala azoka antolatzeke eskubidea eman zion San Juan auzoari ere; eta egun berean gainera, ostegunetan, horrela azoka bi auzoen arteko lehia zuzena bilakatuko zen.

Hain zuzen ere, lehia hori arazo iturri izango zen bi burguen artean, adibide moduan XIII. mendearen bigarren erdian gertatutakoa:^{xiv} Lizarrak hiru gune nagusi, hiru burgu izan arren, gobernu bakarra zeukan Iruñea ez bezala, baina tirabirengatik 1250 eta 1280 bitartean udal karguak zatitu egin ziren. Arazo iturria San Miguel eta San Juan auzoen azokengatik tirabirak zirela ematen du.

3.1.4 Lizarraren eragin eremua

4. Mapa: Erdi Aroko Lizarraren eragin eremua



Lizarraren eragin eremu nagusia^{xv} markatu da atal honen baitan dagoen mapan. Bertan Lizarraldeko herri eta hiriak irudikatzen dira XIV. mendean. Agerikoa denez, ezberdintasun nabaria dago iparralde eta hegoaldearen artean: iparraldean herri txiki asko daude, haien arteko distantzia ere txikia izanik; hegoaldean berriz herri gutxiago daude, haien arteko distantzia handiagoa da eta hiri gehiago ikus daitezke.

Lizarrako azokaren eragin sozioekonomikoaren eremua hegoaldetik Kalahorrak (Lerineraino, mapan 17 zenbakia) eta hego mendebaldetik Logroñok (Los Arcoseraino, 18 zenbakia) mugatzen dute. Ekialdetik berriz Iruñeak (Gareseraino, 12 zenbakia, Iruñea berriz 11 zenbakia) mugatzen du (Mañeruibar, Iruñea eta Lizarraren eragin eremu konpartitua litzateke, 4 zenbakiaz adierazia). Iparraldetik berriz muga naturalak (Urbasa-Andia mendilerroa) eta mendebaldetik Arabak mugatuko lukete.

Bestalde, eragin eremua hainbat azpi-eskualde edo bailaratan antolatuta dago. Ondoko lerrootan zerrenda, urdinez markatutako zenbakiak dira. Denen erdigunean Lizarra 13 zenbakiarekin.

1. Lanaibar	5. Iguzkitzaibar
2. Ameskoa	6. Jurramendialdea
3. Deierri eta Gesalatzeko ibarrak	7. Berrotza
4. Mañeruibar (Iruñaldeko eragin eremua konpartituz)	8. Egaibar
	9. Allin

Ikus litekeen moduan, eremuak lehen aipatutako Ekialdeko Estellerria eskualdearekin kointziditzen du ia osoki. Nahiz eta eragin eremu nagusia markatzen saiatu garen (Satrustegi ardatz hartuz), Toño Rosek aipatzen digu Lerinetik ere, adibidez, Lizarrako azokara joaten zirela; goizean goiz atera, eguna pasa eta egun berean itzuli. Eta gauza bera erriberako beste herri batzuekin. Gaztelarekiko muga gogorra ez zen igarotzerik eta, horrela, Lizarrako asteroko azokara joaten ziren haien produktuak salerostera.

Beste harreman ekonomiko indartsua ardien inguruko negozioa izan zen, transhumantzia tarteko. Neguan Estellerriko hegoaldean eta udan iparraldean, Urbasan. Negozio horren inguruan monasterioak zeuden, artilearen jabeak. Artile hori Lizarran saltzen zen Erdi Aroko bukaera aldean.

3.1.5 Hiriaren garapena Erdi Aroan: ekonomia eta biztanleria taulak.

Lehenik eta behin ohar bat: “Sua/Sutondoa” urte luzez erabili den biztanleria neurtzeko unitatea izan da. Suak etxeari egiten zion men, eta gutxi gora beherako ideia izatearren esango dugu Su batek lauzpabost biztanle izango liratekeela.

8.taula: Auzoak eta biztanleria 1366an^{xvi}

BURGUA/AUZOAK	SUAK	TXIROAK
SAN MARTIN	193	28
SAN MIGUEL	245	141
SAN JUAN	252	-
ARENAL	35	-
ELGACENA	85	21
KOKATU GABE	19	
GUZTIRA	829	

Ohartu San Miguel auzoaren egoera ekonomiko txarraz, biztanleriaren erdia baino gehiago (%57,6) txiroa zen. Bestetik, azpian dugun 1428ko zentsuari erreparatuta ohartuko gara Lizarrak biztanleriaren erdia galduko zuela 62 urte eskasetan. Galera hori baina ez zen berdin eman auzo guztietan, San Miguelek sufritu zuen gehien garai latz horietan (%52,2 galdu zuen), San Martinek ere sufritu zuen

arren gutxiago galdu zuen, %42, eta hobekien eutsi ziona San Juan auzoa izango zen biztanleriaren %28,6 galduz.

9.taula: Auzoak, biztanleria eta auzoka batz bestergetan ordaindutakoa 1427an^{xvii}

BURGUA/AUZOAK	SUAK	ORD-BATBEST
SAN MARTIN	112	371,51
SAN MIGUEL	117	254,05
SAN JUAN	180	209,06
ARENAL	0	-
ELGACENA	?	-
GUZTIRA:	409	266,42

10. taula: Aberastasunaren banaketa 1427an^{xviii}

TALDE TIPOLOGIA	BIZTANL	HIRIKO ORD. %*	ORDAINDUTAKOAREN KOPURUA
ABERATSAK	%13,44	%50,70	>450
-----	-----	-----	-----
BATAZ BESTEKOTIK GORA	%8,30	%11,82	301/450
BATAZ BESTEKOAN	%9,90	%10,02	226/300
-----	-----	-----	-----
BATAZ BESTEKOTIK BEHERA	%17,35	%12,33	151/225
TXIROAK	%26,65	%11,44	76/150
ERABAT TXIROAK	%24,20	%3,76	0/70

*HIRIKO ORD. %: Lizarrak ordaindu duen zerga osoaren zer ehuneko dagokio azpitalde sozial bakoitzari.

Bi taula hauetan ageriko suertatzen da zein den auzorik aberatsena: San Martin. San Miguel, hiriko batz besteko zerga ordainketaren azpitik egon arren, gertu geratzen da eta amaitzeko, San Juan auzoa dugu txiroena. Biztanlerik aberatsenak San Martin auzoan bizi ziren, eta aberatsen artean aberatsenak ezkutariak, merkataria, notarioak eta artisau-nagusiren bat ziren; familia hauek haien esku zuten udal boterea (alkatetza, juradoak eta idazkaritza).

Bigarren taulan berriz, burguka edo auzoka beharrean zerga ekarpen kopuruaren arabera mailakatu dira lizarratarak. Hiru azpitalde egin ditugu egindako ordainketen arabera: txiroak, batz bestekoak eta aberatsak.

Lehen ikusi dugun bezala, Lizarrak 1366ko zentsutik 1427kora biztanleriaren erdia galdu zuen. Zergatik ote? Zein testuingurutan galdu zuen hainbesteko biztanleria?

11. taula: Lizarrako biztanleria historian zehar

URTEA	SUAK	BIZTANLERIA	GERTAKARIAK
			Goseteak (1300-1318, 1346-1347), Elgacena juduen auzoaren suntsiketa (1328)
1366	829	3.200/4.100	Izurrite beltza (1348,1362)
1427	409	1.600/2.000	Izurrite beltza (1400,1411,1421), Ponce (San Martin) eta Learzatarren (San Miguel) arteko borrokak, Gaztelaren eraso (1378)
1514	450	1.800/2.250	Gaztelaren erasoak (1429,1451,1463), Nafarroako guda zibila (1450-1507), Nafarroako Konkista (1512), Lizarrako arpilatzea (1512)
1553	881	3.500/4.400	Nafarroako Konkista (1516,1521) eta okupazio indarren mantenua
1587	1.000	4.000/5.000	Okupazio indarren mantenua
1646	980	3.900/4.900	Izurrite beltza (1599-1601,1631)
1678	1.073	4.300/5.365	
1726	1.052	4.200/5.260	
1787	-	4.715	
1900	-	5.766	

Bereziki aipagarriak dira 1348ko eta ondoko urteetako izurrite beltzak. XIV. mendearen hasieran 60.000 Su inguru bizi ziren Nafarroan (240.000-300.000 biztanle), baina 1300-1318 eta 1346-1347ko euriteengatik uza oso txarrak izan eta goseteak zabaldu ziren bai Nafarroan eta baita Europa Mendebaldean ere. Ondorengo izurrite beltzen segidak (Nafarroan 73 urtetan bost) Nafarroako biztanleria laurdenera jaitsi zuen, hau da 60.000 Sutatik 15.000 Su ingurura (60.000-75.000 biztanle). XIX. mendera arte ez zuen berreskuratuko biztanleria langa hori ez Nafarroak ezta Lizarrak ere.^{xix}

3.1.6 Lizarrako hizkuntzak

Garai hartan, maiz, *nabarro* terminoa euskalduna zentzuan erabiltzen zen. Eta San Juan auzoa, sorkuntzan, aurreko biak ez bezala, nabarroentzako burgua izan zen. Aski esanguratsua da zentzu horretan San Miguel eta San Juan burguen mugapean dagoen San Juaneko lehendabiziko kale edo ruaren izena: Nabarrerria. San Miguel eta San Juan auzoek argi utzi nahi izan al zuten batzuen eta besteen jatorria? San Martinekiko lotura prestigiosoa, okzitaniarrak, eta nabar hiria?

Gauzak horrela, Lizarran hiru hiztun komunitate genituen hiriaren sorreran: okzitaniarrak, juduak eta jatorrizko euskaldunak. Ekonomia aldetik ere hiru gune bazeuden ere, egiturazko bi ekonomia zeuden: erromesaldiarekin zetorrena (pentsatzekoa da San Martin gailenduko zela hemen) eta ingurune hurbileko azokak (pentsatzekoa San Juan eta San Miguel gailenduko zirela hemen), mendialdea eta erribera. Pentsa genezake San Martin auzoak okzitaniara hobeki mantenduko zuela, jatorriarengatik, aberastasunarengatik eta bere harreman ekonomikoak beste norabaitera zuzenduta zeudelako.

San Miguel auzoko ekonomia berriz inguruko eskualdera, eskualde euskalduna berau, zuzenduta zegoela pentsa genezake. Horretaz gain auzokideen jatorria mistoa zen, *nabarroa* eta okzitaniarra. Honi gaineratu ahal diogu okzitaniera jakitea ez zela abantaila bereziki garrantzitsua (harreman ekonomikoen helburua gertuko lurraldeak ziren), hortaz pentsa genezake euskara azkar barneratuko zela auzoan. Zer esanik ez San Juan auzoan, non jatorriz *nabarroak* ziren jada eta helburu ekonomiko bertsukoa zen.

Bestalde San Miguel erabat pobretu zen XIV. mendeko bigarren aldian (1366ko zentsua), aipatu txirotzeak eta gosete eta izurriteen ondorioz, San Miguelek hiru burguen artean populazio galerarik handiena jasan zuen. Horrela XIV. mendetik aurrera San Juan burgurik populatuena izango zen (hau da, jatorriz gunerik euskaldunena ematen duena). Euskararen hitzun komunitatea bizi-bizi zegoela pentsa genezake beraz.

Biztanleen jatorriaren inguruan, haien abizenei begira, 1354ko zentsuan San Juan eta El Arenalgo (beste auzo txiki bat) biztanleak garai hartako Nafarroa euskaldunekoak ziren. Hortaz, ondoriozta daiteke euskararen presentzia oso indartsua izango zela Erdi Aroan.^{xx}

XVI. eta XVII. mendeko hainbat aipuetan esaten da txirolek euskaraz egiten zutela. Garai hartan, norbaitek euskaraz egiten zuela esatean, askotan, euskaldun elebakarra zela interpretatu ohi da. Aurreko atalean zehaztutakoaren haritik, herriarren %68,2 aberastasunaren batz bestekotik behera bizi zen Lizarran 1427an, eta aberatsak soilik %13,44; honek eman ahal digu garaiko hizkuntza-komunitateen egoeraren berri. Jakinik ere, eliteko kideek euskara haiena bazutela (XVI. mendean, oraindik orain, Fray Diegoren familia boteretsuak euskarazko lema zuen) pentsatzekoa da tarteko komunitate hori, klase ertaina, euskaldun elebakarrez eta elebidunez osatuko zela (%21,72).

Beraz 1427ko zentsuaren arabera ondoko Lizarra izan ahalko genuke:

- Euskaldun elebakarren multzo handi bat (%68,2; txiroleak)
- Tarteko komunitatea, zehaztugabea, bertan euskara nagusitu arren elebitasun zantzuak izanen zirela pentsa zitekeen (%21,72; klase ertaina).
- Elebidunen multzo bat (%13,44; aberatsak), non euskara erabiliko bazuten ere erromantzeen hitzun-komunitatea osatu ahal zuten.

3.1.6.1 Hizkuntza Idatzia, okzitaniera.

12. taula: Santa Clara komentuko dokumentuak hizkuntzaren arabera^{xxi}

Hizkuntza	Dokumentuak eta urteak	Dokumentu gehienak
Okzitaniera	49 dok 1279-1366 bitartean	45 dok 1299-1355 bitartean
Nafar-aragoar eta gaztelania	75 dok 1271-1623 bitartean	62 dok 1350-1510 bitartean

13. taula: Lizarrako Udalean ordenantzak^{xxii}

Hizkuntza	Urteak
Okzitaniera	1280-1307 bitartean
Nafar-aragoar eta gaztelania	1387tik aurrera

14. taula: Notarioen dokumentuak okzitanieraz^{xxiii}

Hizkuntza	Dokumentuak eta urteak
Okzitaniera	31 dokumentu, 1232-1299 bitartean
Okzitaniera	24 dokumentu, 1302-1369 bitartean

15. taula: Jaso ditugun Lizarrako Foruen bertsiok^{xxiv}

Hizkuntza	Dokumentuak eta urteak
Latina	1164,
Okzitaniera	XIII bukaera edo XIV hasiera(1), XIV(2), XV bukaera(1)
Nafar-aragoar	XIV (okzitanieratik itzulpena)

Ematen duenez, okzitanierazko idazketa hainbat lekutan indartsu mantendu zen XIV. mendearen erdira arte, hala adierazten dute bai Santa Klarako komentuko jardunak, udal ordenantzak eta notarioen dokumentuek. XIV. mendean baina, Lizarrako Forua okzitanieraz izanik ere berau nafar-aragoarrera itzulita ageri zaigu, Udalean ordenantzak nafar-aragoar erromantzean agertzen hasten dira eta Santa Klarako komentuko mojek ere okzitaniera uzten dute.

Lizarrako elitearen idazteko hizkuntzaren ordezkapena ematen du, eta, ziur aski, okzitanieraren hitzun-komunitatearen berandueneko bizi-data: erromantze batek bestea ordezkatzeko zuen XIV. mendean zehar. Mende honetan emango dira ere Ponce eta Learza familia boteretsuen arteko borrokak, batzuek, Ponceak, okzitaniar aristokraziaren ordezkari eta Learzatarrek nafar jatorrikoak. Karlos III. erregeak 1396 eta 1407an esku hartu behar izan zuen, eta 1407an bi alderdiak deuseztatuko zituen. Honek Learzatarrek indartzeko zituen. Ohartu nafar-aragoar erromantzean, ditugun aurreneko ordenantzak, 1387koak direla, borroka politiko honek zerikusia izango?


Udal, ekonomi eta parrokia borroka honen baitan ematen da okzitanieraren gainbehera, batzuen izate berezituaren aldarrikapena (jatorri Frankoa) desagertuz joango da eta XIV. mende bukaeran eta XV.ean idazteko hizkuntza nafar-aragoar erromantzea izango da.

3.1.7 Euskararen garapena Estellerrian

Atal honetako mapan berriz, eskualde berean euskarak ustez izan duen bilakaera jarri dugu. Ikus daitekeenez, euskara nagusi zen eremua Satrustegik aipatutako Lizarraren eragin eremu nagusiarekin ia bere osotasunean egokitzen da. Ez hori bakarrik, muga ia egonkor mantentzen da Erdi Arotik XVI. mendearen bukaerara arte.

Gero ikusiko dugunez, galera prozesua XVI. mendean hasiko bazen ere, XVII. eta XVIII. mende bitartean emango da atzerakadarik nabarmenena, XIX. mendea izanik bertako euskal hitzun-komunitateak erabat galtzeko momentua. Lan honen **3.1.4 Lizarraren eragin eremua** ataleko mapari so eginez, ikus daiteke euskararen galera eta Lizarrako eragin eremua ia bere osotasunean bat egiten dutela beste behin ere.

6. Mapa: Euskal toponimia eta euskararen agerpenak idatzietan



Toponimia datu guztiak iturri beretik atera dira Legaria izan ezik. Legariako datuak (%23-ko euskal toponimia 1998an) Joseba Lizeaga Rika-ren lanetik atera ditugu.^{xxvii}

Hiri toponimiari kasu eginez gero, 1294ko hainbat toponimo jasota daude. Horretan, Iruñeako toponimoen %85a jatorri euskaldunekoa zen (eta falta diren gehienak, toponimoen erregistro-hizkuntza ezberdina izatearen ondorioz azalgarriak), Lizarran jatorri euskalduneko toponimoak izan arren, hauek nahikoa gutxiago ziren. Tuteran bestetik ez zen euskal jatorriko toponimorik. Hortaz, ematen du euskararen egoera okerragoa zela Lizarran Iruñean baino.

Esan beharra dago, hori bai, Iruñea jatorri euskalduneko hiria dela, Lizarra baina jatorri Frankoko hiria (eta jatorri euskalduneko herria) dela. Beraz, toponimoetan ezberdintasuna, sortze ezberdina izanaren ondorio izan liteke, eta ez halabeharrez euskal hitzun komunitatearen zabalpena mugatuagoa izatea.

3.1.9 Iruñea eta Lizarra

Bai Erdi Aroan zehar baita Berpizkunde garaian ere, Lizarrak eta Iruñeak antzekotasun nabarmenak izan zituzten. Populazio aldetik Iruñea handiagoa bazen ere, biak hiri ziren, eta bietan erabilpen aldetik hizkuntza nagusia euskara izanik ere beste hitzun-komunitateak ere baziren. Kasu honetan, Lizarraren berezitasuna izan zen okzitanieraren hitzun-komunitateak gehiago iraun zuela (XIV. mendearen bigarren erdira arte) eta, ondorioz, nafar-aragoerak beranduago ordezkatzuko zuela okzitaniera. Baina XVI. mendean sartzean, jada bi hiriak pareko zeuden: euskara nagusi, euskaldun elebakar multzo handiak (herri xehea oro har) eta gaztelaniarekin elebitasuna elitearen baitan.

Baina, Lizarran jada 1607tik elizetan apaiz ez euskaldunak ipintzen hasi ziren, nahiz eta lehen aipatu bezala euskal elebakartasun maila altua zen oraindik, herena edo garaiko aipuan. Iruñean berriz, apaiz ez euskaldunen afera 1645ean gertatuko da lehen aldiz, hau da, ia 40 urte beranduago. Eta ez hori bakarrik, euskaldunen kopurua (elebakarrak edo ia, pentsatzekoa da) biztanleriaren hiru laurden edo gehiago zela ematen du (garaiko aipuetan agertzen denez San Cerninen 100etik 90 euskaraz aitortu, San Juanen 21etik 20 edo gehiago, San Lorenzon gehienak euskaraz eta San Nicolasen 20tik 15).^{xxviii}

Iruñako hiltunen soziologia, aitortzaren arabera, honakoa izango litzateke: gaztelanier hiltunak “los caballeros, curiales, personas de importancia y hombres de negocios” komentuetan hartzen zuten aitortza nagusiki (10etik bat euskaraz, 15etik bat euskaraz, garaiko bi aipuetan). Euskaraz ordea, “la gente común”, hau da, “labradores, hortelanos, maestros de diferentes oficios, sus aprendices, criados y criadas, y familiares”.^{xxix}

Hortaz, badirudi XVII. mendearen hasieran Lizarra eta Iruñea euskalduntasunean urruntzen hasiak zirela. Alde batetik, euskaldunek 40 urte beranduago egin behar izan zioten aurre apaiz erdalduna izateari eta bestetik, Lizarran euskaldun elebakarren kopurua herenean zegoen bitartean Iruñean (40 urte beranduago) hiru laurdenean edo gehiago. Ezin neurriok erabateko zehaztasunez hartu, baina egoeraren irudikapena egiteko baliagarriak direla ematen du.

Lizarra eta Iruñea Erdi Arotik egoera bertsuan atera ziren, bai, baina Iruñean ez bezala eskualdeko euskal hiltun-komunitateen nagusigoaren muga Lizarraren eragin eremu nagusiaren muga zen aldi berean. Litekeena da horrek eragin izana Lizarran euskara goizago galtzea, XVIII. mendean edo; eta honekin batera Lizarra Estellerriko iparraldeko herrien erdalduntze eragile bilakatu izana. Iruñean berriz XIX eta XX. mende hasieran izango zen euskal hiltun komunitatearen galera.

Ohar moduan, aipatutako mapak ere ezin dira zentzu zorrotzean hartu. Tafallan adibidez, Erdi Arotik mapetan eremu erdaldundutzat hartzen dena, ondoko baieztapena topa dezakegu 1627an: “la mitad de la parroquia de la villa de San Pedro de Tafalla, y más, es de vascongados”, euskaldun hauek beren parrokian beharrean San Frantzisko komentura joan behar zuten aitortza euskaraz jasotzera, elizako apaizak, erdalduna izaki, ezin baitzien aitortza euskaraz hartu.^{xxx}

3.2 Lizarrak eta Estellerriak berezko euskara galdu zutenekoa: XVI-XIX. mendeak.

XVI eta XIX. mendeen bitartean euskarak bere nagusigoa galtzen joango zen Lizarraldean; galeraren ibilbidea, ematen duenez, hegaldetik iparraldera eta mendebaldetik ekialdera izango zen.

3.2.1 Euskara nagusi zenekoa: XVI-XVII. mendeak.^{xxx}

16. taula: Euskararen agerpenak idatzietan. XVI-XVII. mendeak

URTEA	HERRIA	GERTAKARIA
1550	BAKEDANO (AMESKOA)	Ezkontza
1552	ZUFIA (METAUTEN-ALLIN)	Ezkontza
1561	LIZARRA	<i>Sancho de Elso</i> euskarazko dotrina argitaratua. Adrian de Anvers editorea 1570ean kexatu Nafarroako Gorteei: «y como este reino sea tan pequeño, y la mayor parte de él bascongado, se vende muy poco de lo que se imprime» ^{xxxii}
1564	ERAUL (DEIERRI)	Ezkontza gomita
XV-XVI	LIZARRA	Fray Diegoren familiaren lema: <i>Garen, garean legez</i>
1576	BARBARIN (MONTEJURRA ALDEA)	Sorginkeria epaiketa, euskara zantzuak.
1581	ARANDIGOIEN (DEIERRI)	Apaiz euskalduna eskatu
1592	ABARTZUZA (DEIERRI)	«la gente razonable, aunque de diferente lengua, vascona, que no se entendía.»
1592	LIZARRA	«esta ciudad, (...) sólo tiene unos dos mil habitantes, cuya parte más humilde habla la lengua vizcaína que ellos llaman vascongada, la cual nos pareció muy extraña, no entendiendo de ella ni una sola palabra»
1600	ARANDIGOIEN (DEIERRI)	Apaiz euskalduna eskatu. Herri osoa euskaldun, lau pertsona elebidun (kanpotik etorriak)
1600	VILLATUERTA (IGUZKITZAIBAR)	Elizkizunak euskaraz
1605	LIZARRA, AZKONA, UGAR IRUÑUELA	Epaiaketa Lizarran, lekukoek ez zekiten gaztelaniaz.
1607	LIZARRA	« ... la an echo no mirando a la necesidad de la parrochia porque en ella de tres partes la una es vascongada y el electo bicario por ellos no sabe bascuence. »
1607	LIZARRA	«... en San Miguel buscaba un clérigo bascongado ... para que le confesase sus feligreses ... por auer muchas personas bascongadas que no entienden el romance ...»
1613	GUIRGUILLANO (MAÑERUIBAR)	Bikote banaketa
1646- 1647	LEZAUN, ITURGOIEN, JAITZ (GESALATZ)	«...teniendo noticia de que las más de las personas de dicho lugar y su comarca son bascongadas, cuya lengua no la entendemos ni ellos la nuestra tomamos juramento del (...) para que nos sirviese de Intérprete» ^{xxxiii}
1646 1733	MUZKI (GESALATZ)	Francisco Elizalderen jaiotze-hiltzea, <i>Apezendako dotrina uscaras</i>

Ematen du bi mende hauek erabakigarriak izango zirela euskararen bizirauterako Estellerrian. Alde batetik, Nafarroako konkistak eta gerrak (1512-1530), ondorio garrantzitsu bat utzi zuen

Lizarran: burguetako harresiak eraitsi zituzten, horrela auzoen arteko harremana estutuko zela pentsatzekoa da.

Bestetik, garaiko erlijio gerrak, Trentoko kontzilioak (1545-1563) eta Gaztelaren kontrolak Nafarroako elizaren goi karguetan, XVI. mendearen bigarren mende erdian eta XVII.ean eragina izango zuen Nafarroako eta, nola ez, Lizarrako euskal hiltun komunitatean.

Horrela, euskaldun elebakarrak ziren herrietan epaiketak suertatu ziren garai honetan, honek haien hizkuntza egoera aztertzea ahalbidetuz. Aipatzekoa da ere XVI. mendean Eraulgo (Deierri) elizgizonari emaniko araua: “solamente dos palabras de la doctrina cristiana y cuatro oraciones de la Iglesia en vascuence y explícitamente para que lo entiendan.” Hau da, herrikoak euskaldunak ziren eta ez zuten erromantzea ulertzen baina elizkizunen ohiko hizkuntza hala ere gaztelania zen, euskara ahalik eta gutxiena erabiliz.

Lizarrari espresuki egiten zaizkion aipamenetatik bi informazio argigarri atera daitezke. Batetik Lizarrako Fray Diegoren (1524-1578) familiaren lema: «Garen, garean legez». Honen familiaren, Cristobal-Cruzet, jauregia San Martin auzoan dago. Maestre Martín San Cristóbal XV. Mendearen amaieran etorri zen Lizarrara, Burgoseko Noceco herritik. Lizarran María Sánchez de Egularekin ezkonduko da eta XVI. mende hasieran hiriko *jurado* izango zen. Diego semeak ere lan hori bera burutuko zuen, berau *erregidore* eta alkate karguak izanik ere. Diego, María Cruzatekin ezkonduko zen eta harekin 11 seme-alaba izango, Fray Diego haien artean.

Familia honen ibilbidea esanguratsua da, euskararekin lotura gutxi omen zuten lau gertakari aintzat hartzen baditugu bederen: jauregia San Martin auzoan (ustez erdaldunena), familiaren zati baten jatorri atzeritarra (Burgos), boteredun familia (*juradoak*, *erregidoreak* eta alkateak) eta kulturadun kideak (Fray Diego bederen). Eta hala eta guztiz ere familiaren lema euskaraz zen. Lema horrek ez zuen gehiegi iraungo hala ere, Fray Diegok, aszetikoa izaki, familia buruari eskatuko omen zion lema latinez idazteko; harrokeria adierazten zuelakoan.

Ezin aipatu gabe utzi ere Lizarrako euskal komunitatearen egoeraren adierazgarri izan ahal diren 1607ko adierazpenak: bai San Miguel elizan bai San Juanen erromantzea ulertzen ez duten euskaldun asko daude. San Juanen kopurua esatera iristen da ere, herena. Horrek ziurrenik zera esan nahi du, Lizarra elebiduna izango zela oro har eta zati handi bat euskaldun elebakarra.

XVI eta XVII. mendearen lehen erdian oro har euskal komunitateak eutsi egiten dio erdararen zabalkundeari baina atzera pausurako oinarriak jarriak dira jada: apaizgoaren jarrera eta, ziurrenik, elebitasun egoeraren zabalkundeak euskal hiltun komunitatearen indarra gutxituko lukete.

3.2.2 Hiltun komunitatea desagertu zenekoa: XVIII-XIX. mendeak.

Aurreko epealdian, XVII. mendea hasi arte bederen, euskara nagusi zenaren irudikapena egin dugu. Orain baina, irudikatuko duguna XVII. mendearen bukaeran eta, batez ere XVIII.

mendean eta XIX. mendearen hasieran eman zen euskaldunen komunitatearen desagertzea izango da.

17. taula: Euskararen agerpenak idatzietan. XVIII-XIX. mendeetan.

URTEA	HERRIA	GERTAKARIA
1703	GALDEANO	Eliza eta herriaren artean epaiketa
1723	ARBEIZA (EGAIBAR)	Arbeitzako apaiza euskalduna, baina herria nagusiki elebidun. Inguruko herrietako euskaldun elebakarrak Arbeitzara aitortzera. Inguruko herrietan apaizak erdaldun beraz.
1723	LARRION (ALLIN)	«tienen mas curso en ablar la lengua castellana que los Vecinos de este lugar (Eraul) por comerciar unas veces con los vecinos de la Ciudad de Estella, y estar mas proximo y tener continuamente el oficio de portear ladrillos necesarios para las fabricas de dicha ciudad y las mujeres de dicho lugar de Larrion en hacer ropas para colar». Thomas de Baquedano, Larriongo abatea
1722 1723	ERAUL (DEIERRI)	Herrian elebitasuna bai, elebakarrak badaude.
1735		<i>Apezendaco dotrina christiana uscaras</i> argitaratua
1750	EKALA-BAKEDANO (AMESKOA)	Ekalan hazitako neska, jatorriz Bakedanokoa, ez zekien erdaraz.
1763 1797	MUZKIZ (GESALATZ)	Lau sermoi euskaraz, Martinez de Morentin apezak
1758 1824	LIZARRA	Pablo de Estella kaputxinoa, «Arte de la lengua Vascongada al uso del Padre Fr. Pablo de Estella» Lizarrako azken euskaldunetakoa?
1805	DEIKAZTELU	Euskarazko sermoia (bertakoa ala ekarria?)
1842	LIZARRA	«en Estella los jóvenes no hablan vasco, sólo los viejos de los pueblos cercanos conocen ya ese idioma» De Barres militar frantziarra
1858	ABARTZUZA, ERAUL (DEIERRI)	Lizarrako lagun batek bi herrietako ikazkinak euskaraz entzun haien artean.
1869	GARES, ITURGOIEN, JAITZ	Luciano Bonaparte, %14 euskaldunak.
1925	GARES	Bertako azken euskalduna izan ahal zena hiltzen da.

Aurreko mendean bezala, apaizgoaren jarrera oro har erromantzea erabiltzea zen. Aitortzan, apaiza erdalduna bazen euskaldunak inguruko beste herri batera joaten ziren baldin eta han apaiz euskaldunak baziren: aipuetan, Villatuertara 1600ean eta Arbeitzara 1723an.

XVIII. mendean, ematen duenez, Lizarra bere ingurua erdaratuko zuen eragilea bilakatuko zen (Larrion 1723, Eraul 1723). Honekin loturik aipuetan ikusten da gaztelaniaren sarrera ez zela berdina izan herri guztietan, Lizarrarekiko harremanen eta isolamenduaren arabera izan zen, baina epe luze-laburrean, ondorio bera izanen zuen.

Bestetik, eskoletan, «Aunque tambien es verdad que de la misma forma hablan en algunos de dichos lugares la bascongada, tambien saue que en las mas de ellas ay maestros de escuela que ensenian a leer y escribir en castellano, y en los que por su cortedad de vezindad de

mantener maestro, acuden los niños a las escuelas de la Ciudad de Stella en donde no se habla por sus naturales otra idioma que la castellana, por cuías razones tiene por cierto el testigo que en el referido Eraul» ... «(gastelania uler dezakete)». Mateo Xuarez Lizarrako eskribaua. Eta honekin batera, «educando en las escuelas donde no se permite hablar vasquense».

Hala ere, iritsi zaizkigun adierazpenetan nahasketa nagusi da. Autoritateak, interesak tarteko, errealitatea itxuraldatzen saiatzen dira euskararen ezarpen maila txikituz. Horren adibide Eraulen 1723an gertatua, hango apaiza euskalduna izatea eskatu zenekoa. Irantzuko Monasterioko prokuradoreak (herriko eliza Monasterio horri zegokion) Eraulgo herritarrek gastelania ulertu eta bazekitela zioen eta gastelania bertako berezko hizkuntza zela; bestetik Azkonako abateak ere bertako *ohiko* hizkuntza gastelania zela testifikatu zuen. Honen aurrean hainbat eta hainbat lekukok ondokoa adierazi zuten: herriko gizon batzuek gastelania ulertzen bazuten ere, gizon askok eta emakume gehienek ez zutela ulertzen.

Euskararen nagusigoa alde batera utzita, bigarren ondorio bat atera liteke ere; herrian (Eraulen kasu honetan) elebitasuna sartzen hasia zela eta ematen duenez gizonen artean lehenik, Lizarrarekin harreman handiagoa izanagatik edo.

Interesgarria da ere garaiko hezkuntzaren antolakuntza aipatzea. Lizarran “Escuela de Primeras letras” existitzen zen (irakasle bat eta 1675etik aurrera laguntzaile bat ere). Bertan 5-6 urte bitartean irakurmena lantzen zen, 7-9 urterekin idazmena eta 10-12 urterekin aritmetika. XVIII. mendera arte mutilek bakarrik joan ahal zuten. Haren eragina ikusteko, hona hemen 1814ko Lizarrako haur eskolaren datuak: 242 ikasle zituen, asistentzia baina %60koa zen (74-84 haur irakurle, 61 idazle eta 4 aritmetikan). Herrietako klaserako asistentziak ez ziren hobeak izango.

Bestetik, Lizarran ere “Estudio de la Gramática” izan zen 1849 bitarte. Bertan “Preceptor” bat eta bat edo bi “Repetidor”-ek irakasten zuten. 1739-1767 bitartean sona handia hartu zuen eta Merindade osoko 200 ikasle izatera iritsi zen, ordutik aurrera baina, gainbehera ezagutuko zuen desagertu arte. Berezi gogorak izan ziren 1767-1776 urteak, ehun ikasletik gora izatetik hogeitaino gutxiago izatera igaro baitzen.^{xxxiv}

Eskolatzeak izango zuen eragina, azterlan honetatik haratago doan lana da, beraz soilik aipatu 1780-81eko XL-I Legea: “regulación enseñanza de las escuelas primarias”. Hezkuntzaren unibertsalizazioak (neurri batean), zorrotasunak eta euskararen aurkako hizkuntz jazarpena euskararentzako kolpe gogorak izango ziren XVIII. eta XIX. mendeetan.

XIX. mendearekin Lizarrako eta inguru hurbileko euskal hiztun komunitatearen akabera etorriko zen. Hala ere, euskarak oraindik arrastoak utziko ditu Lizarran, Pablo de Estella (1758-1824) monje kaputxinoa kasu. Honek euskara-gastelania hiztegia prestatu zuen Aita Manuel Larramendiren *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Vascongada* (1721) euskal gramatika libururako; Lizarrako azken euskaldunetakoa ote?

1842an berriz, Karlistadak direla eta etorritako De Barres militar frantsesak honako idatzia utzi zigun: «en Estella los jóvenes no hablan vasco, sólo los viejos de los pueblos cercanos conocen ya ese idioma». Honek pentsa bide ematen du Lizarran jada ez zegoela euskal hiztun

komunitaterik. Bestetik, eta honi lotuta, Lacarrak Lizarrako bizilagun baten testigantza jaso zuen XX. mendea hasieran: Eraul eta Abartzuzako ikazkinek euskaraz egiten zuten haien artean (1858aren inguruan).

De Barresek idatzitakoa eta Lacarrak jasotakoa hitzez hitz hartzen baditugu, 1842an euskara galtzear zegoen Lizarrako ipar eta ipar-ekialde inguruko herrietan; adinekoek bakarrik hitz egiten zutenez transmisioa etenda zegoen. Horrela, 1858rako haietako asko hilko zirenez herri horietako euskal hiztun-komunitatea ia desagertuta legoke. Lanbide konkretuetan bakarrik iraungo zuen euskarak zer edo zer gehiago, lanbide horren funtzio-sozialak bereganatua baitzuen hizkuntza honek. Baliteke hiztun-komunitate gutxitu horiek beste lanbideren batean ere irautea (artzainak agian) edo bestelako funtzio-sozialen bat betetzea, baina ezin uka hiltzorian zegoen gaixo baten azken arnasaldiak zirela.

Transmisio naturala duela hiru belaunaldi etenda eta erabilera zaharkitutako lanbide konkreturen batean gordeta, euskara XIX. mendean bertan galduko zen Lizarra inguruan. Ematen duenez, Lizarratik hogeit hamar kilometrotara dagoen Garesen 1925ean hilko zen azken edo azkenetako euskal hiztuna, XX. mendearen hasieran Estellerrian bertako euskara galdu zen.

3.3 Berreskurapenaren hastapenak: XIX. mendetik 1936ra.^{xxxv}

XIX. mendean berezko euskara desagertua zegoen Lizarran, nahiz eta ziurrenik bertan oraindik euskaldunak izango ziren hiri izatearen ondorioz. Garai honetan industria iraultza, iraultza politikoak, estatu modernoaren eraikuntza, hezkuntzaren hedapena, gerrateak, nazionalismoak eta, oro har, nekazari gizartetik industri gizartera doazen bideak eta prozesu horretan eragindako ideologiak azalduko zaizkigu.

Euskararen aldarrikapena elkarte politiko abertzaleetan oro har —foruzaletasuna, nazionalismoa— txertatuta agertzen zen maiz. Zaila da batzuetan euskararen aldeko jarduerak eta politika orokorrekoak bereizten eta, aldi berean, bien arteko loturak zenbaitetan mugak ezarri zizkion euskararen inguruko mezua zabaltzea eta antolatzeari, beste zenbaitetan babesa edo indarra eman zion bitartean. Mende honetan ageriko suertatzen hasi zen elite euskaltzale baina erdaldun baten agerpena.

18. taula: Euskaltzaleak XIX-XX. mendean

	ELITEKO EUSKALTZALE ERDALDUNAK	Euskalduna
1758-1824	Pablo de Estella kaputxinoa	bai
1808-1874	Pablo Ilarregi Alonso	
1841-1918	Estanislao Aranzadi	
1864-1911	Daniel Irujo Urra	
1882-1942	Manuel Aranzadi Irujo	
1891-1938	P. Augustinus de Lizarra	bai
1891-1981	Manuel Irujo Ollo	
1893-1936	Fortunato Agirre Lukin (Arellano)	
1894-1973	Alejandro Maria Olazaran	bai?
1907-1987	Jose María Lacarra	

1907-1993	Andres Irujo Ollo	
1910-1983	Pello Mari Irujo Ollo	

Hor dugu Pablo Ilarregi Alonso (Lizarra, 1808-1874). Politikari liberala, Iruñako Udaleko Idazkaria, poeta eta Iruñako bizitza kulturalako figura. Luciano Bonaparteren balizko laguntzailea. Euskaltzaletasunean sutsu, berak aipatu zuen damu zela gaztetan euskara ikasi ez izanaz. Berea da 1870eko "La lengua vascongada" artikulua "El Pais Vasco-Navarro"n.

Ondotik etorriko ziren Estanislao Aranzadi (Lizarra, 1841 – Oñati, 1918) eta Manuel Aranzadi Irujo (Lizarra, 1882 – Iruñea, 1942). Estanislaoak, 1878ko urtarrilaren 6an *Asociación Euskara* sortu zuen (haren presidente izan zen hainbatetan), baita *Revista Euskara*-ren (1878ko otsailaren 1ean) eta *Lau Buru* egunkariaren sortzaileetakoa izan zen ere (1882ko urtarrilean). Manuel Aranzadi berriz, Iruñako *Centro Vasco*-ko (1910), *La Voz de Navarra* (1923), *Napartarra* astekaria (1911), *Euskal Esnalea* (1930) eta Aranzadi argitaletxearen (1928) sortzaileetakoa izan zen.

Hauekin batera Irujo familia dugu: Daniel Irujo Urrea (Lizarra 1864 - 1911) abokatua, Manuel Irujo Ollo (Lizarra 1891 – Iruñea 1981) Errepublikako ministroa eta Pello Mari Irujo Ollo (Lizarra 1910 – Iruñea 1983).

Euskaltzaletan oparo izan ziren 1880 eta 1890eko hamarkadak Lizarran, horren baitan sortuko ziren Olazarán Salanueva familiako bi kide esanguratsu. Bat Alejandro Maria Olazarán Salanueva (1894-1973): Kaputxinoa, piano irakaslea, musikaria eta konposatzailea, eta bigarrena Aurelio Olazarán Salanueva (1891-1938). Bigarren hau 1907an apaiztu zen eta Txilen exiliatu behar izan zuen Gerra Zibila dela eta. *P. Augustinos de Lizarra* bezala sinatzen zuen.

3.2.1 Euskara nagusi zenekoa atalean aipatu dugun Berpizkundeko Fray Diego euskaldun zaharra zen ziurrenik, eta hala ere bere familiaren leloa, *Garen, garean legez*, armarritik kentzeko eskatu zuen. Hirurehun urte pasa eta gero, Lizarrako beste elizgizon batek, euskaldun-berria ziurrenik, bere sinaduran (garaiko leloaren pareko?) *P. Augustinos de Lizarra* bezala sinatzen zuen. Aldaketa sinbolikoa dirudi.

Gizon honen euskaltzaletasunaren bi zantzu aipatuko ditugu. Batetik, 1922ko irailaren 10etik 17ra Gernikan III. Eusko Ikaskuntza kongresua ospatu zen. *P. Augustinus de Lizarrak* Lekarozeko Eskolako euskara ikasketen metodologia aurkeztu zuen. Hizkuntzalariek hainbeste eskertu zuten non Eusko Ikaskuntzak inprimatu eta eskoletan zabaltu zezan erabaki zuten. Eskatuz, halaber, eskola haietan guztietan Lekarozeko N^a S^a del Buen Consejo-n erabiltzen zen metodologia ele-bia indarrean jartzeko.^{xxxvi}

Eta honen euskaltzaletasunaren bigarren zantzia ondokoa dugu; Lekarozeko Kaputxinoen inguruan ari zirelarik, haien euskararenganako jarrera jasotzen da kexa moduan: "Iruñako eta Gasteizko Obispoen aurka era iraingarrian adierazpenak egin zituzten (Lekarozeko Kaputxinoek), Pastoralak euskaraz ez argitaratzeagatik."^{xxxvii}

Hauekin batera ezin aipatu gabe utzi Fortunato Agirre Lukin (Arellano, 1893 – Taxoare, 1936), EAJko politikaria eta Lizarrako alkatea (1933-1936), 1936an fusilatuko zutena.

XIX. mendean, euskal hiztun komunitatea desagertuta egon arren oraindik azken hiztunak inguruko herrietan topa zitezkeen (Gares, Iturgoien, adinekoak ...). Elite euskaltzale eta politizatua agertu zen Lizarran, mendea aurrera joan ahala orokorrean EAJren inguruan egituratuko zen eta 1931n Junta de Patronato de la Lengua Vasca erakundea sortu zuten (F. Agirre, J.M. Lacarra, A. Ugarte, D. Irujo eta Navascues) eta 1931n Udalari euskaltegia sortzeko eskakizuna luzatu zioten; luzatu eta lortu. 1932-1933an Udalari eskaera luzatuz ikastola sortu zuten (Patronatuko kideak: F. Agirre eta Navascues).


1932ko martxoan gau-eskola martxan jarri zen Azpeitiko irakasle jesuita batekin, Jesus Uranga, honek urtebete emango zuen Lizarran irakasle (Kanarietara destinatu zuten gero) eta 1933-1934an Petra Azpiroz leitzarrak beteko zuen bere hutsunea, aldi berean Errepublika garaiko ikastola martxan jarritz. Honek, beste gauza asko bezala, 1936ra arte iraungo zuen. Momentu hartan berrogei haur zeuden ikastolan eta ezin esan zenbat heldu eta gazte gau-eskolan.

Atal honetan Lizarrako elite batez aritu bagara ere, ezin ahaztu horiek izaten direla normalean historia liburuetan jasota geratzen direnak. Zenbat pertsona topa genitzake historiaren dokumentuetan isilduak izan zirenak, zenbat euskaltzale? horren zantzua izan ahal dugu Lizarrako Errepublika garaiko Ikastolan.

Batetik, berrogei haur zeuden ikastola itxi zutenean; haurron gurasoek euskararen aldeko mugimenduaren aniztasuna irudika dezakete: Guardia Zibilak, ijitoak, abertzaleak, eta abar. Bestetik, 1932an ehun eta hogeitaz bizi lagunetik gora sinatutako adierazpen publikoa dago: Jose Maria Lacarra, Fortunago Aguirre, Ruiz de Alda familiakoak (garaiko familiarik aberatsenetakoa Lizarran) ... Adierazpen honetako, *Diario de Navarra*, *Un Llamamiento por el euskera*, maiatzak 11, lehen sinatzaileak emakumeak ziren, haien artean EAJ inguruko Emakume Batza. Bertan euskararen berreskuratzeko borondatea adierazten zuten eta horretarako “Escuela Vasca”-ren beharra.

Ikastolaren arrakastaren iturri izan ahal dugu bai aipatu dugun azken mendeko mugimendu euskaltzale hori eta baita Lizarrako eta inguruko herrietako biztanleen *memoria bizia*. Hau da, 1930eko hamarkadan bertakoek haien bizi-esperientzia euskara bertakoa izatearen memoria soziala jaso zuten. Gogoratu, adibidez, 1858ko aipamen hori non elkarriketatuak (hamarkadak beranduago) esaten zuen inguruko herrietako ikazkinek haien artean euskaraz entzun zituela. Euskara bertakoa izatearen memoria bizia zegoen oraindik.

7. mapa: Euskararen aldeko ekimenen kokapena (1863-1936)
Xabier Erize Etxegarai



XIX. eta XX. mende hasieran Lizarrako euskaltzaleen arrastoak topa ditzakegu ondoko lerrootako bi mapa hauetan.^{xxxviii} Lehen mapa honetan 1863-1936 artean euskararen alde eginiko ekimen askoren herriz herrikako kokapena dugu. Aldi berean euskararen zabaleraren eremua ere zehazten da, euskararen mugak 1863 eta 1935ean.

Ikus daitekeen moduan ahalegin gehienak eremurik euskaldunenean ditugu, baina hortik kanpo ditugu Iruñea hiriburua eta Lizarra. 132 ekimen inguru daude jasota mapa honetan, horietatik lau Lizarran; hauek

ikastolaren eta Junta Patronato Vascoren sorreraren ingurukoak dira.

8. mapa: Arturo Campionen "Gramatica"-ren harpidetzen banaketa (1884)
Xabier Erize Etxegarai

Honako mapa honetan berriz, Arturo Campionen "Gramatika"-ren harpidetzen banaketa dugu, 1884koa. Lehen bezala, Nafarroan 1863 eta 1935ean euskarak zuen zabaleraren mapan txertaturik. Mapa honek irudika dezake nolazpait garaiko Euskara Elkartearen eragina (1877-1897).

Nafarroan 108 harpidetza zeuden, haietako 81 Iruñan. Beraz, geratzen diren 27 harpidetzak beste 17 herritan banatuta zeuden. Lizarra horien artean. Beste behin ere topa dezakegu hemen atal honetan irudikatu dugun Lizarrako elite euskaltzale horren eragina.



Euskaltzale hauek euskararen berpizkundea geldiaraziko zuen kolpe gogorra jasoko zuten 1936an. Garai honen hasieraren erakusle eta laburgarri Ricardo Sanz Iturria komandante militarren bandoa, 1936 irailaren 25ekoa. Honek ongi laburbiltzen du ondoko hamarkadetako epealdi iluna (beltzez dauden esaldiak jatorrizkoan letra arruntez zeuden).

Ricardo Sanz Iturria komandante militarren bandoa, 1936-IX-25, Lizarran

En el plazo de 48 horas, a partir de la publicación de este Bando, todos los elementos nacionalistas entregarán en la Comandancia Militar todos los objetos o prendas (incluso de vestir) de **carácter separatista**, los libros, periódicos, mapas y retratos, de aquel que se llamó Sabino Arana, así como bustos o figuras de éste y otros cabecillas separatistas.

Asimismo se entregarán por quien los posea los libros y objetos de toda índole de la finada escuela vasca; la documentación, objetos, insignias y fondo de las sociedades nacionalistas y, en una palabra, todo lo perteneciente a esas sociedades o con ellas relacionadas.

En ciertas regiones de las provincias vascongadas y en nuestra querida Navarra se usan el chistu y los correspondientes instrumentos para sus bailes. En las Vascongadas muy bien que sigan con sus patriarcales costumbres; **en Estella eso es planta exótica desconocida e importada** por los que todos sabemos. Se acabó el «Gora Euzkadi», estamos en tiempos de VIVA ESPAÑA, por consiguiente, quien los posea entregará todos esos instrumentos en el mismo plazo.

Asímismo, **se prohíbe la palabra "Agur", importada por los separatistas en lugar del "Adiós"**, genuinamente español. Con lo dicho y para quien quiera entender quede de sobra explicado el motivo de la publicación de este Bando y lo que con ello se persigue. Pasadas las 48 horas de plazo y si esta Autoridad sospechara que las cosas que se pide se entregue, no han sido entregadas por alguna persona o Entidad, se harán registros domiciliarios, aplicando a los contraventores la pena que haya lugar. VIVA NAVARRA! VIVA ESPAÑA!

Bandoan ongi antzeman liteke gaur egun oraindik ere Lizarrako jendartearen zati baten Lizarrako euskararenganako jarrera: euskara ezezaguna eta kanpoko da, ez da Lizarrakoa; separatistek (abertzaleek orain) ekarria da.

Gau-eskolen eta ikastolaren ibilbidea laburra izan bazen ere, urte haietan ereindakoaren fruituak jasoko ziren aurrerago; bertan ageri diren familien abizenak topa ditzakegu hamarkada batzuk beranduago sortuko ziren gau-eskola eta ikastola berrietan.

3.4 Berreskurapena: Lizarra Ikastolatik XXI. mendera. (1970-2012)

1960eko hamarkadan urtetan isilarazitako euskalgintza esnatzen hasi zen eta gau-eskolak martxan jarri ziren berriro. Pixka bat beranduago, hurrengo hamarkadaren hasieran Errepublikara garaiko ametsa berreskuratuko zen.

Lizarra Ikastola 1970eko urriaren 5ean ekin zion lehendabiziko ikasturteari. Ikasturte hartan 30 ikasle izan ziren eta Ana Berriozabalgoitia izan zen irakasle. Euskara irakasten bazen ere ez zen benetako murgiltze eredua ikasgai gehienak gaztelaniaz ematen zirelako. Ikusirik horrela haurrak ez zirela euskalduntzen 1973ko ikasturtean lehendabiziko murgiltze eredua izango genuen.

Gau-eskolen ikasleak, oharturik euskara erabiltzeko gune bat behar zutela, Gure Izkuntza (jatorrizko izena) elkarte sortu zuten 1978an. Elkarte honek euskararen aldeko ekimenetan oparoa izango ziren urte batzuk ezagutuko zituen.

Urteak aurrera joan ahala, eta 80ko hamarkadan, lan ardura banatu asmoz edo, AEKrekin adostu zen Lizarrako gau-eskolen ardura hartzeko. Horrekin batera Beinat Etxepare elkarte sortu zen 1982ko uztailaren 21ean; eta hurrengo urtean bertan, 1983ko otsailaren 14an, egungo euskaltegiko lokaleko (Kale Nagusiko 40a, nahiz eta orduan 39a zen) goiko solairuak erosi ziren. Lehendabiziko Korriken garaia izan zen ere, 1980, 1981, 1983... eta hortik aurrera bi urtean behin egutegia betetzen zigun ekimenak ospatzen jarraitu da gaurdaino.

1989an beste urrats bat eman zuen Lizarrako euskalgintzak Euskara Zerbitzua eskuratu baitzuen Lizarrako Udalean. Hurrengo urtean euskararentzako bi aurrerapauso nabarmen eman ziren ere, batetik Nafarroa Oinez zeharo arrakastatsuari esker Ikastolak eraikin berria eraikitzeko dirua eskuratu zuen eta bestetik Batxilergoa euskaraz egiteko aukera zabaldu zen; horrela, 3 urtetatik 18 urtetara ikas-prozesua euskaraz egin ahal zen.

1995ean D eredu publikoa ezarri zen Lizarran, hemendik aurrera bi aukera izango zituzten Lizarrako eta eskualdeko gurasoek haurren eskolatzea euskaraz egiteko.

1996an LiGA sortu zen, Lizarrako Gazte Asanblada, eta urte berean Ikastola DBH eskaintzen hasi zen; lau urte beranduago, 1999an, haur eskola zabaltzean 0 urtetatik 16 urtetarako hezkuntza integrala erdietsi zuen. Lehen euskarazko murgiltze ereduarekin gertatu bezala, haur eskolaren eskaintza ere bikoiztuko zen 2004an Arieta haur eskola sortzean. Udal eskola honek hasieratik euskal lerroa eta gaztelania lerroa izango zituen.

2006an Maria de Vicuña Gazteriaren Etxea inauguratuta, Udalak kudeaturiko gazteentzako eskaintza zabaldu zen eta euskara lantzeko aukera berri bat ireki; eta 2008an Garean, Euskaldunon Elkarte sortu zen, orduetik hona ekimen asko eskainiz Lizarrako euskaldunoi.

2010ean, hamarkada hastearekin batera, AEK-k euskaltegia inauguratu zuen 9 hilabetetan zaharberritzen izan ostean eta urte berean Gareanek egoitza zabaldu zuen. Euskararentzako azken albistea EHE-n partez izan genuen, 2011n EHE-ren taldea berrosatzen hasi zen Lizarran.

3.5 Historiaren amaiera, etorkizunaren hasiera.

Lizarrako euskarak historian egin duen ibilbide honekin, arestian esan bezala, gaur egun euskarak duen errotzea ulertzeko iragana ezagutu nahi izan dugu; azken finean, ibilbide

honetan soka bat irudikatu da. Soka hau ia erabat hautsita egon da, Lizarrako eta inguruko euskal hiztun komunitatearen heriotzarekin soka moztar egon baitzen.

Heriotza horretatik baina kimu berriak azaleratu ziren eta hasiera baldar haietatik egitasmo ausart eta eraginkorrak ernatu ziren. Horrela euskara museotik atera eta haurren eta helduen ahotara eramaten hasi zen. Frankismo garaiko epealdi ilun hark ahoak estali zituen eta eskuak kateatu, bihotzek baina, taupaka jarraitu zuten eta 1960ko hamarkadan berriro kateak apurtzen hasi ziren.

Ibilbide luzea izan du euskarak Lizarran, eta orain da momentua non esan dezakegun azkenean mendetan hilik izan den euskal komunitatea berpiztu egin dugula.

4 ONARPEN INSTITUZIONALA

4.1 Araudiak

Lizarrako Merindadea bi hizkuntza eremutan banatuta dago. Batetik *eremu mistoa* eta bestetik *eremu ez-euskalduna*. *Eremu mistoan*, Lizarraz gain, Merindadeko ipar-ekialdea dago (Abartzuza, Lezaun, Deierri, Gesalatz eta Jaitz) beste guztia *eremu ez-euskalduna* izanik beraz. Honek bi ondorio nagusi dakarzkigu: batetik, D ereduak ikasteko eskubidea bermatua izatea ala ez eta bestetik nolabaiteko lege onarpena izatea ala ez.

Administrazioaren aldetik, 2012an indarrean dagoen legedia honakoa da:

- 13/1982 Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa
- 18/1986 Euskararen Foru Legea.
- 124/1994 Foru Dekretua. Lizarrako toponimia txikia onartu duena.
- 29/2003 Foru Dekretua. Administrazioan euskara arautzen duena.
- 55/2009 Foru Dekretua. Aurreko dekretuari zuzenketak egiten dizkiona.

Hemen ez dugu legedia honen gaineko azterketarik egingo, nahikoa da esatearekin euskarari mugak jartzen dizkiola baina aldi berean Udalaren borondatearen menpe uzten duela hein batean hizkuntza-politika.

Araudiari helduz, Estellerrian ez dago Euskararen Ordenantzarik Udaletan. Jarraian ikusi ahalko ditugu Nafarroako *eremu mistoan* onartu diren hainbat Ordenantza (herririk handienetan). Ohar moduan, batzuetan aldea egon daiteke Udalbatzak arautegia onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ofizialdu bitartean; aldea handia denean zergatia azaldu dugu.

19. taula: Udal legegintzaldiak eta Euskararen Ordenantzak

1997-2003	2003-2007	2007-2011	2011-2015
Iruñea (1997) Burlata (1997) Antsoain (2000) Barañain (2000) Agoitz (2002)	Uharte (2004) Berriobeiti (2005) Iruñea (2005)*	Berriozar (2008) Zizur Nagusia (2008) Orkoien (2009) Agoitz (2009)** Gares (2010) Atarrabia (2011)	Eguesibar (2012)

*Iruñean, UPN-k 2005ean Euskararen Ordenantza aldatu zuen.

**Agoitzen, udalbatzak 2002an onartu bazuen ere, 2009an sartu zen indarrean.

Udalerri hauek, bi salbuespenekin, *eremu mistoan* kokatuta dauden herririk handienak dira. 2.000 biztanletik gorako herri guztien artean, hau da, 15en artean, bitan ez dago 2012an euskararen ordenantzarik. Arangurenen (2010ean sartu zen *eremu mistoan*) eta Lizarran.

Ikus ditzagun orain Nafarroako Euskara Zerbitzuen sorrera urtea (Iruñea salbu, berau 1984an sortu zen). Taulan ikusi ahal denez, Lizarra euskara zerbitzua lortu zutenen artean lehenetarikoa izan zen.

20. taula: Euskara Zerbitzuak Nafarroan. ^{xxxix}

Urtea	Tokia
1989	Agoitz-Aezkoa, Antsoain, Atarrabia, Bortziriak, Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, Lizarra , Malerreka, Sakana, eta Uharte.
1990	Auritz-Eroibar-Luzaide-Orreaga, Barañain, eta Burlata.
1991	Baztan, Esteribar (1991ean beste udalekin batera eta 2009an zerbitzu propioa), Orkoien-Oltza Zendea-Etxauri-Bidaurreta, eta Zizur Nagusia.
1992	Gares
1995	Aranguren, beste udalekin batera eta 2004tik zerbitzu propioarekin.
1996	Berriozar
1997	Zaraitzu-Erronkari
2004	Tafalla
2005	Irantzu (Abartzuza, Gesalatz, Lezaun, Oteiza, Jaitz, Villatuerta eta Deierri)
2008	Berriobeiti

Taula hau, Euskararen Ordenantzen onartzearekin lotuko bagenu, aldea nabaria da. Lizarra, Euskara Zerbitzuen sorreran lehenetarikoa izan bazen, Ordenantza lortzeko gaitasunean azkenetarikoa da. Ezin aipatu gabe utzi 2012an Irantzuko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua desagerrarazi dutela.

4.2 Hizkuntza politika

4.2.1 Hizkuntza Politikaren Euskal Herriko neurketa^{xi}

Kontseiluak 2006 eta 2010ean Euskal Herri osoko 66 udalerritan hizkuntza-politika neurtu eta horrekin udalerriri sailkatu zituen. Lehenik eta behin, tauletara jo aurretik, zutabeen esanahia azalduko dugu.

STATUSA: udalerrri bateko hizkuntza-statusa kalkulatzeko ondoko atalak hartu dira kontutan, beti ere udalaren ardura behatuz; edo zuzenago, hizkuntza-politika eta haren ondorioak:

-Galdera orokorrak: Ordenantza, plan orokorra, aurrekontua, euskara zerbitzua.	
-Hizkuntza paisaia	-Udalaren komunikazioa
-Udal langileak	-Beste zerbitzuak, azpikontratak
-Udalaren komunikazioa	-Udalaren kultur ekintzak
-Kirola eta aisia	-Hezkuntza 0-3 urte
-Euskalgintza	-Merkataritza eta lan mundua

EZAGUTZA: 2001eko erroldaren arabera, dagokion herriaren euskara ezagutza. Erroldan bi euskararen ezagutza mota zehazten dira, alde batetik euskaraz zer edo zer dakitenak eta bestetik euskaraz hitz egiten ongi moldatzen direnak. Horrela, bi kopuruen baturarekin

EZAGUTZA aldagaia osatzen da. Lizarraren kasuan: Euskaldunak %10,8, la euskaldunak %10,5
EZAGUTZA beraz %21,3.

S(T): Statusaren neurketaren arabera eginiko herrien arteko sailkapena. Zenbat eta gorago egon are eta Status hobea du euskarak udalerrian. Irudikatzeko garaian, Lizarraren antzeko lege estaldurapean dauden udalerrak aukeratu dira azterlan honetarako (Nafarroako *eremu mistoa* eta *ez-euskalduna*). Bertan agertuko zaizkigu Iruñerriko sei herririk handienak, Agoitz, Lizarra eta Gares eta bestetik *eremu ez-euskalduneko* Tafalla, Zangoza eta Tuterak.

Ez: Ezagutzaren araberako sailkapena, soilik Nafarroako *eremu misto* eta *ez-euskalduneko* herriei (neurketa egin denetan jakina). Hamabi herri direnez, batetik hamabirako sailkapena dugu.

S: estatusaren sailkapena beste behin ere, baina Nafarroako *eremu misto* eta *ez-euskalduneko* herriei soilik (neurketa egin denetan jakina).

S/Ez: **S** eta **Ez** sailkapenen arteko aldea.

21. taula: 2006an KONTSEILUAK eginiko udalen hizkuntza-politika neurketa eta sailkapena

S(T)	HERRIA	STATUSA	EZAGUTZA	Ez	S	S/Ez
39	Barañain	4,0392	%20,3	6	1	+5
43	Burlata	3,4023	%23,5	4	2	+2
46	Atarrabia	3,2353	%27,4	2	3	-1
47	Berriozar	2,9721	%19,4	7	4	+3
49	Zizur Nag	2,4489	%25,4	3	5	-2
50	Agoitz	2,1671	%28,6	1	6	-5
51	Iruñea	2,1503	%19,3	8	7	+1
54	Tafalla	1,7912	%16,5	9	8	+1
57	Lizarra	1,5881	%21,3	5	9	-4
58	Gares	1,4008	%14,7	10	10	+0
60	Zangoza	0,7095	%8,99	11	11	+0
66	Tutera	0	%3,5	12	12	+0

22. taula: 2010ean KONTSEILUAK eginiko udalen hizkuntza-politika neurketa eta sailkapena

S(T)	HERRIA	STATUSA	EZAGUTZA	Ez	S	S/Ez
37(+10)	Berriozar	4,4851 (+1,513)	%19,4	7	1	+6
42 (-3)	Barañain	3,927 (-0,1122)	%20,3	6	2	+4
44(+14)	Gares	3,6817 (+2,0015)	%14,7	10	3	+7
48 (-5)	Burlata	3,2256 (-0,1767)	%23,5	4	4	+0
49 (-3)	Atarrabia	3,1827 (-0,0526)	%27,4	2	5	-3
50 (-1)	Zizur Nag	3,0063 (+0,5574)	%25,4	3	6	-3
51 (-1)	Agoitz	2,5629 (+0,3958)	%28,6	1	7	-6
55 (-4)	Iruñea	1,9561 (-0,1942)	%19,3	8	8	+0
57 (-3)	Tafalla	1,817 (+0,0258)	%16,5	9	9	+0
62 (-5)	Lizarra	1,3273 (-0,2608)	%21,3	5	10	-5
64 (-2)	Zangoza	0,3952 (-0,3143)	%8,99	11	11	+0
66 (+0)	Tutera	0	%3,5	12	12	+0

Hauek dira, Lizarrari begira, bi taula hauetatik atera ahal ditugun bi ondorio nagusiak:

-Euskararen estatusa hobetu beharrean okertu egin dela; Nafarroako udalerrien azpisailkapenean (-1 postu), Euskal Herriko sailkapenean (-5 postu) eta baita ebaluazioan ere (-0,3143).

-Lizarra, *eremu misto/ez-euskalduneko* azpisailkapenean *Ezagutzaren* arabera 5. postuan badugu ere euskararen estatusaren arabera 10. dugu. Argudia genezake, eta hamabi herri horiekin alderatuz, bere errealitate soziolinguistikoak ahalbidetzen dion *estatusaren* azpitik dagoela, bost postu beherago hain zuzen ere. Are gehiago, *eremu mistoan* ere ez dagoen udalerri batek, Tafallak, emaitza hobeak lortu ditu.

4.2.2 Udaleko langileen euskara ezagutza^{xli}

Udalean 79 lagunek egiten dute lan, haietako 26 Udaletxeko bulegoetan, 25 Udaltzaingoan (Udaletxean bertan du egoitza), 12 Arieta haur eskolan (Udaletxetik urrun), 11 kalean zerbitzu ematen eta 3 Gaztelekuan (Udaletxetik urrun).

23. taula: Udaleko langileen euskara ezagutza

LAN EREMUAK	Zenbat?	Euskaldunak?
Udaltzainak	25	1 (ikas prozesuan)
Goiko bulegoetan	12	3, beste 2-k zerbait dakite
Beheko bulegoetan*	5	1 (zerbait daki)
Beheko bulegoetan**	9	0
Zerbitzuak (kalean): lorazainak eta mantenua	11	behin behinekoetakoren bat
Gazteriaren Etxean	3	2
Arieta haur-eskolan	12	6
Remontibal-eskolan atezainak	2	0

*Sarrera nagusian

**Atzeko partean

Euskararen ezagutza aldetik, hutsuneak nabariak dira Udaltzaingoan (%96 erdalduna, %4a euskara ikasten), Udaletxeko beheko solairuan (%93 erdalduna, %7 euskaraz zerbait daki) eta Remontibal eskola publikoko atezainetan (%100 erdalduna, %0 euskalduna). Egoera hobe da Udaletxeko goiko solairuan, bertan %25 da euskalduna eta %17-k zerbait badaki, Arieta haur eskolan (%50 euskalduna) eta Gaztelekuan (%67 euskalduna).

Egun dauden langile gehienei ez zaie euskara ezagutza beharrezkotzat ezarri lanpostua eskuratzeko (salbuespena lirakeke Euskara Teknikaria eta Arieta haur-eskolako hainbat hezitzaile). Hala ere, hizkuntza eskakizuna egin zaie hainbat lanposturi (lehiaketa bidezko oposizioetan %5 normalean). Hizkuntza kudeaketa horren ondorio da, adibidez, Udaletxeko beheko solairuaren egoera (hiritarrekin harreman gehien eskatzen duten zerbitzuak) eta Udaltzaingoaren egoera.

4.2.3 Zinegotzien euskara ezagutza

24. taula: Zinegotzien euskara ezagutza

	1991-1995	1995-1999	1999-2003	2003-2007	2007-2011	2011-2015
UPN	6	7	8	7	8	7
PSN	6	6	4	4	3	2
HB	2	1	-	/*/	/*/	/*/
EAE-ANV	-	-	-	-	1	/*/
CUE-LKB	2	2	-	1	-	0
EH	-	-	3	/*/	/*/	/*/
EA	1	1	-	1	-	-
EAJ	-	0	-	1	-	-
EA-EAJ	-	-	1	-	-	-
Nabai	-	-	-	-	3	2
Bildu	-	-	-	-	-	4
CDN	-	-	0	1	1	0
IU	-	-	1	2	1	1
PP	-	-	-	-	-	1
euskaldunak	0	1 PSN 1 HB 0.5 CUE-LKB	2 EH	1 PSN 1 CUE-LKB	0	3 Bildu

**euskaldunak: zinegotzien euskara ezagutza kalkulatzeko legegintzaldi barruko zinegotzi aldaketak kontutan hartu dira. Adibidez, 1995-1999 legegintzaldian CUE-LKBen aukeratutako zinegotziak erdaldunak ziren, baina legegintzaldi erdian ordezeko euskaldun bat sartu zen, hortaz 0.5 "zinegotzi euskaldun" bezala zenbatu da. 1999-2003 legegintzaldian berriz, PSN-n zinegotzi euskaldun bat hautatu zen baina 1999ko irailean bertan utzi zuen, hortaz PSN-k zinegotzi euskaldunik izan ez zuela jarri da. Bestetik, laranjaz, alkatetza eskuratu zuen alderdia.*

Lizarrako Udaleko azken sei legegintzaldietan 9,5 "zinegotzi" euskaldun izan dira. Guztira 102 zinegotzi aukeratu direnez, aukeratutako guztien %9,3 euskalduna izan da. Bestetik, UPN-k hiru alkatetza eta PSN-k beste hiru eskuratu dituzte eta ez da alkate euskaldunik izan.


Alderdi politikoei begiratuta, alderdi abertzale eta "vasquistek" (HB, EAE-ANV, CUE-LKB, EH, EA, EAJ, EA-EAJ, Nabai eta Bildu) 26 zinegotzi lortu dituzte, hauetatik 7,5 euskaldun izan dira. Hau da, alderdi abertzaleen "zinegotzien" %29a euskalduna izan da.

PSNk 25 zinegotzi lortu ditu, eta euskaldunak 2 izan dira. Hortaz, PSNren bitartez hautatuak izan diren zinegotzien %8 euskalduna izan da. Beste alderdiek ez dute zinegotzi euskaldunik izan azken sei legegintzaldietan (UPN, CDN, IU eta PP).

4.2.4 Euskara Zerbitzuaren aurrekontua.

Lizarrako Euskara Zerbitzua beste hainbat bezala 1989an jarri zen martxan, atal honetan 1999tik 2012ra bitarte zerbitzuak izan duen diru inbertsioaren garapena ikusiko dugu. Lehenik zerbitzua bera mantentzearen kostua eta horrek kudeatzen dituen diru-sailak alderatuko ditugu eta ondotik Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen diru-sailak plazaratuko ditugu. Bukatzeko, aurrekontu aldetik ere, Lizarrako Euskara Zerbitzua eta antzeko ezaugarriak dituzten beste 11 Euskara Zerbitzu erkatuko ditugu.

8. grafikoa: Lizarra Euskara Zerbitzuaren aurrekontua.




Zerbitzua: teknikariaren soldata, gizarte segurantz eta kilometraia dira.

Jarduerak: euskara zerbitzuak kudeatzen duen diru-saila.

2012. urtean: Alkatetzak aurkeztutako aurrekontuak, urtean zehar molda daitezke.

Ohartuko garenez, 2007an ekin zitzaion legegintzaldiarekin (zinegotzi euskaldunik gabekoa) batera beherako joera hartu zuen aurrekontuak. Ikus dezagun orain Euskara Zerbitzuak kudeatzen duen dirua.

9. grafikoa: Lizarra Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen Diru-sailen garapena.




*2004. urtean Euskara Jarduerak eta Udalekuak diru-sailak banatu egin ziren.

**2012. urtean: Alkatetzak aurkeztutako aurrekontuak, urtean zehar molda daitezke.


Orain, Lizarrako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aurrekontua Nafarroako beste hainbat Euskara Zerbitzuekin erkatuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin ikusiko dugu zein diren *eremu mistoko* (+Tafalla) 12 Euskara Zerbitzuen aurrekontuak.

10. grafikoa: Nafarroako Euskara Zerbitzuen aurrekontuak



Bertan ikus dezakegunez, Lizarra, Tafalla eta Garesen aurretik legoke Euskara Zerbitzuaren bitartez inbertitzen den diruan. Ikus dezagun baina ea zer gertatzen den udalerrri horietako biztanleekiko aztertzen badugu.

11. grafikoa: Biztanleko hainbat Euskara Zerbitzuetan inbertitzen den dirua



*Orkoien: Orkoien-Oltza-Etxauri-Bidaurreta

Azken grafiko honetan ikus daitezke Tafallako eta *eremu mistoko* 11 udalerritako Euskara Zerbitzuen aurrekontuak, zerbitzu ematen dieten biztanleriarekiko. Hau da, 2010ean biztanleko € gutxien inbertitu duten udalerrak honako hauek dira, hurrenez hurren: Lizarra (5,08€ biztanleko), Tafalla (5,59€), Barañain (5,94€), Atarrabia (9,85€), Zizur Nagusia (9,91€), Antsoain (12,88€) ...

Udalaren ahalegin ekonomikoa ezin da neurtu bakarrik Euskara Zerbitzuaren diru-sailen tamainaren arabera; ikusi beharko litzateke adibidez Kultura Sailak, Berdintasun Sailak, Kirol Sailak eta abar. zer nolako jokabidea duten bai haien kudeaketan baita haien eskaintzan ere. Hala eta guztiz ere, ez du ematen alor horretan ere hobe dagoenik Lizarrako Udala.

4.3 Ondorioak

Udala nahiko egoera kaxkarrean daukagu, horren ondorio Kontseiluak eginiko bi neurraldietan erdietsitako emaitzak eta Lizarran euskarak duen estatus tamalgarria. Horri lotuta agertzen dira politikoki euskararen aldekoek izan duten eragin txikia.

Euskaltzaleen eragin eskasaren sintoma ditugu Euskararen Ordenantza ez izatea (*eremu mistoko* udalerrri gehienetan izanik), Euskara Zerbitzuak kudeatzen duen diru-sail eskasa (biztanleko euro gutxien inbertitzen duen Euskara Zerbitzua da) eta Udaleko langileen artean dagoen euskara-gaitasun baxua (Udaletxean, Udaltzainak barne, %6 euskaldun eta %6-k zerbait daki; bulegoak bakarrik kontutan hartuta, %12 eta %12, Lizarran gaur egun dagoen euskara ezagutzaren neurriaren azpitik ere).

Honekin guztiarekin loturik dugu Udaleko lidergotzaren egoera, azken sei legegintzaldietan ez da alkate euskaldunik izan eta zinegotzien artean %9,3 besterik ez da euskalduna izan.

Bai sentsibilizatutako alderdi politikoek, bai euskara zerbitzuak eta baita euskaingintzak ere zeregin garrantzitsua dute hemen.

5 IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOAK

5.1 Erroldaren gainean eginiko azterketak (ezagutza)^{xlii}

Erroldak bost urtean behin burutu dira eta euskararen inguruko galderak 1986, 1991, 1996^{xliii} eta 2001eko^{xliiv} erroldetan egin. 2006an ez zuten euskararen inguruko galderarik egin eta ondorioz ez dugu daturik baina 2011n egin den erroldan bai galdetu dela. Hortaz, azken hamarkadan euskararen ezagutzak izandako bilakaera ezagutu ahalko dugu. Datu horiek baina, oraindik orain ez ditugu eskuartean.

Euskara ezagutza:

Euskaldunak: adierazten dutenak euskaraz ongi hitz egiten dutela.

Euskalduntasuna: euskararen inguruko ezagutza izatea (hau maila altukoa izan ala ez)

25. taula: Lizarra, euskara ezagutza

	1986	1991	1996	2001	15-25 urte	2-15 urte
Biztanleria	12.935	12.453	12.358	12.445	1.639	1.427
Euskalduntasuna	%16,7	%15,5	%16,5	%21,3	%30,8	%46,7
Euskaldunak	%11,0	%7,7	%8,7	%10,8	%23,1	%30,3

Lehen erroldan, 1986an hain zuzen ere, datuak okerrak direla ematen du. Urte hartan Lizarran gutxiengo euskaldun bat bazegoen ere, %11 baino gutxiago izango zela pentsatzekoa da. Adi, 15 urtetan Lizarran eman den euskalduntzea agerikoa izanik ere 2001ean oraindik 1986ko datuetara ezin iritsi zebilen!

Baliteke datu oker horren zergatia izatea urte hartan bertan eztabaidatu zela Nafarroako Euskararen Foru Legea; horrela, erantzunak faltsutuz, Foru Legean eztabaidatzen ari ziren hizkuntza-eremuen afera (*eremu euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna*) baldintzatu nahi izatea.

Hemendik aurrera, 1986ko datuak ez dira kontutan hartuko ez baitirudite zuzenak.

5.1.1 Trebetasunak

26. taula: Ongi menderatzen diren trebetasunak (pertsonak)

Trebetasunak	1991	1996	2001	Irabazia
Ulertu	-	1.173 (%9,5)	1.450 (%11,6)	+277
Hitz egin	959 (%7,7)	1.076 (%8,7)	1.350 (%10,8)	+274 (+117)
Irakurri	-	1.005 (%8,1)	1.314 (%10,6)	+309
Idatzi	-	945 (%7,7)	1.249 (%10)	+304

Bestalde, 1996an, trebetasunetan ongi moldatzen direnen artean, oro har emakume gehiago daude gizonak baino. Euskaraz ongi moldatzen diren emakumeak %53.6 eta %54.5 bitarte dira, trebetasunaren arabera. 2001ean alde hori zertxobait gutxitu da eta lau trebetasunetan %53 dira emakumeak.


Euskarazko murgiltze eredu publikoa 1995ean ezarri zen, honek azal lezake euskalduntzeak abiadura handitu izana 1996/2001 bosturtekoan. Euskaldun kopuruaren handitzean, 1991/1996 bosturtekoaren halako 2.34 izan da 1996/2001 bosturtea. Hau da, euskalduntze abiadura bikoiztu baino gehiago egin dela. Beste modu batera esanda, batzaz beste, 1991/1996 bitartean, urteko 23,4 euskaldun gehiago lortu dira Lizarran; 1996/2001ean aldiz 54,8 urteko.

27. taula: Zailtasunekin menderatzen diren trebetasunak

Trebetasunak	1996 (12.358)	2001 (12.445)	Irabazia
Ulertu	868 (%7)	1.197 (%9,6)	+329
Hitz egin	766 (%6,2)	1.275 (%10,2)	+509
Irakurri	596 (%4,8)	923 (%7,4)	+327
Idatzi	538 (%4,4)	857 (%6,9)	+319

Kasu honetan, bitxia da ikustea erdipurdika hitz egiten duen jendea erdipurdika ulertzen duena baino gehiago dela. Pentsatzekoa da ongi ulertzen duen jende askok uste izana ez duela ongi hitz egiten.

12. grafikoa: Euskaldunak eta la euskaldunak (zailtasunez hitz egiten dutenak) adin tarteka Lizarran (2001)




Ikastolako lehen euskarazko murgiltze eredia 1973/1974 ikasturtean hasi zen, horrek esan nahi du 1970eko haurrak izan zirela lehenak euskarazko murgiltze eredian hezten. Haur horiek 31 urte izango dute 2001eko erroldan. Hain zuzen ere, 30-34 adin bitartean ematen da aurreneko saltoa euskaldunen kopuruan (bosturteko, 52-57 euskaldun izatetik 86 izatera); eta hortik aurrera gorakada nabarmena (bosturteko, 82 izatetik 174-212 euskaldun izatera).

Remontibaleko D eredu publikoa 1995ean hasi zenez, haur horiek 1992an jaio ziren, hau da, 9 urte izango zituztela 2001ean helduenek. Beraz 5-9 urte bosturtekoan nabaritzen hasiko da.

Orain ikus dezagun taula bera baina biztanleria osoarekiko, biztanleria kopuru osoaren testuinguruan ikusi ahal izateko (euskalduna zein erdalduna). Bertan, ehunekoa adierazten du biztanleria bosturteko horretatik, zenbat diren euskaldun. 20-24 adin tartean adibidez, Lizarrako %20,3 da euskalduna.

13. grafikoa: Euskaldunen eta ia euskaldunen ehunekoa Lizarrako biztanleria osoarekiko. (2001)



5.1.2 Euskaldunen estimazioa. 2006 eta 2011

2006 eta 2011 urteetako Lizarrako euskaldun kopurua estimatzeko bi prospekzio egin dira *Begira2000* tresna erabiliz. Datuen jatorria 1991, 1996 eta 2001eko erroldak izan dira. Bi urtetik aurrerako biztanleria kontutan hartu dugu adin horren azpitik hizkuntza gaitasunik ez omen dutelako (hala zioen erroldako oharrak).

Prospekzioetan lehena, 1991 eta 2001eko errolden arteko euskaldunen kopuruaren handitzea erabiliz burutu da eta bigarrena 1996 eta 2001eko urteen arteko aldea erabiliz. Lehen estimazioak 1.900 euskaldun eman zituen 2011n eta bigarrenak 2.125; beraz estimatzekoa da hor bitartean izan ahal dela euskaldunen kopurua Lizarran.

Prospekzioak 2011ra begira egin dira hiru arrazoi direla eta. Batetik ez dugu 2001etik aurrerako euskararen ezagutzaren datu fidagarririk eta, hortaz, urrunago joateak errore-tartea handituko luke; bigarrenik 2011ko erroldan berriro galdetu egin da euskara ezagutzengatik, horrela iragarpenaren fidagarritasuna kontrastatu ahalko dugu emaitzak kaleratzean; eta azkenik, 2001etik 2011ra Lizarraren biztanlerian faktore berriak, etorkinena, baldintzatu egiten du erabat estimazioa (47 etorkin atzeritar izatetik 1.547 etorkin atzeritar izatera pasa da).

Honekin batera, azterlan honetan Lizarrako azken 10 urteotako 3 urtetako haurren eskolatzeko kopuruak jasota daude, hizkuntza-ereduka antolatuta (**5.4 Azken hamarkadako 3 urtetako haurren eskola-matrikulazioak ereduak banatuta** atala). Eta datuak ez dira onak. D ereduaren matrikulazioaren ehunekoa asko jaitsi da hamarkadan zehar eta horrek, euskalduntzean ezinbesteko aldagaia izanik Lizarran, datuak baldintzatuko ditu. Hala ere, matrikulazio datuak jaitsi arren, 1991-2001 epealdikoak baino hobeak izango direla pentsatzekoa da, baina zalantzarik da 1996-2001ekoak baino hobeak izango diren.

28. taula: Ezagutzaren estimazioa 2011rako

Urtea	Biztanleria>2urte	Etorkinak	Euskald1*	Euskald2*
1991	12.453	X	959 - %7,7	959 - %7,7
1996	12.358	X	1.076 - %8,7	1.076 - %8,7
2001	12.445	47	1.350 - %10,8	1.350 - %10,8
2006	13.621	1.334	1.694 - %12,4	1.602 - %11,8
2011	13.984	1.547	2.125 - %15,2	1.900 - %13,6

*Euskald1: Lizarrako euskaldun kopurua, estimazio baikorra eginda.

*Euskald2: Lizarrako euskaldun kopurua, estimazio ezkorra eginda.

Taulako datuek 2011ko euskaldunen kopurua mugatzen dute goitik eta behetik. Estimazio ezkorra eginda, 2011n 1.900 euskaldun leudeke eta baikorra erabilita 2.125. Lizarrak izan duen biztanleria hazkundea emigrazio erdaldunaren bitartez lortu dela estimatu dugu (etorkinen erdia inguru latinoamerikar jatorrikoak dira gainera).

Hortaz, eta biztanleria erreala ezagututa, Lizarrako euskaldunen ehunekoa 2011n %13,6 eta %15,2 bitartean dagoela ematen du, batz bestekoa eginez, %14,4. 2006ko datuei erreparatuta, estimazio baikorraren arabera %12,4 genuen eta ezkorren arabera %11,8; batz bestekoa beraz %12,1.

5.1.3 Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza

Bai ama eta bai etxeko hizkuntza ezagutzeko, 2001eko erroldaren datuak besterik ez ditugu. Ama hizkuntza zein den erabakitzeke, hiru urte arte ikasitako lehen hizkuntza zein izan den aztertzen da.


29. taula: Ama- eta Etxeko- hizkuntzak 2001ean

Ama hizkuntza	2001	2001	Etxeko hizkuntza
Euskara	242 (%1,9)	221 (%1,8)	Euskara
Gaztelania	11.692 (%93,9)	11.578 (%93)	Gaztelania
Biak	352 (%2,8)	541 (%4,3)	Biak
Beste bat	159 (%1,3)	105 (%0,8)	Beste bat

Euskararen berezko transmisioa, hau da, eskolatzerik gabekoa, oso modu apalean ematen zen oraindik Lizarran 2001eko erroldan. Euskara edo euskara eta gaztelania ama hizkuntzatzat dute biztanleen %4,7. Etxeko hizkuntzan berriz, datuak zertxobait hobeak badira ere ez dira gehiegi aldatzen: %6,1. Euskara ezagutzaren aldetik, gogoratzen badugu, %10,8 dira euskaldunak Lizarran 2001ean, hortaz, euskaldunen %56,5-ek erabiltzen zuten euskara, neurri batean edo bestean, egunero etxean.

Ondoko taulan ikusi ahal dugu, adin tarteka, zein den euskaldunen artean (euskaraz ongi hitz egiten dutenak) hizkuntzaren transmisio naturala. Ehunekotan adierazia dago, beraz, 15-19 adin tartean urdinez %14,4 agertzen bada horrek esan nahi du adin tarte horretako gazteek euskara izan dutela lehen hizkuntza, gorritz dagoen %28,7-k euskara/gaztelania eta besteek, %57k, erdara (gaztelaniaz nagusiki) izan dute ama hizkuntza.

14. grafikoa: Biztanleria euskaldunaren ezaugarria: euskaldunen lehen hizkuntzaren ehunekoa (euskara edo euskara eta gaztelania). 2001eko erroldan.



Oro har, ikus daitekeenez zaharren artean (euskaldun talderik txikienak) etxean euskara ikasitakoak dira nagusiki, 70-74 tartean %118 kopurua ematera iristen da! Baliteke txikitan euskara ikasi zuenetako baten batek euskara galdu izana. 50-54 adin tartetik aurrera erdiak baino gehiagok ikasi zuen etxean, hau da, 80 euskaldun zahar inguru ditugu adinekoen artean.

Jakinik Ikastolan 30-34 bitarteko pertsonak euskalduntzen hasi zirela (egiatan, 25-29 adin bitartean nabaritu da efektua) interesgarria litzateke ezagutzea bai euskaldun zahar horien jatorria bai euskaldun berriak non eta nola euskaldundu diren. Agerikoa den beste efektua dugu honako hau: "lehen hizkuntza euskara" bakarrik izan zutenen ehunekoak nabarmen gora egiten duela adin tarte batzuetan (adinekoen artean).

Orain, antzeko *eremu mistoko* beste zenbait udalerrirekin alderatuko dugu Lizarra 2001eko errolda erabilita. Herrien biztanleria parentesi artean dago: Lizarra (bi urtetik gorako 12.445 biztanle 2001ean), Berriozar (6.471), Burlata (16.426), Atarrabia (9.253) eta Zizur Nagusia (11.117). Eta bigarren taulan Iruñea (177.980), Barañain (20.367) eta Tafalla (9.841) ditugu.

30. taula: Etxeko hizkuntza. Lizarra, Berriozar, Burlata, Atarrabia, Zizur Nagusia.

Hizkuntza	Lizarra	Berriozar	Burlata	Atarrabia	Zizur N.
Euskara	221 (%1,8)	169 (%2,6)	375 (%2,3)	220 (%2,4)	290 (%2,6)
Gaztelania	11.578 (%93)	6.005 (%92,8)	15.157 (%92,3)	8.370 (%90,5)	10.200 (%91,8)
Biak	541 (%4,3)	161 (%2,5)	612 (%3,7)	582 (%6,3)	477 (%4,3)
Beste bat	105 (%0,8)	136 (%2,1)	282 (%1,7)	81 (%0,9)	150 (%1,3)

31. taula: Etxeko hizkuntza. Lizarra, Barañain, Iruñea, Tafalla.

Hizkuntza	Lizarra	Barañain	Iruñea	Tafalla
Euskara	221 (%1,8)	381 (%1,9)	3.949 (%2,2)	87 (%0,9)
Gaztelania	11.578 (%93)	18.966 (%93,1)	165.177 (%92,8)	9.458 (%96,1)
Biak	541 (%4,3)	677 (%3,3)	6.399 (%3,6)	172 (%1,8)
Beste bat	105 (%0,8)	343 (%1,7)	2.455 (%1,4)	124 (%1,3)

Etxeko eraginkortasun indizea = $100 * (\text{Biak} + \text{Euskara}) / \text{Euskararen ezagutza}$

32. taula: Etxean euskara erabiltzen duten euskaldunen kopuruak

Herria	Biak edo euskara	Euskara ezagutza Udalerrian	Etxeko eraginkortasun Indizea
Lizarra	%6,1	%10,8	%56,5
Berriozar	%5,1	%9,2	%55,4
Burlata	%6,0	%10,6	%56,6
Atarrabia	%8,7	%14,2	%61,3
Zizur Nagusia	%6,9	%11,6	%59,5
Barañain	%5,2	%9,9	%52,5
Iruñea	%5,8	%8,8	%65,9
Tafalla	%2,7	%5,7	%47,4

2001eko erroldako datuen gainean, taula honetan ikus dezakegu Lizarra Iruñerriaren pare dela etxeko euskara erabilpenean; hala ere lau azpitalde egin genitzake. Batetik Tafalla, %50eko etxeko eraginkortasunera iristear, ondotik %55 inguru daudenak (Lizarra, Barañain, Berriozar eta Burlata), hirugarrenik %60 inguru dabiltzanak (Atarrabia eta Zizur Nagusia) eta azkenik Iruñea. Iruñak, Tafallaren ondoren, biztanleen euskara ezagutzaren ehunekorik txikiena izan arren, %8,8, proportzioan etxean euskara gehien erabiltzen den herria dugu: %65,9. Zergatia? kontzientziazioa, euskaldun sarea trinkoagoa izatea ... interesgarria litzateke berau ikertzea.

5.1.4 Estellerria eta Lizarra

Aurreko atalean, Lizarra antzeko beste zenbait udalerrirekin erkatu baldin badugu, oraingo honetan Estellerria eskualdearen baitan ikusiko dugu. Ohartu Estellerria eskualdea Lizarrarekiko ingurune hurbilena dela, eta ez Merindade osoa (Ebro ondoko Lerin, Andosilla, Sartaguda, Lodosa, Mendabia, San Adrian, Carcar eta Azagra kanpo geratzen dira; Vinaldea ordea barnean); 1. Mapan (7. orrialdean), *Ekialdeko eta Mendebaldeko Estellerriak* osatua.

Lehenik eta behin ikus dezagun zer nolako euskara ezagutza ehunekoak dituzten biek ala biek. Bai kopuru absolutuan urtez urte, eta baita gazteen artean ere (25 urtetik beherakoak eta 15 urtetik beherakoak, bi datu horiek 2001eko erroldakoak).

33. taula: Estellerria, euskara ezagutza. Euskaldunen ehunekoak.

	1991	1996	2001	<25	<15
Lizarra	%7,7	%8,7	%10,8	%26,4	%30,3
Estellerria	%4	%5	%7,6	%19,6	%24,1

Aurreko taulako ehunekoei kasu eginez, orain ikus dezagun horiek zenbat biztanle euskaldun diren.

34. taula: Estellerria, euskara ezagutza. Euskaldunak.

	1991	1996	2001	<25	<15
Lizarra	958	1.076	1.350	809	432
Estellerria	1.367	1.735	2.610	1.448	830

Amaitzeko, konparatuko ditugu alde batetik, Lizarrako biztanleriak zer pisu erlatibo duen Estellerrian; eta bestaldetik, Lizarrako euskaldunek zer pisu duten Estellerriko euskaldunen artean.

35. taula: Lizarra Estellerriaren zenbat da? Lizarrako euskaldunak Estellerri osoko zenbat dira?

	1991	1996	2001	<25	<15
Lizarratarrak	%36,4	%35,6	%36,2	%41,5	%41,4
Lizarrako euskaldunak	%70	%62	%51,8	%55,9	%52

Lizarratarrak: Lizarrako biztanleak/Estellerriko biztanleak

Lizarrako euskaldunak: Lizarrako euskaldunak/Estellerriko euskaldunak

Hemen ikus liteke Lizarrak pisu erlatibo handia duela Estellerrian (Vinaldea barne), eskualdeko biztanleria osoaren %36 inguru da urtez urte. Horretaz gain, biztanleria gazteagoa


du, %41,5. Hau da, dagokion kopurua baino altuagoa da Lizarrak duen biztanleria gaztea: Estellerriko biztanleriaren %36 Lizarran bizi da, baina Estellerriko gaztediaren %41,5 bizi da Lizarran.

Aldi berean, 2001ean Lizarrako euskaldunak oraindik orain Estellerriko euskaldunen erdia baino gehiago badira ere, Lizarrak hamar urtean ia %20 galdu du Estellerriarekiko. 90eko hamarkadaren hasieran Estellerriko 10 euskaldunetik 7 Lizarran bizi zen, pentsatzekoa da, joera ikusita, 80ko hamarkadan aldea oraindik ere handiagoa izango zela baina daturik ez dugunez ezin ziurtatu (1986ko erroldak, lehen esan bezala, ez zuen hizkuntza errealitatea islatzen). Hala ere, hamarkadaren bukaerarako aldea zeharo txikitu da, eta nahiz eta Lizarrak berez duen pisu erlatiboarekiko euskaldun kopuru handiagoa duen (Lizarrako biztanleak Estellerriarekiko %36,2, Lizarrako biztanle euskaldunak Estellerriarekiko %51,8) poliki-poliki orekatzen ari da.

Beraz, esan genezake, 1990eko hamarkada euskara Estellerriko eskualdera zabaltzen zela eta 2011ko erroldaren datuen esperoan, litekeena da Lizarra eta Estellerriaren arteko orekatzea jarraitu izana, nahiz eta era motelagoan izan.

Euskara zabaltzen izanaren erantzule izan liteke Lizarrako eta Garesko eskoletan D eredu publikoa ezarri izana, eta honekin batera herrietako haurrek autobus publikoa erabiltzeko aukera gehiago izatea. Interesgarria izanzen zen, eskola publikoak zerbitzu ematen dien herrien joera demolingüistikoa ikertzea. Horrekin batera, Lizarran euskarazko murgiltze ereduaz hezi eta hazitako lehen gazteak 18 urte betetzen hasiko ziren 90eko hamarkadaren lehen erditik aurrera. Ikasle hauek hezkuntza eredu berriaren arrakastaren erakusgarri izango ziren; honek, bide batez, identitatezko-emoziozko erakargitasunari pragmatismoa gehituko zion.

9. Mapa: Estellerria Nafarroan



5.2 Kale Neurketak (erabilera)^{xlv}

Euskararen erabilaren inguruan aurreko atalean hitz egin badugu ere (euskaldunen etxeko hizkuntza), oraingo honetan kaleko hizkuntzaz arituko gara. Horretarako Soziolinguistika Klusterrak lau pabost urtean behin egiten dituen neurraldietara joko dugu. Berauek 1987, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011an egin dira. 1987ko neurraldian ez dago Estellerriko daturik beraz albo batera uztea erabaki dugu; bestalde, 2011ko ikerketan Lizarrako eta Estellerriko datuak bakarrik eskuratu ahal izan ditugu ikerketa argitaratu gabe zegoelako.

Kale neurketen emaitzak adierazgarriak dira lurralde zein Euskal Herri mailan, baina ez udalerri mailan, jasotako elkarrizketa kopurua ez baita nahikoa; eta Lizarra ez da salbuespen. Soziolinguistika Klusterrean aipatu diguten bezala “kontuan izan udalerriko (Lizarrako) datuak orientatiboak besterik ez direla, 6 orduko neurketa ez baita nahikoa udalerri mailan datu sendoak izateko (...) gutxienez 12 orduko neurketak egiten ditugu”. Bestetik, neurraldi bateko ehuneko zehatza baino esanguratsuagoa izango zaigu neurraldien arteko alderaketak eta joerak ikustea. Beraz, erabilaren inguruan dugun neurketa bakarra denez, eta jakinik dituen mugak, honen gainean hainbat hausnarketa egiten saiatuko gara.

Kale neurketan, jende-taldearen tipologiaren arabera taldekatzen da jendea. Haurrak (2-14 urte), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta adinekoak (65etik gorakoak); jarraitzen den metodologia erraza da azaltzen ere. Hiru egunetan, ibilbide jakin bat eginez, kaleko jendearen elkarrizketak entzuten dira eta erabiltzen duten hizkuntza jaso. Hizkuntzarekin batera elkarrizketan parte hartzen duten pertsonen adin-tartea eta sexua jasotzen da.

Hona hemen, 1997tik 2011ra Lizarran eman diren neurraldien emaitzak; 1993an ez zen Lizarrako daturik eman. Ohartu *Erabilera*-k adierazten duela euskararen erabilera orokorra, adin-tarte guztiak kontutan harturik.

36. taula: Kale Neurketak adinaren arabera. Lizarra.

	1997	2001	2006	2011
Erabilera*	%3,5	%2,8	%5,1	%5,7
Haurrak	%7,91	%2,44	%7,64	%9,64
Gazteak	%3,75	%9,63	%3,52	%4,07
Helduak	%1,67	%1,61	%3,43	%5,46
Adinekoak	%0,0	%0,0	%5,56	%1,53
Beste H.**	-	-	%1,2	%2,65

*Euskararen kale erabilera osotara Lizarran (elkarrizketa guztien artean)

**Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzen erabilera (elkarrizketa guztien artean)

Lagin-akats orokorra honakoa izan da Lizarrarako (%95eko konfiantza-mailarekin): 1997an %1,0, 2001ean %1,04, 2006an %1,14 eta 2011n %1,05. Azken lau neurraldietan euskararen erabilpen mailak bi fase ezagutu dituela ematen du: lehen bietan %3 inguruan zen eta azken bi neurraldietan %5 ingurura hazi egin da. Adin tarteka aztertzen badugu haurren erabilera %7,5 eta %9 bitartean mantentzen dela ematen du (2001eko salbuespenarekin, baliteke neurraldi

hartan lagin txikia hartu izana adin tarte horretan?). Gazteen artean, berriz, egonkortutako ehunekoa %3 eta %4 bitartea dela ematen du, beste behin ere 2001eko salbuespenarekin.

Amaitzeko, oso interesgarria da heldu eta adinekoen garapena; urtez urte bien baturak: %1,67, %1,61, %9 eta %7. Hemen baliteke aldaketa kuantitatiboa eman izana. 2001a bitarte heldu eta adinekoen erabilpena %2tik behera zegoen, azken bi neurraldietan ordea %7 eta %9 bitartean topa dezakegu. Helduen kontzientziazioak, heldu euskaldun gehiago izateak, euskal komunitatearen trinkotzeak eta helduek haurrak izateak helduen erabilpenean eragin duela ematen du.

37. taula: 2006ko datuak. Lizarraren antzeko egoera soziolinguistikoko herriak.^{xlvi}

	Iruñea	Barañain	Burlata	Zizur N.	Atarrabia	Berriozar	Tafalla	Lizarra
Ezagutza*	%8,8	%9,9	%10,6	%11,6	%14,2	%9,2	%5,7	%10,8
Erabilera	%2,8	%4,2	%3,5	%2,2	%2,9	%4,0	%1,7	%5,1
Haurrak	%4,3	%2,8	%5,9	%3,2	%3,7	%5,0	%1,6	%7,6
Gazteak	%1,8	%4,0	%1,5	%0**	%2,4	%0**	%1,7	%3,5
Helduak	%2,6	%5,4	%2,8	%2,3	%2,6	%3,6	%2,4	%3,4
Adinekoak	%1,9	%2,9	%1,4	%0	%0	%5,6	%0	%5,6

*Ezagutza: 2001eko erroldaren gaineko euskaldunen ehunekoa.

**Bi udalerritan gazteen lagin txikia izan zen: Berriozar-en 64 gazte eta Zizur Nagusia 84.

Bigarren taula honetan, Lizarra, antzeko egoeran bizi diren Nafarroako beste udalerriekin alderatu dugu. Datuak 2006ko kale neurketakoak dira ez baititugu guztiendako 2011ko datuak. Denak ehuneko baxuak dira, %10etik behera, hala ere, ikus liteke Lizarran emaitza onak lortzen direla, besteen aldean behinik behin. Azpiko taulan berriz, *euskal komunitatearen* adierazle berri bat ikusi ahal dugu: Eraginkortasun Indizea, 100* Erabilera(%) / Ezagutza(%).

38. taula: Eraginkortasun Indizea

	Iruñea	Barañain	Burlata	Zizur N.	Atarrabia	Berriozar	Tafalla	Lizarra
Ezagutza*	%8,8	%9,9	%10,6	%11,6	%14,2	%9,2	%5,7	%10,8
Erabilera	%2,8	%4,2	%3,5	%2,2	%2,9	%4,0	%1,7	%5,1
Eragin. Ind	%31,8	%42,4	%33	%19	%20,4	%43,5	%29,8	%47,2

*Gogoratu, ezagutza 2001eko erroldaren gainean kalkulatu dagoela, beraz emaitzak tentuz hartu behar dira.

Erabilera berriz 2006ko kale neurketakoa da.

Eraginkortasun indizeari erreparatuta, euskararekiko atxikimendurik handienak Barañainen, Berriozar-en eta Lizarran ditugu (%42/%47); gero Iruñea, Burlata eta Tafalla (%30/%33) eta okerren dabilzanak Zizur Nagusia eta Atarrabia (%19/%20). Bitxia da datu hauek ez dutela zergatik kointziditu 2001eko erroldan kalkulatu dugun etxeko hizkuntzarekiko atxikimendurekin.

39. taula: Etxeko eta Kaleko eraginkortasun indizea.

	Iruñea	Barañain	Burlata	Zizur N.	Atarrabia	Berriozar	Tafalla	Lizarra
Ezagutza*	%8,8	%9,9	%10,6	%11,6	%14,2	%9,2	%5,7	%10,8
Etxeko Ind	%65,9	%52,5	%56,6	%59,5	%61,3	%55,4	%47,4	%56,5
Kaleko Ind	%31,8	%42,4	%33	%19	%20,4	%43,5	%29,8	%47,2
Aldea	%34,1	%10,1	%23,6	%40,5	%40,9	%11,9	%17,6	%9,3

*Ezagutza: 2001eko erroldaren gaineko euskaldunen ehunekoa.

Ettxeko eraginkortasun indizean onena Iruñea da %65arekin, gero Atarrabia eta Zizur Nagusia (%59/%61), ondotik Lizarra, Barañain, Berriozar eta Burlata (%52/%56) eta azkenik, baina distantzia handiagora, Tafalla (%47). Honek adieraz dezake, eskualde hauetan hizkuntzaren transmisio naturalaren hastapenak ikus ditzakegula: euskaldunen %47/%65ek erabiltzen dute euskara etxean.

Deigarria da ikustea, nola Barañainek, Lizarrak eta Berriozar-ek nahiko pareko dituzten bi indizeak (aldea 9-12 puntutakoa da) eta Tafallak eta Burlatak erdipurdiko aldea (18-24 puntutakoa); Iruñeak eta batez ere Atarrabiak eta Zizur Nagusiak desfase oso handiak dituzte bi indizeetan (34 puntuko desfasea Iruñeak eta 41 bai Atarrabiak bai Zizur Nagusiak). Zer dela eta halako ezberdintasuna? herri eta hiri horietan euskalgintzak izandako lanketa ezberdinaren ondorio? neurraldiak adierazgarriak ote, lagin nahikoa?


Bukatzeko, Ezagutzaren atalean Lizarrarako 2006 eta 2011ko erroldetan agertuko zen euskara ezagutza mailarako estimazioa egin dugu, biztanleen %12,1 eta %14,4 batz bestekoak hurrenez hurren. Urte haietako kale neurketak baditugunez, %5,1 eta %5,7; hauen eraginkortasun indizea kalkulatu dugu (aurreko taulatan ez dugu egin ez baititugu beste udalerrien 2011ko kale neurketak ezta haien euskara ezagutza estimazioak).

Lizarrako eraginkortasun indizea 2006: %42,1

Lizarrako eraginkortasun indizea 2011: %39,6

Hortaz, eta jakinik ere kale neurketen herrietako emaitzek errore-tarte zabala dutela, datuek adierazten dute ezagutzan gora egitearekin batera (bataz besteko estimatua +%3,6) erabilpenean ere zertxobait gora egin dela (+%0,6). Eraginkortasun indizea ere, paretsu mantendu dela ematen du, hori bai, %2,5eko erorketarekin (beti ere euskara ezagutza estimatuaren bataz bestekoa erabilita).

15. grafikoa: Gaitasun-maila eta erabilera^{xlvii}



Aurreko orrialdeko taulak era intuitiboan dakiguna era matematikoan berresten digu. Hizkuntza Gaitasun maila igotzearekin batera erabilera ere igotzen da bai, baina hazkunde abiadurak ezberdinak dira. Abiadura aldaketa puntuak grafikoan ikus daitezkeen biak dira: ezagutza %30 eta %60 denean.

Lizarran dagoen gaitasun maila edo ezagutza %10,8 izanik (%14,4 2011ko estimazioan) urrun gaude oraindik abiadura aldaketatik baina bai aldera daitekeela espero den erabilera maila ditugun neurketekin.

40. taula: Gaitasun-mailak eta erabilera^{xlviii}

Gaitasun-maila	Erabilera	Indizea
%5	%2	0,4
%20	%9	0,45
%30	%14	0,47
%40	%21	0,53
%60	%39	0,65
%80	%61	0,76

Estimatzen den erabilera honako formularen bitartez kalkula genezake:

$$Erabilera = 0,8208x^2 + 0,0811x + 0,0232$$

Non x aldagaia herri horretako hizkuntza gaitasuna den (euskaraz komunikatzeko gai diren biztanleak / biztanle guztiak). Formula hori aplikatuz, Lizarrarako estimatuko liratekeen erabilera mailak honakoak lirateke:

41. taula: Erabilera estimatua eta neurtua

Urtea	Erabilera estimatua	Erabilera neurtua	Aldea
1997*	%3,6	%3,5	-%0,1
2001	%4,2	%2,8	-%1,4
2006**	%4,5	%5,1	+%0,6
2011**	%5,2	%5,7	+%0,5

*1996ko erroldaren ezagutza mailari erreparatua (%8,7)

**2006 eta 2011 urteetan Lizarrako euskara gaitasun maila Begira 2000 tresna erabilita estimatua izan da, ez da zuzenean neurtu. Estimazioak, hurrenez hurren, %12,1 eta %14,4 izan dira (bataz bestekoak)

5.2.1 Estellerria

Orain Lizarra eta haren ingurua ikusiko dugu, 35.000 biztanle inguruko eskualdea osatzen du Estellerriak (Ekialdeko eta Mendebaldeko Estellerria).

42. taula: Kale Neurketak adinaren arabera. Estellerria eta Lizarra.

	1993(E)	1997(E)	1997(L)	2001(E)	2001(L)	2006(E)	2006(L)	2011(E)	2011(L)
Erabilera*	%3,00	%2,10	%3,5	%1,20	%2,8	%3,40	%5,1	%2,70	%5,7
Haurrak	%6,26	%3,12	%7,91	%1,50	%2,44	%4,84	%7,64	%4,11	%9,64
Gazteak	%2,41	%2,24	%3,75	%1,68	%9,63	%2,60	%3,52	%1,97	%4,07
Helduak	%2,30	%1,50	%1,67	%1,17	%1,61	%3,17	%3,43	%3,05	%5,46
Adinekoak	%0,00	%0,19	%0,0	%0,20	%0,0	%1,94	%5,56	%0,46	%1,53
Beste H. **	-	-	-	-	-	%2,24	%1,2	%2,77	%2,65

*Euskararen kale erabilera osotara Estellerrian (E) eta Lizarran (L) (elkarrizketa guztien artean)

**Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzen erabilera (elkarrizketa guztien artean)

Lagin-akats orokorra honakoa izan da Estellerriko (%95eko konfiantza-mailarekin): 1993an %0,3, 1997an %0,8, 2001ean %0,5, 2007an %0,3 eta 2011n %0,2. Esperotako emaitzak lortu dira Estellerria eta Lizarra konparatuz. Hala ere, harritzekoa izan da azken neurraldia, Lizarrak gora egin arren ia adin-talde guztietan, Estellerriak behera egin du guztietan.

5.3 Euskarabideak eginiko inkesta (2008) (zaletasuna)^{xlix}

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza saileko Euskarabidea azpisailak 2008an eginiko inkesta hartuko dugu orain ardatz. Azterketa horren xede nagusia 15 urtetik gorako biztanleen hizkuntza-gaitasunaren berri izatea zen.

Ondoko hiru azpi-helburu hauek ere jorratu zituzten:

- Euskararen transmisioa eta erabilera ezagutzea, familiaretan, lanean, auzoan eta esparru publikoan.
- Euskararen inguruko jarrerak ezagutzea.
- Euskarazko irakurketa-ohiturak ezagutzea.

5.3.1 Azterlanaren mugak gure lanerako.

Gure azterlan honetarako muga garrantzitsua dauka aipatu inkesta honek. Inkestaren datuen iturburua edo ardatza, batetik, Nafarroa bere osotasunean, bestetik hizkuntza eremuak (*euskalduna*, *mistoa* eta *ez-euskalduna*), eta azkenik eskualdeak dira (gure kasurako lehen definitu dugun Estellerria, ez Merindade osoa). Ez dugu Lizarraren ezagutza zehatzik jaso; hala eta guztiz ere, interesgarria deritzogu inkesta, Lizarrak Estellerrian duen pisu demografikoagatik eta Lizarrako euskaldunek bertan duten pisua dela eta.

2011an, Lizarrako Merindadearen biztanleria 66.082 zen, Estellerriko biztanleria 39.365 eta Lizarrakoa 14.251. Hau da, Lizarra Merindadearen biztanleriaren %21,6 zen eta Estellerriko biztanleriaren %36,2. Aurreko hamarkadako datuak mantendu dira Estellerriko, ezin esan zer gertatu den Lizarrako euskaldunen pisu erlatiboarekin baina hala eta guztiz ere %36,2tik nahikoa gora egonen dela pentsa liteke; jakinik gazte gehiago daudela Lizarran Estellerrian baino eta euskararen aurrerakada hortik datorrela.

Nafarroa osorako laginketa-errorea $\pm 1,0$ inguru da, hizkuntza-eremuena $\pm 4,5$ eta Estellerria eskualdearena $\pm 5,03$ izan zen. Inkestaren zehaztasunarekin amaitzeko, *eremu mistoan* 1.004 lagin hartu ziren eta *eremu ez-euskaldunean* 1.527. Estellerrian berriz 390 lagin hartu ziren, 47 *eremu mistoan* eta 343 *eremu ez-euskaldunean*.¹

43. taula: Biztanleria osoa eremuka 2011n eta Estellerrian

	Estellerria (2011)	%
Eremu mistoa	17.189	%43,7
Eremu ez-euskalduna	22.176	%56,3
Guztira	39.365	%100

Estellerrian, inkesta 2007an egin zen 15 urtetik goragoko biztanleen artean: 31.053 biztanle ziren 15 urtetik gora. Aurreko orrialdeko taulan, Estellerriko 2011ko biztanleria osoa daukagu, hizkuntz eremuka sailkatuta. Estellerriko *eremu mistoa*, biztanleriaren %43,7 inguru bada, laginketan berriz %12,1 izan da. Estellerriko datuak ematean ez badira kontutan hartu *eremu mistoa/ez-euskaldunaren* arteko proportzioa, eta jakinik gainera lagin gutxi daudela eta hortaz +-5,03ko laginketa-errorea dutela eskualderako, datuak are fidagaitzagoak liratekeela ematen du. Zer esanik ez, Lizarrarentzako ondorioak atera nahi baditugu.

5.3.2 Ezagutza Estellerrian.

Inkestan *Hitz egiteko maizenik erabiltzen den hizkuntza* (22. taula) eta *ama-hizkuntzaren* (25. taula) inguruko taulak agertzen dira; euskara, bertan, hurrenez hurren %0 eta %0,6 da Estellerriko, Iruñaldean berriz %2,6 eta %3,4. Datuak zehatzak direla pentsatuko bagenu, bi eskualdeen arteko aldea legoke; hala ere, bi zehaztapen egin genitzake. Batetik, Iruñaldean nagusiki *eremu mistoan* dago, Estellerria berriz *eremu ez-euskaldunean*. Honek dakarren guztiarekin, honi gehitzen badiogu **5.3.1. Azterlanaren mugak gure lanerako** atalean esandakoak, bi eskualdeen arteko konparazioa oso tentuz hartzekoa da.

44. taula: Nafarroako biztanleen hizkuntza-gaitasuna.

17. TAULA / CUADRO 17

Nafarroako biztanleen hizkuntza-gaitasuna, Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera (% bertikalak)
Competencia lingüística de la población de Navarra según la Zonificación Navarra 2000. (% verticales)

	IPAR- MENDEBALDEA NOROESTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
■ Euskaldunak / Euskaldun	57,9	14,9	9,5	6,7	5,5	1,9	0,5
■ Ia-euskaldunak / Cuasi-euskaldun	8,2	12,5	6,8	6,2	10,4	1,2	3,3
■ Gaztelaniadunak / Castellano parlante	33,9	72,5	83,6	87,0	84,1	96,8	96,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Taula honetan, datu esanguratsu moduan, aipatuko dugu 2.007an euskaldunak Estellerriko %6,7 balira, 2001etikiko %0,9 jaitsiko zela euskaldun kopurua; 2.001ean erroldako datuen arabera euskaldunak %7,6 baitziren Estellerri osoan. Eskolen matrikulazio datuak ikusita zaila suertatzen da halako jaitsiera aurreikustea, etorkinen eragina izanik ere.

Bestetik, lehen aipatu ditugun neurketetan (**5.1 Errolda** eta **5.2 Kale Erabilera** atalak), 2001eko erroldaren arabera Lizarrako biztanleen %4,7 dute euskara edo euskara/gaztelania lehen hizkuntza eta 2006ko kale neurketak %5,1eko erabilera eman zuen Lizarran.

5.3.3 Irakaskuntza Estellerrian.

Honako taula honetan, Irakaskuntza-ereduen araberrako sailkapena, oso datu bitxiak agertzen zaizkigu. Batetik, Estellerrian soilik bi udalerrri izanik non D ereduak ikas daitekeen, eta jakinik biztanleria gehiena *eremu ez-euskaldunean* bizi dela; hala eta guztiz ere Iruñaldean baino proportzio altuagoak ikasi du D ereduak! %4.6 eta %4.9 hurrenez hurren. Datu honek hain

juxtu aurreko atalean aztertutakoarekin ez du batere kointziditzen. Bigarren datu deigarria, eta hemen bai ematen duela alde nabaria badagoela, A ereduaren zabalkundea da (B ereduak oso eragin txikia du). Bertan, Iruñaldeak Estellerriko datuak hirukoizten ditu, Estellerriko eskoletan A ereduaren zabalkundea beranduago izan dela ematen du.

45. taula: Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua.

39. TAULA / CUADRO 39

Nafarroako biztanleek egindako ikasketen irakaskuntza-eredua, Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera (% bertikalak)

Modelo de Enseñanza en el que la Población de Navarra cursó sus estudios según la Zonificación Navarra 2000. (% verticales)

	IPAR- MENDERALDEA NOROESTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
A eta B ereduak ⁵⁵ / Modelo A y B ⁵⁶	29,4	13,2	32,6	10,9	11,6	22,6	10,1
D ereduak ⁵⁷ / Modelo D ⁵⁸	16,0	5,2	4,6	4,9	2,7	0,0	0,0
G ereduak ⁵⁹ / Modelo G ⁶⁰	54,6	81,6	62,8	84,1	85,7	77,4	89,9

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

Azpiko bi tauletan “Zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko zenituzke seme-alabak gaur egun?” eta “zure iritziz, eremu hauetan eskaini behar da irakaskuntza euskaraz...”. Antzeko galderak izanik, bitxia da erantzunen arteko aldea.

46. taula: Zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko zenituzke seme-alabak gaur egun?

	eredu euskaldunak*	A ereduak	eredu erdaldunak**
Estellerria	%49,4	%25,4	%25,1
Iruñaldeak	%42,8	%21,8	%32,6
Erdialdeko ekialdeak	%31,7	%37,2	%29,6

*eredu euskaldunak: inkestako D eta B ereduak.

**eredu erdaldunak: inkestako G eta British.

47. taula: Zure iritziz, eremu hauetan eskaini behar da irakaskuntza euskaraz...

	Nafarroa osoan	Misto+Euskaldunean	Euskaldunean soilik
Estellerria	%65,0	%4,7	%21,5
Iruñaldeak	%67,5	%9,9	%14,4
Erdialdeko ekialdeak	%77,8	%4,2	%11,6

Datuak bere horretan hartuko bagenu, ematen du eskualdeko euskararen kontrako jarrera kontzientziatuagoa dagoela Estellerrian beste lekuetan baino (%20k pasatxo eskatzen du euskararen irakaskuntza Estellerritik at izatea), Tuteraldean (%20,2) baino altuagoa. Bitxia da ikustea berezko haurrak matrikulatzerako garaian, *eremu euskaldunetik* at dagoen eskualdeetan daturik altuena ematea, eta eremuen aferan aldiz okerrenetakoa izatea.

48. taula: Nafarroako biztanleak. Zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko zenituzke seme-alabak gaur egun?

41. TAULA / CUADRO 41

Nafarroako biztanleak. Zein hezkuntza-eredutan matrikulatuko zenituzke seme-alabak gaur egun? Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera (% bertikalak)
Población de Navarra. ¿En qué modelo educativo matricularía a sus hijos e hijas hoy en día? Por Zonificación Navarra 2000 (% verticales)

	IPAR- MENDIALDEA NOROESTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
A eredua / Modelo A	8,1	16,7	21,8	25,4	37,2	34,7	22,5
B eredua / Modelo B	15,5	23,7	16,5	18,5	10,9	24,5	10,0
D eredua / Modelo D	70,9	45,0	26,3	30,9	20,8	4,7	7,1
G eredua / Modelo G	1,8	10,3	18,7	13,2	9,9	24,3	39,4
British	3,1	3,8	13,9	11,9	19,7	10,0	18,4
Ed-Ee / Ns-Nc	0,5	0,5	2,7	0,1	1,4	1,8	2,5

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

49. taula: Nafarroako biztanleak. Zure iritziz, eremu hauetan eskaini behar da irakaskuntza euskaraz...

49. TAULA / CUADRO 49

Nafarroako biztanleak. Zure iritziz, eremu hauetan eskaini behar da irakaskuntza euskaraz... Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera (% bertikalak)
Población de Navarra. En su opinión, la enseñanza en euskera debería ofertarse en... por Zonificación Navarra 2000 (% verticales)

	IPAR- MENDIALDEA NOROESTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
■ Nafarroa osoan / Toda Navarra	80,3	77,9	67,5	65,0	77,8	62,0	50,4
■ Eremu euskaldunetan eta mistoan bakarrik/ Solo en las zonas vascófona y mixta	6,2	2,8	9,9	4,7	4,2	4,1	13,8
■ Eremu euskaldunetan / La zona vascófona	4,9	7,4	14,4	21,5	11,6	12,4	20,2
■ Ed-Ee / Ns-Nc	8,6	11,9	8,2	8,8	6,4	21,6	15,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

5.3.4 Interesa, administrazioa, jarduerak Estellerrian.

“Nafarroako biztanleek euskararekin duten interesa.”, honen aurrean bi hausnarketa egin genitzake. Batetik Iruñaldea eta Estellerria oso antzekoak direla:

50. taula: Nafarroako biztanleek euskararekin duten interesa.

	Interesa*	Pixka bat	Interesarik ez**
Estellerria	%39,8	%17,7	%42,4
Iruñaldea	%37,6	%20,8	%41,1
Erdialdeko ekialdea	%30,4	%20,6	%46,2

*Interesa: “Asko” edo “Nahikoa”

** Interesarik ez: “Gutxi” edo “Batere ez”

Lehen esan bezala, Iruñaldea eta Estellerria oro har oso antzekoak izan arren, kontrako joera gogorrago bat ere suma daiteke Estellerrian. Euskararekin batere interesa ez dutenen jende kopurua Iruñaldean baino 6 puntu altuagoa da eta aldi berean interes handia duten lagunetan ere Estellerriak 3 puntu gutxiago ditu. Ikusi taula osoa hurrengo orrialdean:

51. taula: Nafarroako biztanleek euskararekin duten interesa.

58. TAULA / CUADRO 58

Nafarroako biztanleek euskararekin duten interesa, Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera. (% bertikalak)
 Interés de la población de Navarra por el euskera, por Zonificación Navarra 2000. (% verticales)

	IPAR- MENDERALDEA NOROCCIDENTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
■ Asko / Mucho	55,1	30,9	17,2	14,3	11,6	2,6	6,8
■ Nahikoa / Bastante	23,7	28,7	20,4	25,5	18,8	9,0	8,3
■ Pixka bat / Algo	9,4	16,6	20,8	17,7	20,6	18,0	14,8
■ Gutxi / Poco	4,9	13,4	15,8	10,8	15,3	22,5	15,3
■ Batere ez / Nada	6,3	10,4	25,3	31,6	30,9	43,8	53,3
■ Ed-Ee / Ns-Nc	0,7	0,0	0,6	0,0	2,8	4,2	1,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

“Nafarroako biztanleen balioespena euskarak Administrazioan duen erabilerari buruz” atalean ere lehengo alde bera topa dezakegu. *Nahikoa* iritzi dutenak Iruñaldean %42,4 eta Estellerrian %42,3 dira (Ekialdeko Erdialdean %48,2) berdintsu beraz; baina *Eskasa* iritzi dutenen (*nahikoa* ez) artean Iruñaldean %31,3 badira Estellerrian %26,2 dira (Ekialdeko Erdialdean %25,1). Beste behin ere euskararen aldeko joera epelagoa edo kontrakotasun gogorragoa adieraziko luke honek (inkestan ez zegoen aukerarik esateko *Gehiegi* iritzi zuela). Datuak 60. taulatik hartuak.

52. taula: Zure ustez, jarduera gehiago ezarri behar dira (kulturalak, aisialdikoak, eta abar), euskararen erabilera sustatzeko?

63. TAULA / CUADRO 63

Zure ustez, jarduera gehiago ezarri behar dira (kulturalak, aisialdikoak, eta abar), euskararen erabilera sustatzeko?
 Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera (% bertikalak)
 ¿Cree que son necesarias más actividades (culturales, de tiempo libre, etc.) para fomentar el uso del euskera?
 Por Zonificación Navarra 2000 (% verticales)

	IPAR- MENDERALDEA NOROCCIDENTE	PIRINIOALDEA PIRINEO	IRUÑALDEA PAMPLONA	ESTELLERRIA TIERRA ESTELLA	EKIALDEKO ERDIALDEKO NAFARROA NAVARRA MEDIA ORIENTAL	ERRIBERA RIBERA	TUTERALDEA TUDELA
Bai / Si	69,0	70,3	53,3	52,2	44,6	46,9	32,2
Ez / No	15,3	19,2	26,2	31,9	39,1	27,4	46,1
Ed-Ee / Ns-Nc	15,7	10,5	20,5	15,9	16,3	25,7	21,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroako Foru Komunitatean. Azterlan soziolinguistikoa. 2008. urtea
 Fuente: La situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Estudio sociolingüístico. Año 2008

“Zure ustez, jarduera gehiago ezarri behar dira (kulturalak, aisialdikoak, eta abar), euskararen erabilera sustatzeko?” atalean, beste behin ere etengabe aipatzen ari garen egoera agertzen da. Baiezkoa %52,2 Estellerrian eta %53,3 Iruñaldean (Ekialdeko Erdialdean bajuxeago, %44,6) baina ezezkoan %31,9 Estellerrian eta %26,2 Iruñaldean (Ekialdeko Erdialdean gorago, %39,1). Berriz ere aldekoen artean antzeko ehunekoak dituzte Estellerriak eta Iruñaldeak baina kontrakotasunean aktiboagoa da Estellerria, oro har bost/sei puntutan irudikatzen da hori taulaz taula.

5.3.5 Ondorio orokorrak

Iruñaldea eta Estellerria oso antzekoak dira euskararen aldeketasunean, euskararen kontraketasunean berriz Estellerriak Iruñaldea gainditzen du gehienetan (%5eko aldearekin) eta galdera jakin batzuetan Erribera edota Tuteralea gainditzera ere iritsi da. Honek pentsarazi ahal digu euskararen kontrako jarrera aktiboagoa dagoela Estellerrian.

Hala ere atal honen lehen puntuan azaldu arrazoiengatik datuak oso tentuz hartzekoak dira, alde batetik lagin eskasiagatik eta bestetik balitekeelako Estellerriko *eremu ez-euskaldunak* gain-ordezkaritza jaso izana (kontutan hartu al da Estellerrian *eremu mistoan* bizi dela %43,7 eta hartutako laginen artean %12,1 besterik ez dela izan?).

Hala ere, honek irudikatuko luke Iruñaldea eta Iruñaren arteko ezberdintasun gutxi egotea baina Estellerria eta Lizarraren arteko ezberdintasun handiagoa izatea.

5.4 Azken hamarkadako 3 urtetako haurren eskola-matrikulazioak ereduak banatuta.ⁱⁱ

Lizarran hainbat haur eskola, eskola (Remontibal, Ikastola eta Santa Ana eskolak) eta azkenik lanbide eskola edo politeknikoa eta Institutua daude. Eskola guztiek eskaintzen dute A ereduak (hau da, euskara irakasgai besterik ez), D ereduak berriz Ikastolak, Remontibalek eta B.H.I. Lizarraldeak eskaintzen dute.

Horretaz gain, 2008tik aurrera Remontibal eskolak HTI eta HTI-A ereduak eskaintzen ditu. Honako hauek irakasuntza ereduak izan ez arren idazketa erraztearren horrela identifikatuko ditugu. Eredu honetan irakasgaien erdia gaztelaniaz ematen dira eta beste erdia ingelesez, HTI beharrean HTI-A bada horrek esan nahi du euskara irakasgaia gehitzen zaiola.


Aipatu ditugun eskolez gain Mater Dei eskola gehitu genezake ere. Honako hau Lizarran bertan egon ez arren (Aiegin dago) Lizarrako mugatik metro gutxitara dago eta Lizarrako hezkuntza sistemaren parte dela estimatu genezake. Hemendik aurrerako datu guztiak Mater Dei kontutan hartuta emango dira.

Ondoko lerrootan hainbat grafiko plazaratuko ditugu. Bertan, 2000 eta 2011 bitartean 3 urtetako haurren ereduak matrikulazioa plazaratuko da. Erosotasunaren aldetik eta euskararen ikuspegitik, ereduak hirutan sailkatu ditugu: batetik euskarazko murgiltze ereduak (D ereduak), bestetik euskara ezagutzaren bat ahalbidetzen dutenak (A eta HTI-A ereduak) eta azkenik euskara txertaturik ez dutenak (G eta HTI). Ohar moduan, ofizialki hizkuntz eredu bakarrak D eta G dira, ez A ez HTI edo HTI-A ez dira hizkuntz ereduak, nahiz eta lehen aipatu bezala, erosotasuna dela eta horrela identifikatuko ditugun hemendik aurrera.

Azterlanaren mugak honakoak dira: alde batetik, hemen ez dugu ikusiko ikasle hauek haien ikas-prozesuan hasierako ereduak mantentzen diren edo beste ereduera aldatzen diren (A ereduak eman liteke aldaketarik nabariena). Bestetik, Lizarran herrietako ikasle asko

matrikulatzen dira: Ikastolan %45 inguru, Remontibalen %50 inguru (eta D ereduaren are gehiago) 2011-2012 ikasturtean. Hortaz Lizarrako haur guztiak bertan eskolatuak badaude ere, ezin esan ikasleetako zenbat diren Lizarrakoak eta zenbat herrietakoak.

16. grafikoa: Urtez urte, 3 urtetako haurren ereduak eskolatzeari. Haur kopuruak




Grafiko honetan bi gauza ikus ditzakegu. Batetik, eta 2000. urtea baino lehenagoko datuak izan gabe, ematen duenez 2001ean epealdi baten bukaera eman dela; D ereduak, gorako joera eta A eta G ereduak beheraka. 2002tik 2005era, berriz, D ereduak haur kopuruari eusten badio ere, egonkortu egiten da, beste bi ereduak baina gorako joera hartzen dute.

2006 eta 2007an G ereduak gorakada nabarmena ezagutuko du eta D eta A ereduak berriz behera egingo dute. 2008an, HTI-ren agerpenarekin lehendabiziko aldiz G ereduaren gorakada geldiaraziko da baina A eta HTI-A-k kontrako joera hartu eta D ereduak gaiztatu dute. Honek D ereduaren epealdi ezegonkor batean sartuko du, bi joerak emanez, gorakada eta beherakada. Hala ere G, HTI eta A eta HTI-A ereduak gorako joera hartuko dute nabarmen.


Bitxia izan da 2011n gertatutakoa. Ikastolan arrakasta handia izan zuten aurre-matrikulazioan, legez dagozkion bi ikasgelak bete zituen eta lau haurrek kanpoan geratu behar izan zuten ezin izan zituztelako artatu; Remontibal eskolak ere bete zuten helburua D ereduarekin: bi ikasgela aurrera ateratu zituen. Hortaz, ematen duenez, Lizarrako euskaltzaleontzako emaitza onak izan ziren. Ikusi baina, hurrengo orrialdeko grafikoa:

17. grafikoa: 3 urtetako haurren matrikulazioa ereduak. Ehunekoak



Ikasle kopuruaren matrikulazioan, D ereduak oro har gailentzen den arren, ikasle guztiak kontutan hartzen baditugu berehala ohartuko gara egoeraz. D ereduak ia etengabeko jaitsiera ezagutu du 2001etik hona. Urtez urtekako matrikulazioen ajeak ikusarazten ez ziguna erakusten digu grafiko honek. Eta hori zer dela eta?

18. grafikoa: Hiru urtetako haurren matrikulazioa. Kopuruak




2002, 2003 eta 2004 urteetan hazkunde nabarmenak izan dira haur kopuruetan, 2008an txikitze arraro bat, baina hurrengo urtean berreskuratuko zena eta 2011n beste hazkunde nabarmena. 150 haur matrikultatetik 250etik gora matrikultzera pasatu gara eta D ereduari 80/90 haurren matrikulazioan egonkortu bagara, argi dago falta dena bete dutela beste ereduak (A, HTI-A eta G, HTI).

Hori dela eta, D ereduari 3 urtetako haurren matrikulazio osoaren %50,9 izatetik (2001) %35,8 izatera igaro da (2010 eta 2011 urteetako matrikulazioetan).

Orain, Lizarrako erietxeko erditzeak^{lii} eta hiru urtetako haurren matrikulazioak taula berean ipiniko ditugu. Kontutan izan Lizarrako erietxeak Lizarralde osoari ematen diola zerbitzu baina eskolek ez; hori dela eta erditzeak 450en bueltan badaude ere matrikulazioak 200en bueltan daude.

19. grafikoa: Lizarrako erietxean izandako Erditzeak (ez haurrak) eta HH1 mailako haurren eskolatzea.



2005eko Lizarrako erietxeko erditze kopuruen jaitsierak ematen du kointziditzen duela 2008ko hiru urtetako haurren matrikulazioarekin; eta baita ere haurren jaiotza joerak. Hala ere, ez da argi ikusten.

6 EUSKALGINTZAKO ERAGILEAK

Aurretik aipatu bezala, Lizarra bezalako eremu txikian kontzentratzen dira Euskal Herri mailan euskararekin lotutako aktore nagusiak. Hemen ditugu bai Ikastola bai murgiltze eredu publikoa, institutua, AEK, euskara elkarteak, Udaleko euskara zerbitzua, EHE taldea ... Atal honetan euskalgintzako eragile hauek hobeki ezagutzeko banan banan jorratuko ditugu.

Hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, **7. Euskalgintzari inkesta** atalean hain zuzen ere, euskalgintzako kideei inkesta bat egiteko eskatu zaie eta bertan, besteak beste, haien erakundearen inguruko informazio berezitua eskatzen zitzairen. Horrez gain, Lizarran euskalgintza zer zen definitzeko eskatzen zitzairen eta, bide batez, euskalgintza Lizarran nortzuk osatzen duten. Zazpigarren atalean ikusiko dugun moduan, haiek *bozkatutako* euskalgintza-zerrendak eta ikerlan honetan aztertutako eragileak ez dute ehuneko ehunean kointziditzen.

Atal honetan agertuko diren eragileak haur, gazte zein helduen euskalduntzerako duten garrantziagatik (AEK, Ikastola, Remontibal, BHI Lizarralde, Arieta haur eskola), edota euskara helburu bakar duten eta euskaraz lan egiten dutelako (Garean, EHE) agertuko dira. Bertan Udaleko Euskara Zerbitzua gehitzea erabaki da ere, pertsona bakarrak osatu arren. Aurkeztutako eragileetan, hauen kideen lana euskaraz burutzen da nagusiki; askorentzat, lan eremu osoa edo ia osoa euskalduna da ere (AEK, Ikastola, Garean, EHE) eta beste batzuetan lan eremuaren zati handi bat da euskalduna.

Ezagutu ditzagun bada aukeratutako euskalgintzako eragileak:

6.1 Lizarra Ikastola

Errepublikara garaiko ikastola aitzindariaren ondorengoa dugu 70eko hamarkadan martxan hasi zen Lizarra Ikastola. 1970ean abiatu zen aurreneko ikasturtea eta, hurrengo hiru urteetan murgiltze eredu baliatu ez bazuen ere, 1973-1974tik aurrera euskarazko murgiltze ereduak ikasiko zuten haurrek.

Ikastetxea Irakaskuntza eta Kontsumo Kooperatiba bilakatu zen 1977an eta handik 8 urtetara, 1985ean, ospatuko zen Nafarroa Oinezari esker Eskolapioen eskola eta lur-sailak erosi ahal izan zituen. 1990eko Oinez arrakastatsuekin eraikin berria erosi zen eta hamarkada horren lehen erdian eskaintza zabaldu zuen DBHa ezarrita.

Haur eskola 1999an inauguratu zen eta horrela, ordutik hona, 0 eta 16 urte bitarteko eskolatze osoa eskaintzeko paradan izan da.

6.1.1 Ikastolako Komunitatea

a) Ikasleak

2011-2012 ikasturtean 689 ikasle izan dira Ikastolan. Ikasleak bizilekuaren arabera sailkatuta azpiko taulan ditugu:


53. taula: Ikastolako ikasleen bizilekua, 2011-2012 ikasturtean

	Ikasleak	%	% batura	Herriak-ikasleak (beltzez eremu mistoan)
Lizarra	404	%58,6	%58,6	Lizarra 404
0-5 km (1)	110	%16	%74,6	Aiegi 70, Villatuerta 15, Iratxe 9, Bearin 9 , Arbeitza 6, Zubielki 1
5-10 km (2)	47	%6,8	%81,4	Abartzuza 7 , Aberin 2, Eraul 1 , Eultz 3, Grozin 2 , Iruñela 2, Labeaga 1, Lakar 2 , Muniain 8, Murugarren 2 , Deio 4, Zabal 2 , Zurukuain 9 , Larrión 2
10-15 km (3)	68	%9,9	%91,3	Abaigar 2, <i>Allo 13</i> , Allotz 6 , Arizaleta 2 , <i>Arroitz 13</i> , Ibiriku 2 , Legaria 1, Murieta 7, <i>Oteitza 12</i> , Erretzu 6 , Ugar 1 , Ziraiki 3
15-20 km (4)	43	%6,2	%97,5	Lezaun 3 , Iturgoien 8 , Jaitz 7 , Antzin 4, <i>AMESKOA [Barindano 1, Gollano 2, Bakedano 4]</i> , <i>Los Arcos 12</i> , <i>Piedramillera 2</i>
20-25 km (5)	2	%0,3	%97,8	Sesma 1, Zuñiga 1
30-39 km (6)	15	%2,2	%100	VIANA [Bargota 2, Viana 5], ERRIBERA [Andosilla 3, Lodosa 4, Sartaguda 1]
IKASLEAK	689	%100	%100	Eremu misto: 404 + 69 eta 216 ez-euskaldun


Hortaz, Ikastolako ikasleen bizilekuaren araberako profila honakoa da: Lizarra edo inguru hurbilekoa (%74,6) eta *eremu mistoan* bizi dena (%68,7). Hala eta guztiz ere, ikasle kopuru handi batek, %16,2, distantzia handiagoak egin behar ditu (10-20 km). Nabaria da ere, Lizarra ondoko Aiegi herriaren eragina, *eremu mistoan* ez izateak eta eskola propiorik ez izateak Lizarrara erakartzen ditu haur asko.

20. grafikoa: Ikastolako haurrak mailaka, 2011/2012 ikasturtean

Ondoko grafikoan ikus dezakegu eskolako ziklo ezberdinetan nola banatzen diren haur eta gazteak. Haur Hezkuntzan, urteko ikasle guztien %7,1 daude, Lehen Hezkuntzan %7 eta DBHn %6,6. Hortaz, esan liteke, nahiko orekatua dela ikasleen urtez urtekako banaketa.



21. grafikoa: Hitzun neurketen emaitzak



Hitzun neurketen inguruko emaitzetan, ondoko taulan ageri diren emaitzak erdietsi dira. 2008tik aurreragoko daturik jasotzerik izan ez badugu ere, Ikastolan egindako kontsultan datuak ia aldaketarik gabe mantendu direla baieztatu dute.

Grafikoan ageri den "E"-ak Erabilerari egiten dio erreferentzia eta "He"-k Helburuari.

b) Irakasleak

Haur heziketan 7 hezitzaile daude, eta HH, LH eta DBHn berriz 43. Irakasleetatik 33 Lizarran bizi dira eta beste 10 Lizarratik kanpo (Eultz, Muniain, Arizaleta, Uharte, Iruñea eta Zurukuain). Bestalde, irakasle taldeak iraunkortasun handia dauka 43tik 41ek bi ikasturte edo gehiago daramatelako Lizarra Ikastolan.

c) Irakasleak ez diren langileak

Guztira 22 langile daude irakasle edo hezitzaile ez direnak, horietako bik garbiketan eta jantoki zerbitzuan lan egiten dute aldi berean. Langile hauetatik 15 euskaldunak dira, %68; zuzenean jendarteari begirako lanpostuak euskaldunek betetzen dituzte (Idazkaritza/administrazioa eta jantokia).

54. taula: Irakasleak ez diren langileak, 2011-2012 ikasturtean

Lan eremuak	Zenbat?	Euskaldunak?	Erdaldunak?
Administrazioa	2	2	0
Garbiketa	6	2	4
Mantenua	1	1	0
Jantokia	10	10	0
Sukaldea*	5	2	3
Informatika**	-	-	-

*Jangarria enpresa azpikontratatuta

**Behar denean konponketak egitera ekartzen da SEIN enpresa. Langile batzuk euskaldunak, besteak ez.

d) Gurasoak


Guraso-familiak 432 dira, hauetatik 154 guraso euskaldunak dira (familietan oro har bi guraso daudela estimatuta, %18 inguru euskalduna). Kooperatibaren ordezkaritza 10 kidez osatutako Administrazio Kontseilua da, honek betetzen du beste Ikastetxeetan Guraso Elkarrekin betetzen duten funtzioa. Hamar kide horietatik 2 euskaldunak dira eta 3k ongi ulertzen dute euskara.

6.1.2 Azken bost urteotako ikasleak (H.H. lehen ikasturtean)

2007/2008 ikasturtetik 2011/2012 ikasturtera, Haur Hezkuntzaren lehen mailan (3 urtetako haurrak) 259 ikasle izan dira. Hauetatik 17-k gurasoak beste kultura batekoak zituzten: 6 latinoamerikarrak, 6 mundu arabiarrekoak, 2 txinatarrek, 2 etiopiarrek, eta ijito bat. Haurren gurasoen euskara gaitasunari begira, 87 haurrek dute gurasoetako bat euskalduna eta hauetatik 27-k biak euskaldunak.

Ikastolako administrazioan baieztatu dute, azken urteetan, eta bereziki haur-eskolako arloan, gero eta guraso euskaldun gehiago dagoela.

22. grafikoa: Haurrak gurasoen jatorriaren arabera, 2007/2008ko ikasturtetik 2011/2012kora (HH 1 mailako matrikuletan)




23. grafikoa: Gurasoen hizkuntza, 2007ko ikasturtetik 2011kora (HH 1 mailako haurren gurasoak)

6.1.3 Kanpora begira eragiteko tresnak

-Keinu aldizkaria: Aldizkaria ele-biz idatzita dago, atal batzuk euskara hutsean daude (ikasle eta ikasle ohien atala kasu) eta beste batzuk, gurasoei zuzendurikoa adibidez, gaztelaniaz nagusiki (normalean erabili ez den hizkuntzan laburpena eskainiz). 3.500 ale egiten dira, eta Ikastolako familia, ikasle-ohi, Udal, taberna eta publizitatea jarri dutenen artean banatzen da.

24. grafikoa: Keinu orrialdeak (2001-2012)



102.5 euskaraz, 46 ele-biz (editoriala eta "Kurtsoa iruditan" atalak oro har) eta 158.5 gaztelaniaz (euskarazko laburpenekin).

-Martxo Kulturalak: Urtero hiru hitzaldi, hizkuntza hizlariaren arabera da eta sarrera/agurra beti euskaraz.

-Gurasoentzat euskara seme-alabekin praktikatzeko formazioa (abestiak, ipuinak, jolasak, ...). Formazio saioa hauek euskaraz egiten dira.

-Euskararekiko motibazioan eragiten: TELP irakasle guztientzat. Euskaraz.

-Euskararekiko motibazioan eragiten: Euskal Kulturarekin lotutako hainbat festa: Inauteri Rurala, Olentzero, Santa Ageda, Jaietako Barraka, Danborrada, Maiatzaren Igoera, Gabon Kantak ...

6.2 Remontibal, D eredu publikoa.

Lizarrako eskola publikoan 1995ean ezarri zen euskarazko murgiltze eredua.

6.2.1 Komunitatea

a) Ikasleak

2011-2012 ikasturtean, 760 ikasle daude, hauetatik 337 D ereduan. Euskararen erabilpenaren aldetik, klasean jarraipena egiten da; beste lekuetan baina, zaila da hizkuntz eredu guztiak batera daudelako. Remontibaleko haurren bizilekuaren arabera, erdia inguru herrietakoak dira eta beste erdia Lizarrakoak.

Garraio publikoaren inguruan, ikasle guztiek ez dute eskubiderik garraioa erabiltzeko; *eremu ez euskaldun*ean bizi direnak kasu. Orain arte, eskolarako garraioak kointziditzen bazuen *eremu ez euskalduneko* herri batetik pasatzen zela, tokirik bazen berau hartu ahal izan dute. Baina ibilbide horietatik at geratzen diren herriak (eskola propioa izanagatik gehien bat) zerbitzurik gabe geratu dira, Oteitza kasu.

55. taula: Remontibaleko D ereduko haurren bizilekua, 2011-2012 ikasturtean

	Ikasleak	%	% batura	Herriak-ikasleak (beltzez <i>eremu misto</i> an)
Lizarra	113	%38	%38	Lizarra 113
0-5 km (1)	54	%18,2	%56,2	Aiegi 35, Villatuerta 13, Bearin 1 , Arbeitza 4, Zubielki 1
5-10 km (2)	54	%18,2	%74,4	Abartzuza 4 , Aberin 1, Amillao 2, Aramendia 1, Artabia 6, Eultz 3, Galdeano 2, Iguzkitza 7, Iruñela 3, Lakar 2 , Morentin 2, Muneta 4, Muniain 4, Murugarren 2 , Deio 1, Zufia 1, Zurukuain 4 , Larrion 5
10-15 km (3)	52	%17,5	%91,9	Abaigar 1, <i>Allo</i> 6, Arellano 5, Azkona 4 , Deikaztelu 3, Ibiriku 2 , Legaria 1, Lukin 10, Metauten 2, Murieta 6, Oko 1, Ollobarren 6, Erretzu 2 , Ugar 3
15-20 km (4)	18	%6,1	%98	Argiñano 1 , Lezaun 2 , Irurre 1 , Iturgoien 2 , Jaitz 9 , Antzin 3
25-27 km (5)	6	%2	%100	Mirafuentes 4, Nazar 1, Galbarra 1
IKASLEAK	297*			Eremu misto: 113 + 39 eta 145 <i>ez-euskaldun</i>

*40 haur kokatu gabe zeuden neurketa egitean (2012/VI/14), D ereduaren ikasle kopurua lehen esandako 337ak dira.

D ereduko haurren bizilekuari so eginez gero, ikusiko dugunez emaitza interesgarriak ditugu. Batetik herrietako ikasleak nahikoa gehiago dira Lizarrakoak baino, hurrenez hurren %62 eta %38. Ez hori bakarrik, herrietako ikasleak nahiko era berdintsuan banatzen dira Lizarrarekiko distantziaren arabera, lehen 5 kilometroetan %18, 5-10 kilometroko tartean gauza bera eta 10-15 kilometroko tartean pixka bat gutxiago: %17,5. Bestetik, hizkuntzen arabera zonifikazioari kasu eginez gero, haurren %48,8a *eremu ez-euskaldun*koa da.


Ikasleen familien jatorriaren inguruan, kultura ezberdineko gurasoen inguruan galdetuta honakoa erantzuna jaso da: latinoamerikarrak “asko”, arabiarak “batzuk”, Sahara

hegoaldekoak “baten bat” eta Europa ekialdekoak “baten bat”. Ijitoak ere “asko”. D ereduaren baina, 3 ikasleren gurasoek dute jatorri latinoamerikarra eta 1 ijitoa. D ereduaren haurren %1,2a besterik ez da beste kultura batekoa.

25. grafikoa: Irakasleak 2011-2012 ikasturtean (kopuruak)

b) Irakasleak

2011-2012 ikasturtean 71 irakasle dira orotara, hauetatik 32 D eredukoak. D ereduko irakasleek mugikortasun handia dute, urteen arabera hauen erdia baino gehiago eskolaz aldatzen dira. 2011-2012 ikasturtean, 10 irakasle Lizarran bizi dira eta 12k daramate bi urte edo gehiago eskolan.



c) Bestelako langileak


Administrazioan bi lagunek lan egiten dute, haietako bat euskalduna; garbiketan 6/7-k eta bakarra euskalduna, sukaldean 20ren batek eta 5 euskaldun eta amaitzeko mantenuan 3-k eta euskaldunik ez.

d) Gurasoak

550 familia daude, eta ez da jasotzen haurren artean zenbatek duten gurasoetako bat edo biak euskaldunak, beraz ez da informazio hori jasotzerik izan. Guraso elkarte bakarra dago, APYMA. Normalean 12ren bat gurasok parte hartzen dute bertan, momentu puntualetan gehiago.

6.2.2 Hiru urtetako haurren matrikulazioa^{liii}


26. grafikoa: Remontibaleko 3 urtetako haurren matrikulazioa hizkuntz ereduka



Aurreko **5.4 atalean** egin bezala, hemen Remontibal eskolaren 3 urtetako haurren (Haur Hezkuntzako lehen maila) matrikulazioaren inguruko taula daukagu; hizkuntz ereduka jarrita. Lizarrako eskolen osotasunari begira D ereduari beherakada 2001ean hasi bada ere, Remontibal eskolaren datuei so eginez gero ikusi ahal dugu bertan 2008an hasiko zela. 2008an hain zuzen ere, HTI hizkuntz eredu (ingelesa eta gaztelania) ezarri zuten eskolan; ikasturteak aurrera joan ahala, G eta A “ereduak” desagertuko ziren HTI eta HTI-A “ereduak” ordezkaturak.

Ondoko lerrootako grafikoan joera aldaketa hori irudikatu dugu. Batetik, 2000/2001 ikasturtetik 2007/2008 ikasturtera bitarteko Haur Hezkuntzako lehen mailaren matrikulazio datuen batz bestekoa eta bestetik 2008/2009 ikasturtetik 2011/2012 ikasturterako matrikulazio datuena. Hau da, HTI martxan jarri zenekoa.

27. grafikoa: HTI-ren ezarpena Remontibalen



6.2.3 D ereduan irakasleen kohesioa? D, G, A, HTI, HTI-A ereduak elkarrekin egoteak zer dakar?

D irakasleen arteko kohesioaren gainean galdetuta, aipatu da orokorrean erabatekoa dela euskara gaiari dagokionez. Hainbeste hizkuntz eredu elkarrekin egoteak “ondorio asko ditu, gaztelaniaren presentzia nagusitzen da amankomuneko espazioetan (pasabideak, jantokia, patioak ...). Zaila suertatzen zaigu gehienetan gelatik kanpo euskararen erabilera bultzatzea.”

Aipatu beharra dago eskola garai zurrunbilotsuan dagoela bitan banatzearen inguruan. Eskola banatzeko irizpidea hizkuntza eredu litzateke (G, A, HTI batetik eta D eredu bestetik). Hortaz, urte batetik bestera Remontibal eskolaren egoera erabat alda liteke, baita euskararen aldetik ere.

6.3 Lizarraldea B.H.I. : Institutua

3.2.2 Lizarrak eta Estellerriak berezko euskara galdu zutenekoa atalean aipatu dugun “Estudio de la Gramática” eskolaren jarraipena izan ahal dugu egungo Batxilergoa. Institutua Lizarran aspaldi egon arren, 1990-1991 ikasturtean ekin zion euskarazko murgiltze ereduak funtzionatzeari.

6.3.1 Komunitatea

a) Ikasleak


2011-2012 ikasturtean 894 ikasle daude osotara Institutuan, haietako 269 D ereduari, %30. D ereduko ikasle gehienak Lizarrakoak direla ematen du baina ezin izan da datu zehatzik eskuratu, “D ereduaren gaineko daturik ez dago inolaz ere bildurik”.

Hala ere, Institutuko ikasle guztiak kontutan hartuta, 894tik 590 Lizarratik kanpokoak dira (%66) eta 80 herritatik etortzen dira Lizarrara. Hainbeste kanpoko ikasle eta hainbeste herri ezberdin izanik, haien garraioak buru hauste bat baino gehiago sortzen ditu. 21 ibilbide daude gazteak Institutura eramateko, ibilbide hauek eskola Politeknikoarekin elkarbanatzen dira eta lekuri izatekotan beste eskoletako ikasleek ere baliatzen dute.

Autobusak, arratsaldean 14:35ean ateratzen dira, hortaz Batxilergoko D ereduko ikasleek ez dute zerbitzu publikoa erabiltzerik; asteen 4 egunetan 15:25ean ateratzen baitira. Azken 8 urte hauetan (2004-2012), irakasleen eskutik bitan eta gurasoen eskutik beste behin, ahaleginak egin dira egoera aldatu nahian. 2010-2011 ikasturtera arte ez du ematen zerbitzu ezak eraginik izan duenik D ereduko matrikulazioan; 2011-2012an baina, hiru ikaslek erabaki zuten kurtso hasieran lehendabizikoz ereduz aldatzea etxera ezin joanik gelditzen zirelako asteen lautan. Euskara departamentuaren ustetan egoerak okerrera egiteko tankera du eta “ez du ematen borondate ona dagoenik autobus zerbitzuaren arazoari irtenbidea emateko.”

Ikasleen jatorriaren inguruan, D ereduari ez dugu jatorri atzeritarreko familia duen gazterik. Institutuan osotara, beste kultura bateko familia duten 96 haur eta gazte daude, 19 nazionalitate ezberdinekoak: Latinoamerika 48 (Ekuatore 33 eta Kolonia 5), Europa ekialdekoak 11 (Bulgaria 8), Maroko 13, Portugal 7, Pakistan 5, Sahara hegoaldekoak 3, Txina 3, Belgika 3, Argelia 2 eta AEB 1. Atzeritar jatorrikoak ez baina beste kultura bat osatzen duten 30 ijito daude ere. Azken hauek ere ez daude D ereduari.^{liv}

28. grafikoa: Ikasleak, kulturak eta hizkuntz-ereduak Institutuan (2011-2012)



b) Irakasleak

2011-2012an 110 irakasle ari ziren Institutuan, haietatik 39 D ereduan (%35) eta guztira 44 euskaldun (%40). 2012-2013an baina, murrizketak direla eta, 15 irakasle gutxiago aurreikusten dira Institutuan, hortaz proportzioak alda litezke (eta hala ematen du euskararen kalterako). Euskaldunen artean, 16 besterik ez dira Lizarran edo Lizarraldean bizi, eta 26 inguruk bi urte edo gehiago daramate bertan irakasten (%59ko jarraikortasuna hortaz).

c) Irakasleak ez diren langileak

Administrazioan 5 lagunek lan egiten dute, haietako bat euskalduna; garbiketan 6 lagunek eta mantenuan 2-k. Ez garbiketan ez mantenuan ez dago euskaldunik. Ez dago jantoki zerbitzua baina bai kafetegia, eta bertan ere ez da euskaldunik.

d) Gurasoak

600 familia inguru daude Institutuan, haietatik %50 baino gutxiago dira APYMAko (Gurasoen Elkartea) bazkide. Aurre-matrikuletan ez da euskara ezagutzaren gainean galdetzen, beraz, ofizialki ez dago jakiterik zenbat euskaldun dauden.

Ikasturte hasierako tutore bilerak, D ereduko taldeetakoak barne, gaztelaniaz izaten dira. Kurtso hasierako bilera orokorrean, Zuzendaritzaren agurrean bi lerro eta erdiko testutxoa da euskaraz ofizialki entzuten duten bakarra.

6.3.2 D ereduan irakasleen kohesioa? D, G, A ereduak elkarrekin egoteak zer dakar?

Nabarmentzekoa da ez dela institutuan ekintza bakarra ere “D ereduko irakasleak batzen edota elkar eraginean jartzen” dituen. Kohesioa gauzatu ahal izateko esparrurik ez da, “azukre koskorra uretan bezalaxe mugitzen gara, gazteleratan blai. Tabernan, agian, lortu ohi dira 10 minutuz euskaraz aritzea.”

Lanarekin lotutako komunikazio esparru gehienetan erdaldunak tartekatzen dira:

-Klaustroak gaztelania hutsean egiten dira. Urtero ohiko 6 klaustro inguru egiten dira eta bertan irakasle guztiak deituta daude gai akademikoak, funtzionamendukoak (ordutegia, egutegiak ...) eta abar erabakitzeko. “Aurten (2011-2012) ez-ohiko klaustro batean egin ditugu 7 minutu segidan euskaraz gazteleraz baino lehen, betarteko oker eta mutur beltz asko ikusi ditugu.”

-Ebaluazio saioak urtean lautan egiten dira ikastalde bakoitzaren gainean hausnartzeko; D eredukoak izan ezik, beste guztiak, A ereduaren barne, gaztelaniaz.

-Ikasleen inguruko txostenak (urtean bi txosten edo egin ohi dira) gaztelaniaz egiten dira oro har, baina D ereduak ikasleenak badira, bi hizkuntzatan egin behar dira gurasoek ulertu ahal izateko. Itzulpena txostena egiten duen irakaslearen kargu geratzen da.

-Ikasleen nota eta huts egiteak euskaraz sar ditzake irakasleak EDUCA programan, baina honek A ereduak gaztelaniaz jartzen ditu; oharrak euskaraz jar litezke baina A ereduak gaztelaniaz edo ele-biz jarri behar dira (baita euskara irakasleak ere) guraso eta tutorek ulertzeko.

-Euskara Departamentuak izan ezik, gainerakoek programazioak kurtso hasieran eta memoriak kurtso bukaeran gaztelaniaz entregatzen dituzte. Beste departamentuetan dauden D ereduak irakasleek gaztelaniaz lan egin behar dute eta gero, nola hala, material hori euskaratu.

-“Garrantzitsua da zuzendaritzak jokatzeko duen papera hizkuntzen erabileran azpimarratzea, ez baitago bertan sortzen den agiriaren eskutatik pasatzen ez denik. Sortzez, edozein dokumentu gaztelaniaz egiten da. Administrazioetik administrazioarako informazio guztia gaztelania hutsean egiten dute: kanporako egiten dena, gurasoendako adibidez, irakasleek itzultzen dute. Barne agiriak, berriz, asko itzulita badaude ere, espreski hala eskatu izan zaielako izan da.”


6.3.3 KPB-a eta Institutuko egoeraren irudikapena

KPBa (Koordinazio Pedagogiko Batzordea) irakasleen ordezkaritza gorena da, bertan erabakitzen dira ikasturteko gorabehera eta aldaketa guztiak. Astero ordu batez biltzen da eta bertan Zuzendaritzak (normalean Zuzendaria eta ikasketa buru bat) eta Departamentu Buruek parte hartzen dute. Bilerak bera eta honek sortzen duen materiala gaztelaniaz egiten da, gero hau Institutuko 16 departamentuetara luzatzen da eztabaidarako eta haien erantzunak gaztelaniaz ere bueltan etortzen dira hurrengo KPBan onartzeko.

Hurrengo orrialdeko grafikoak KPBaren jarduna irudikatzen badu ere, Institutuaren egoera ere islatuko luke. Euskal adarreko irakasleek (eta baita ere beste adarretako euskaldunek), gaztelaniazko egitura baten barruan lan egiten dute, haiek ematen duten irakasgaiaren araberrako antolaketa dute (dagokien departamentua) eta ez dago bestelako bilgunerik euskara jorratzeko edota euskaraz lan egiteko. Berez, horretarako egiturazko txoko bakarra, euskara irakasleen Euskara Departamentua litzateke.

Egitura honek honakoa sorrarazten du: euskal adarreko irakasleak zeinak Euskara Departamentuan ez dauden, lan handiagoa hartu behar dute gaztelaniazko ingurune batean lan eginez eta gero euskal ingurune baterako prestatzen (klaseak batez ere). Honek, D ereduak ez diren departamentu bereko lankideek ez duten lan karga bat sortzen die.

29. grafikoa: Institutuko KPBaren hizkuntza-fluxu diagrama



6.3.4 Departamentuen osaketa 2011-2012 ikasturtean

56. taula: Institutuko Departamentuen osaketa 2011-2012 ikasturtean

DEPARTAMENTUA	Irakasleak	Euskald.	D eredua	ZUZENDARITZAKO KIDEAK
Latina*	2	%50	%50	
Marrazketa	4	%50	%50	
Gorputz Heziketa	(7)5	%40	%40	(Zuzendaria, Zuzendariordea)
Filosofia	3	%33	%33	
Historia	10	%50	%30	
Ingelesa*	11	%36	%27	
Euskara*	6	%100	%100	
Gaztelania	12	%33	%33	
Matematika	(15)13	%31	%31	(Ikasketa buru 1**, Ikasketa buru 2)
Natur Zientziak	8	%37	%37	
Kimika	5	%40	%40	
Erljioa	3	%33	%33	
Teknologia*	(9)8	%37	%37	(Altxor-zaina)
Musika	3	%33	%33	
Frantsesa	2	%50	%50	
Orientazioa...	9	%33	%11	
Irakasleak	109	44	39	
Irakasleak %	%99,1***	%40	%36	

*Departamentu buruak euskaldunak

**Zuzendaritzako kide euskalduna

***Irakasle baten zenbakitzea falta da.

Aurreko puntuan azaldu bezala, D ereduko irakasleak (eta beste irakasle euskaldunak) Institutuko lan egituretan sakabanatuta daude eta horrek euskararen erabilera gaztelanian disolbatzea dakar. Euskaldunek foro edo batzorde bereziturik ez izateak egoera hau larriagotu besterik ez du egiten.

57. taula: Erabakiguneak

Erabakiguneak	Irakasleak	Euskald.
Zuzendaritza	5	%20
KPB	18	%22/27
Irakasleak	109	%40

Zuzendaritzan 5 kide dira eta haietako bakarra euskalduna, %20a beraz. Bestetik, KPBaren osaketan, Departamentu Buruek (16 dira, horietatik 4 euskaldunak) eta Zuzendaritzak osatzen dute (normalean zuzendaritzako bi kide, ikasketa buru bat eta Zuzendaria): 18 kide eta 4 edo 5 euskaldun. Ez Departamentu Buruekin ezta Zuzendari edo Altxor-zainaren postuekin ez da hizkuntz irizpiderik baliatzen, bai ordea, Ikasketa Buruekin: euskal adarreko bat eta gaztelaniazko adarreko bat izan ohi dira. Lehen esan bezala, proportzio hauek aldatuko dira.

6.3.5 Institutua eta Remontibal eskolaren arteko alderaketa

Interesgarria da Remontibal eta Institutuaren arteko ezaugarri batzuk alderatzea. D ereduko Remontibaleko ikasleak %44,5 dira eta irakasleak %45; Institutuan aldiz, ikasleak %30 eta irakasleak %35. Euskarazko lerroen pisu erlatiboaren faktoreak bi eskolen egoera ezberdina dela erakusten du, eta agian horrela irudikatu “azukre koskorra uretan bezalaxe mugitzen gara, gazteleratan blai” gogorragoa izatea batean bestean baino.

6.3.6 Zumake aldizkaria

2012an B.H.I. Lizarraldeko zenbait gurasok, ikaslek eta irakaslek Zumake aldizkaria argitaratu dute. 28 barneko orrialde izan ditu, hauetatik 20 orrialde gaztelania hutsean izan dira, 5 ele-biz (editoriala, argazki sorta duten bi orrialde, artikulua labur bat eta denbora-pasak) eta 3 euskaraz. Hortaz, orrialdeen %71 gaztelaniaz, %18 ele-biz eta %11 euskaraz.

6.4 Arieta Udal haur eskola.

Arieta Lizarrako Udalaren haur eskola da eta ele-biko hizkuntz eskaintza dauka: euskara eta gaztelania. Honetaz gain badira beste hainbat haur eskola Lizarran, haien artean euskara eskaintzen duen Lizarra Ikastolakoa.

6.4.1 Oinarrizko Datuak

Arieta haur eskola aztertzearen interesa zentzu anitzetakoa da. Batetik hizkuntza eskaintza mistoa dauka, hortaz bertan joerak ikus genitzake, bestetik entitate autonomoa da eta horrela

aparteko azterketa eskatzen du (Lizarra Ikastolako haur eskola ikastolaren datuen baitan dago).

a) Ikasleak

Euskararen eskaintza, sorreratik bertatik egin zen (2004-2005 ikasturtea). Gaur egun (2011-2012 ikasturtean) eskolan 61 haur daude, horietatik 32 euskal lerroan eta beste 31ak gaztelaniazko lerroan. Haur gehienak Lizarrakoak edo ingurune hurbilekoak dira (Aiegi, Villatuerta, Bearin, Arbeitza, Zubielki) eta bat edo beste besterik ez dira urrunagokoak. Ikasleen %20 inguru (estimazioa) du atzerritar jatorriko gurasorik.

b) Langileak

Sei hezitzaile (hiru euskaldun), arduradun bat (euskalduna) eta behar berezietarako hezitzaile bat (erdalduna) osatzen dute hezitzaileen plantilla. Hezitzaileak Lizarran bizi dira eta arduraduna Aiegin, behar berezietarako hezitzailea berriz Garesen. Irakasleriaren iraunkortasunaren inguruan, denek daramatzate 2 urte edo gehiago.

Irakasleez gain, garbiketarako bi lagun daude (bat euskalduna) eta jantokian beste bi (bi orduz, haietako bat euskalduna). Hortaz, Arieta haur eskolan lan egiten dutenen erdia euskalduna da egun (12tik 6).

c) Gurasoak

2011-2012 ikasturtean 58 familia daude. 61 haurretatik 10ek dute gurasoetako bat euskaldun eta bik bi gurasoak euskaldun dituzte.

Eskolako APYMArekin hiruhilero bi bilera egiten dira eta egoerak eskatzen badu gehiago egiten dira. Horretaz gain, hainbat jarduera antolatzen dira gurasoak eta haurrak elkarrekin egiteko, haien artean ateraldiak. Gurasoentzako hitzaldiak antolatzen dira ere.

d) Hizkuntzaren erabilera

Bi harreman mota daude hurrekin, batetik hizkuntzarekin lotutakoa (bi lerro daude, euskara eta gaztelania), eta bestetik adinarekin lotutakoa: kasu hauetan euskaldunak zein erdaldunak elkartzen dira. Gelan bereizturik badaude ere, adinagatik elkartzen dira.

Ikasleen euskararen erabilpenari jarraipena egiten zaio, bereziki “esaldi motz koiunturalak zaintzen dira” batipat: “ur gehiago nahi dut, agurrak ...”.

Klaustro mailako harremanak gaztelaniaz dira baina ateratzen den materialaren %95 estimatzen da ele-biz dela. Dokumentuak gaztelaniaz sortzen dira (hala kontsentsuatu dute) eta gero itzuli, nahiz eta dokumentu batzuk, haien tamainagatik, ez euskaratu. Eskolako telefonoan euskaraz agurtzen da.

Gurasoei zuzenduriko materiala (eskutitzak, zirkularrak, kurtso bukaerako liburuxka) elebiduna da. Bilerak orokorretan euskaraz egiten da lehenik eta gero gaztelaniaz jarraitu. Gaia luzea bada, laburpentxoak egiten da euskaraz. Antolatutako hitzaldietan (eskola arduradunak egin), agurra euskaraz egiten da, azalpena gaztelaniaz eta euskarri grafikoak elebidun (power pointa ...). Jarduerak APYMAK antolatzen ditu larunbatetan.

e) KILIKARIA aldizkaria

KILIKARIA aldizkaria haur eskolako komunitateari zuzenduriko lau orrialdetako hilabetekaria dugu, jada 77 ale aterata (2012ko ekaina bitarte), lehena 2004ko urrian izan zelarik. 2010etik 2012rako tartean 16 KILIKARIA aldizkari aztertu dira euskararen erabilpenaren aldetik, bederatzi 2010-2011 ikasturtean eta zazpi 2012-2013an. Aldizkariaren espazioaren %49,5a artikuluei zegokion eta %50,5a artikuluei elebakarrak gaztelaniaz, hortaz aldizkariaren laurdena inguru betetzen du euskarak. Aipatzeko beste datu bat, artikuluei edo espazio elebidunetan euskara aurrean jarri ohi dela.

6.4.2 Hiru eskola, hiru aldizkari, hiru filosofia

58. taula: Kilikario, Zumake eta Keinua aldizkariak

	Kilikario (16 ale) (Arieta)	Zumake (ale 1) (Institutua)	Keinu (10 ale) (Ikastola)
Euskaraz	%0	%11	%33
Ele-biz	%50	%18	%15
Gaztelaniaz	%50	%71	%52 (+laburpe)

Arieta haur eskolako aldizkaria, xumeena izanik ere (aleak lau orrialde ditu), maiztasun handienekoa dugu, ikasturtean 10 ale ateratzen dira, 40 orrialde urtean beraz; 16 ale aztertu ditugu 2010-2012 bitartean. Ikastolako aldizkaria berriz urtekaria dugu eta 30/32 orrialde aztergarri (azala, aurkibidea eta iragarkiak alde batera utzita) eta Institutuko ale bakarra dugu (2012koa) eta 28 orrialde aztergarri.

Goiz da Zumakek hartuko duen bidea ikusteko baina beste bi aldizkariak ematen duenez finkatuta dute haien hizkuntza politika. Kilikariok gaztelaniaz eta Ele-biz, orekatuta, eskaintzen ditu artikuluek. Honen irakurleak gurasoak dira nagusiki.

Keinuk berriz, elebitasuna artikuluei konkretuetarako baliatzen du eta euskara eta gaztelania erabiltzen ditu oro har; hemen gurasoak eta ikasleak ez-ezik, ikasle ohiak ere baditugu aldizkariaren irakurle-sektore nagusiak. Pentsatzekoa da beraz, Keinun irakurle euskaldun gehiago izatea Kilikarion baino eta hortik filosofia ezberdina (Arieta haur eskolako guraso gehienak erdaldunak dira, 61 haurretatik 10ek dute guraso 1 euskaldun eta 2k bi gurasoak).

6.4.3 Aurre-inskripzio datuen azterketa


Hemen egingo dugun azterketarako Lizarrako Udaleko Gizarte Zerbitzuak eskaintako "Behin-betikoko onartutako aurre-inskripzioak" aztertuko ditugu. Lehen esan bezala Lizarran eta

inguruetan hainbat haur eskola daude eta, gurasoek, aurre-matrikulazioa egiten dute haur eskola batean baino gehiagotan. Bildutako datuak bereziki interesgarriak dira Arieta delako Lizarra eta inguruko haur eskola bakarra non euskal lerroa edo gaztelania lerroa aukera daitekeen.

Bestetik, datu hauen gainean ondorioak ateratzeko tentuz ibili behar da. Batetik, izena emateko, haurrek ez dute zertan Lizarrakoak izan (inguruko herrietakoak ere badira), eta bestetik aurre-inskripzio datuak dira. Hortaz, nahia edo eskaria irudikatzen dute baina ez dute matrikulazioaren emaitza erakusten askotan, gero ikusiko dugun moduan, ez dutelako kointziditzen. Eta, amaitzeko, euskal lerroa aukeratzeak ez du zertan adierazi gero Lehen Hezkuntza hastean D eredua aukeratu denik; 2012-2013 ikasturtean adibidez, 12 haurrek D eredua hartuko dute, 8-k H.T.I. eta 10ek A edo G eredua. 15 ziren euskal lerroan, baina erdal lerrotik D eredura salto egin duenik ere bada.

Beraz, aztertuko ditugun datuok, aurre-inskripzio onartuak dira eta ez matrikulak. Hau da, ikasle batek, behin aurre-inskripzioa eginda matrikulatzen bada, hurrengo urtean berriro matrikulatzean plaza zuzenean eskuratuko luke, ez litzateke guk aztertuko ditugun datuetan agertuko ez baitu aurre-inskripzio berri bat egin beharrik. Honek, datuak oraindik gehiago aldrebestu ditzake haurrak haur eskolako bizitzan hizkuntza lerroa alda baitezake (eta hala gertatzen da, normalean gaztelaniatik euskarara pasatuz).


30. grafikoa: Arieta haur eskolan aurre-inskripzio onartuak



Ikus daitekeenez aurreneko urteetan itxaron zerrenda txikia zen, 0 eta 11 haur bitarte izan ziren itxaron zerrendan. 2008-2009 ikasturtetik 2011-2012ra baina, hazkunde nabaria ezagutu zuen itxaron zerrendak, 30 haurretik gora izan dira, baina 2012-2013 ikasturtean erorketa oso

nabaria izan da. Egoera ekonomiko kaxkarra dela eta haur gutxiago jaio dira, bestetik diru sarrerak gutxituta haur eskolak suposatzen duen inbertsioari muzin egin eta haurrak zaintzeko eta hezteko beste bideak urratu dira eta, azkenik, langabeziaren igotzeak gurasoei haurrak etxean zaintzeko denbora eman die.

31. grafikoa: 2007/2008 eta 2012/2013 ikasturteetako aurreinskripzio berri onartuak



Honako grafikoa berriz, ikus daitezke 2007-

2008 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera onartu diren aurre-inskripzioak (beraz, hemen ez daude itxaron zerrendan geratutakoak), hizkuntza lerroaren arabera sailkatuta. Haurren %42a (84 haur) euskal lerroan sartu ahal izan da eta %58a (117 haur) erdal lerroan.


Gurasoek, aurre-inskripzioa egitean aukeratu behar dute zein den bere hizkuntza lerro

lehenetsia: euskara edo gaztelania. Datu horiek ikusita, haurren %82ari errespetatu zaio egin aukera, baina ez %18ari. Hauen artean, %17arentzako (35 haur) euskara aukeratu zuten gurasoek baina gaztelania egokitu zaie eta %1ari (2 haur) alderantziz. Hortaz, nahiaren arabera sailkatu beharko bagenu eskaria, %58k euskara aukeratuko luke eta %42k gaztelania.

Honen zergatia zera da, adin tarte bakoitzeko bi modulu daudela: bi titi-haurrentzako, bi oinezkoentzako eta bi nagusientzako (2012-2013 ikasturtean baina, baliteke bost modulu soilik izatea aurre-inskripzioen beherakada dela eta). Haur tipologia bakoitzeko modulu bana hizkuntza lerro bati dagokio (Titi-haur tipologian, hala ere, bi gelak nahastu izan dira). Moduluen tamaina mugatua denez, hizkuntz lerro batek jaso dezakeen haur kopurua ere mugatua da. Euskarak eskaera handiagoa duenez, aurre-inskripzioa onartu zaion haur batek euskara eska lezake baina dagokion modulua beteta topatu; eta orduan, gaztelaniara pasa behar. Gauza bera kontrako egoera gertatuko balitz, baina nagusiki euskal hautua hartuta gaztelania hartu beharra (aurre-inskripzioan beti ere) egokitu zaio gehiengoari, 35 haurri hain zuzen ere; eta soilik bi haurri euskara hautatu beharra gaztelania lehentasun zutelarik.

Modulu hautaketaren arazoa, nagusiki Oinezkoen eta Nagusien moduluetan ematen da. 2009-2010 eta 2012-2013 bitarteko ikasturteetan, aurre-inskripzio onartuetan Titi-haurretan %4 aldatu da gaztelaniara (46tik 2 haur), Oinezkoetan %29 (56tik 16 haur) eta haur Nagusietan %37 (19tik 7 haur).

32. grafikoa: 2007/2008 eta 2012/2013 ikasturte bitarteko itxaron zerrenda + haur onartuen nahia



Taula honetan 2007-2008 eta 2012-2013 ikasturte bitartean gurasoek haien haurrentzako egin hautuak daude, itxaron zerrendan zeudenen hautua kontutan hartuz. Horrela, %57k (203 haur) euskal lerroa aukeratu du eta %43-k (156 haur) erdal lerroa.

6.5 Beinat Etxepare AEK euskaltegia

Gau-eskolak 1960ko hamarkadan osatzen hasi ziren. Garai zurrunbilotsu haietan apaizek, ikastolako irakasleek eta euskaldunek oro har eskaintzen zuten haien denbora euskara ikasteko aukera emateko. Irakasle hauek, nagusiki, haien aisialdia eskaintzen zioten euskara klaseari. Helduen euskalduntzea bultzatzeko beharra ikusita, 1982an AEK ekarri zuten Lizarrara, horrela aurreneko aldiz, helduen euskalduntzea helburu profesional zuen erakundea ezarri zen Lizarran.

6.5.1 Oinarrizko Datuak

a) Ikasleak

Azken 8 urteotako euskaltegiko matrikulak zerrendatzen dira azpiko taulan. Bertan, matrikula hauetako zenbat diren lizarratarrena eta zenbat herrietakoa zehazten da, horrekin batera lizarratarren proportzioa herriekiko daukagu. Aldi berean, eskuinaldean emakumeen eta gizonen matrikula kopurua eta emakumeen proportzioa agertzen dira.


59. taula: Euskaltegiko matrikulak. Herriak/Lizarra eta Emakumeak/Gizonak

	Matr	Lizarra	Herri	% Lizar		Emak	Gizon	%Emak
2004-2005	101	57	44	%56	2004-2005	61	40	%60
2005-2006	88	48	40	%55	2005-2006	50	38	%57
2006-2007	82	41	41	%50	2006-2007	46	36	%56
2007-2008	91	49	42	%54	2007-2008	54	37	%59
2008-2009	89	54	35	%61	2008-2009	53	36	%60
2009-2010	110	55	55	%50	2009-2010	71	39	%65
2010-2011	120	60	60	%50	2010-2011	75	45	%63
2011-2012	144	64	80	%44	2011-2012	89	55	%62
2004-2011	825	428	397	%52	2004-2011	499	326	%60


Agerikoa denez, Lizarra-Herriak banaketa nahiko orekatua dago, lizarratar gehiagoren matrikula izanik ere. Kasu honetan, herrietan bertan taldeak sortzea edo ez (2004, 2005 eta 2006 ikasturteetan Esprontzedan taldea, 2009an Villatuertan, 2010 eta 2011n Jaitzen eta Abartzuzan eta 2011n Aiegin eta Metautenen) logikoa denez baldintzatu egiten du Lizarra/herriak banaketa. Sexukako banaketan berriz, agerikoa da emakumeek ikasleen gehiengo osatzen dutela, %60.

Taula honetako datuak baliatuz, hurrengo orrialdean bi grafiko ikusi ahalko ditugu. Aurrenekoan, azken 8 urteotako matrikulen bilakaera bizilekua herrietan eta Lizarran aldagaiak baliatuz. Bigarrenean ere, azken 8 urteotako matrikulen bilakaera ikusi ahalko dugu baina ikasleen sexuaren arabera banatuta.

33. grafikoa: Euskaltegiko ikasleen matrikulak urteko; ikasleen bizilekuarekiko (Lizarra, herriak eta guztira)



34. grafikoa: Euskaltegiko ikasleen matrikulak urteko. EM: emakumeak, GZ: gizonak eta Guztira.



Ikus dezagun orain matrikulazioa baina klase tipologiaka. Horretarako, sei klase tipologia zehaztu ditugu. Batetik, ordutegiaren arabera: goizez, eguerdiz (15:00etatik 16:30era edo 17:00etara normalean, guraso taldeak) eta arratsalde-gauetz. Bestetik, autoikaskuntza+BOGA klaseak (klase pertsonalizatuak) eta herrietan ematen diren klaseak. Horietaz gain *Berezi* tipologia ere gehitu da (Erietxean eskainitako ikastaroa eta LAB sindikatuko bi kideri eskainitako trinkoa).

60. taula: Euskaltegiako matrikulak ikasgela tipologiaka

	Matr	Goiz	Eguer	Gau	Autoik	Herriak*	Berezi
2004-2005	101	0	35	39	14	13	
2005-2006	88	0	34	27	17	10	
2006-2007	82	0	19	40	14	9	
2007-2008	91	8	11	49	15	0	8**
2008-2009	89	0	27	43	19	0	
2009-2010	110	7	32	47	8	16	
2010-2011	120	0	31	54	6	29	
2011-2012	144	0	41	57	13	31	2***
2004-2011	825	15	230	356	106	108	10
2004-2011 %	%100	%2	%28	%43	%13	%13	%1

*Herriak: herrietan ematen diren klaseetako ikasleak, ez derrigorrez herrietako ikasleak

**Bereziak: 8 ikasle Ospitalean 2007-2008

***LAB-en trinkoa

Sexukako banaketa klase tipologiara eramango bagenu (eguerdiko klaseak, arratsalde-gaueko klaseak, herriak eta autoikaskuntza) honako emaitzak lortuko genituzke. Gauez matrikulatu diren ikasleen %51 emakumeak izan dira, Eguerdian matrikulatu direnen %84, Auto ikaskuntzan matrikulatutakoen %58 eta herrietako klaseetan %41.

61. taula: Hasiera mailetako ikasle kopuruak (sortzen diren ikastalde berriak)

	Matr	HM	%HM
2004-2005	101	12	%12
2005-2006	88	9	%10
2006-2007	82	18	%22
2007-2008	91	22	%24
2008-2009	89	14	%16
2009-2010	110	29	%26
2010-2011	120	41	%34
2011-2012	144	44	%31
2004-2011	825	189	%23

Euskaltegiaren osasunaren adierazle garrantzitsua dugu urtez urte Hasiera Mailan izena ematen duten ikasleen datuak. Zehaztu beharra dago, azken hiru urteotan matrikula berrien egoera alda dezakeen gertakaria izan dela euskaltegian. Batetik, 2009-2010 ikasturtean obrak egin ziren eta goitik beherako eraldaketa jasan zuen eraikinak. Sarbidea ate zaharkitu bat zenean orain erakusleihoa da, lehen 3 solairu zirenean orain 4 dira... obra urte hartan, euskaltegia lekuz aldatzeak ez du ematen ikasle


kopuruan halako aldaketa eragin zuenik baina azken bi urteotako matrikulazioan eragin positiboa izan duela ematen du. Urteak aurrera joan ahala ikusiko da eragina egonkortzen den ala ez.

Adierazgarria da azken hiru urteotako Hasiera Mailako ikasleen matrikulazio datuak. Ikasle guztien %25etik beherako izen emateak izatetik, hori erraz gaitzitzera pasatu da. 2007-2011 ikasturteetako (8 ikasturte) Hasiera Mailako ikasleen matrikula kopuru osoaren %44a azken bi ikasturteetan izan da (189tik 85). Etorkizunari begirako emaitza ona.

Bestelako datu interesgarria EGA prestakuntzarako klaseen datuak dira; hauetan guztira 65 ikasle izan dira (bost ikasturtetan sortu da EGA klasea), hau da, 2004tik 2011rako matrikula guztien %8 izan dira. EGA ikaslearen ezaugarriak gaueko ikastaldea, emakumea (%75a, 49 ikasle) eta Lizarrakoa (%63a, 41 ikasle) izatea da. Hala ere, azken bi ikasturteetan (2010-2011 eta 2011-2012) aldaketa sumatzen hasi da ikasleen bizilekuan, herrietako ikasleen kopuruak

gora egin baitu EGAn ere; hainbeste non azken ikasturtean lehendabiziko aldiz gehiengoa izan diren (6 ikasle herrietakoak eta 4 Lizarrakoak). Lehen esan dugun 1990eko hamarkadaren Estellerriaren euskalduntzearen lehen zantzuak?

35. grafikoa: Ikasleen jatorria (2004-2011)



Ikasleen jatorriari erreparatuta, 43 ikasle Euskal Herrira bizitzera etorri dira azken hamabost urteotan. Hau da, demagun 2006 ikasturtean matrikulatutako ikaslea errioxarra dela jatorriz. Nafarroara bizitzera 1991 eta gero etorri izan balitz 43 ikasle horien artean legoke, bestela ez. Bestetik, 43 horien artean 8 atzerritar jatorrikoak dira.

Bestetik, aipatu beharra dago, badela beste faktore garrantzitsu bat, taldeen ordu-modulazioa hain zuzen ere. Datuetan jasota ez badago ere, matrikula kopuruak kontutan hartzearekin batera oso garrantzitsua litzateke ikasle horiek urtean hartutako ordu modulazioa, ez baita berdin astero 10 ordu ematea edo 5 ordu.

b) Irakasleak

2011-2012 ikasturtean 7 irakasle ari dira lanean, haietako 3 Lizarran bizi dira eta 4 inguruko herrietan. Hiru irakaslek badaramate 4 urte edo gehiago eta beste 2-k bazuten aldeztu aurretik esperientzia Lizarrako euskaltegian.

Euskaltegiaren arazoetako bat izan da irakasleen jarraikortasuna, urtetik urtera maiz irakasleak aldatuz joan dira. Horrek lan gehigarria eskatzen zion euskaltegiari: irakasle berriak topatzea, hauen formazioa, tutoretza epealdia ... bereziki gogorra izan zen 2007-2008 ikasturtea non, iraileko matrikulazio kanpaina hasi aurretik, euskaltegiak bi irakasle besterik ez ziren.

62. taula: Euskaltegiako irakasleak (2002/2012)

	2002 2003	2003 2004	2004 2005	2005 2006	2006 2007	2007 2008	2008 2009	2009 2010	2010 2011	2011 2012
irakasleak	5	6	6	5	4	6	6	6	5	7
irak. berriak	2	3	2	2	1	4	2	1	0	4
aldatu %	%40	%50	%33	%40	%25	%67	%33	%17	%0	%57
berri-aritua*	0	0	1	0	0	0	0	0	0	2
formakuntza	%40	%50	%17	%40	%25	%67	%33	%17	%0	%29

*Urtetik urtera irakasleak aldatzen badira ere, haietako batzuk lehendik arituak ziren, hortaz, hauek ez dute formakuntza bereziaren edo tutorearen beharrik. Hala gertatu zen 2004 eta 2011ko ikasturteetan.

c) Ekimenak

Euskaltegiak, urtetik urtera asteburuko bi barnetegi antolatzen ditu ikasleekin. Barnetegi hauetan, klaseez gain badaude bestelako helburuak ere. Transmisio barnetegiaren helburu nagusia guraso eta haurren arteko euskarazko harremana lantzea da, hortaz, normalean

“guraso taldeek” parte hartzen dute bertan. 2012ko transmisio barnetegian 6 irakaslek, 22 ikaslek eta 28 hurrek parte hartu zuten.

Asteburuko barnetegi arruntean berriz, helburu nagusia 48 orduz euskaraz bizitzeko aukera ematea da, esperientzia hori bizitzeko aukera ematea. 2012ko asteburuko barnetegian 7 irakaslek eta 49 ikaslek parte hartu zuten. Bi barnetegiak eskolaren jardunaren barne daude (eskola orduak kontsideratzen dira).

Euskaltegiak Lizarrari begira beste hainbat ekimen antolatzen ditu edo parte hartzen du: helduen Agate Deuna, musu-truk zozketa, jaietako txosnak (Lizarrako beste hainbat elkarte eta eragilerekin batera), inauteriak, Mintzakide, kalean klaseak antolatzea...

Honekin batera, Lizarrako euskalgintzak antolatzen dituen ekimenak bultzatzea helburu, haietan parte hartzen da; horretarako, informazioa zabaltzearekin batera, kointzidituz gero, ekimenetara eskola orduan joaten da ere: diaporamak, hitzaldiak, irakurri, gozatu, oparitu kanpaina, bertso-afariak... Honekin batera, Kontseiluaren parte izanik, honek bideratutako ekimenetan ere parte hartzen du.

d) Bi urtean behin, Korrika

Korrikaren antolatzearekin batera, hainbat ekimen egiten dira Lizarrako euskalgintza eta euskaltzaleekin. Urtero errepikatu diren ekimenak ditugu nazio mailatik ekartzen den ekintza potentia, Korrika aurkezpena, umeentzako ipuin kontalariak eta antzerkiak, helduentzako ipuin kontalariak eta antzerkiak, hitzaldiak, pilota partiduak, herrietako korrika jaia, bertso-afariak, kontzertuak ... Asistentzia kalkulatzeko zaila bada ere, 40/50 lagunekoa batz bestekoa estimatzen da.

6.6 Udaleko Euskara Zerbitzua

Lizarrako Udaleko euskara zerbitzua, **4.2 Hizkuntza Politika** atalean ikusi bezala, 1989an sortu zen eta 1990eko irailetik aurrera teknikari bera izan du bere gain. Atal horretan topatuko dugu ere Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatzen duen diru kopuruaren garapena eta Udaleko beste hainbat datu baliagarri.

a) Baliabide ekonomikoen inguruan

Euskara teknikaria, haren jardunaren denboraren %50/60 Euskara Zerbitzurako lan egiten inbertitzen duela estimatzen du, itzulpenak kontutan hartuz %70 inguru litzateke. Teknikariak bere jardunaren baitan ditu ere Kultura Batzordeko eta Musika Patronatuaren Idazkaritzak.

Honek, **4.2.4 atalean** aztertutako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aurrekontuaren gainean hausnartzera eramán gaitzake. Zerbitzuaren aurrekontu osoa (Zerbitzua mantentzea + diru-sailak) Nafarroako beste Euskara Zerbitzuekin erkatzean €/biztanleko txikiena zela ikusi dugu. 2011ko aurrekontua 72.000 € inguru direla ikusirik, hortik 45.000€ Euskara Zerbitzua mantentzera bideratzen direla eta teknikariak berak estimatzen duela bere lan-jardunaren


%70a inbertitzen duela Euskara Zerbitzurako lan egiten (itzulpenak barne), argudia daiteke Euskara Zerbitzua mantentzen berez 31.500€ inguru inbertitzen direla, teknikariaren jardunaren %70a hain zuzen ere. Hortaz, pentsa genezake Lizarrako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aurrekontu osoa 58.500€ inguru direla eta ez 72.000€. Egoera, hortaz, oraindik orain, eta inbertitutako diruari begira soilik, larriagoa izango litzateke.

b) Euskara zerbitzuak diruz, lanarekin edo aholkularitzaz lagundutako ekimenak

-Antzerki eskola	-Musikaldiak
-Antzerkia Gabonetan	-Irakurzaletasun kanpaina
-Udalekuak euskaraz	-Mintzakide
-Kultura jarduerak, gazteentzat-helduentzat)	-Aldizkariak: <i>Ze Berri?</i> ...
-Helduen matrikulazio kanpainak	-Produktuen katalogoa
	-Etxepare literatura saria

Udalekuetan urtero D ereduko 20 eta 25 haur bitartek parte hartzen dute 7 egunetan. 2012ko Udalekuetarako, adibidez, 21 haurrek izan dute joateko aukera; Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailako 8 haur (Pirata Udalekua), Lehen Hezkuntzako 4 eta 5. mailako 4 haur (Xamariko Udalekua, Larraulen) eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1, 2 eta 3. mailako 9 (Sorgindua Udalekua, Zugarramurdin).

36. grafikoa: Udalekuak (2007-2011)



*2010 eta 2011. urteetan, LH 4 eta 5. mailak bakarrik. Lehen Hezkuntzako 6. maila beste kanpalekura.

Bestetik, 1994/1995 ikasturtetik 2010/2011ra arte, antzerki eskola antolatzen zen DBH eta Batxilergo ikasleekin. Urte osoan zehar antzerki teknikak lantzen ziren eta maiatza-ekaina aldera antzezlan bat prestatzen zen. 2007an 10 ikaslek parte hartu zuten, 2008an 14k, 2009an 11k eta 2010ean 12k. Urtero ere, 1995etik, Almudi kultur elkartearekin batera, antzezlan bat (euskaraz eta gaztelaniaz) eskaintzen zaie Lizarrako ikasleei. 2007an Galipotx (Golde Appel Quartet taldea), 2008an Karabas (Golde Appel Quartet), 2009an Alegiazko liburua (La Baldufa), 2010ean Ali (Txalo produkzioak) eta 2011n Goibel (Golde Apple Quartet).

6.7 Garean Euskaldunon Elkarteak

Lizarrako euskara elkarteak 2008an sortu zen *Garen, Garean Legez* lemapean (Fray Diegoren familiaren lema), ordutik hona ibilbide oparoa izan du eta hainbatek parte hartu du bertan. 2012ko datuei kasu eginez, 10 kide parte hartzailek osatzen dute Garean (barne batzordeetan parte hartu ohi dutenak, hilero batzorde bat eta lan bilerak maizago). Horretaz gain, urteak pasa ahala 12 kidek hartu izan dute proiekturen baten ardura; horrela, oso jarraikortasun handia izan dute orain arteko parte hartzaileek (gaur egun parte hartzen duten 12 lagunek bi urte edo gehiago daramate lanean). Kide hauen jatorriaz galdetuta, besteak beste, irakaskuntza, argitaletxe, aisialdi, politika, arkitektura (bat) eta itzulpengintza (bat) ditugu.

Bestetik, 60 bazkidek osatzen dute haren sarea. Hauen ekarpenak oro har bi dira: batetik ekarpen ekonomikoa egitea eta bestetik, ekitaldiak antolatzean, noizbehinkako laguntza.

Bestetik, Garean-lagunen figura ere existitzen da, egun 7 dira. Hauek, euskaldunak izan ez arren elkarteari ekarpen ekonomikoa egin nahi izan diote. Gai honen inguruan elkartearen debatea izan da eta parte hartzaile hauek handitzeko kanpaina ez egitea erabaki da oraingoz.

6.7.1 Gareanek kudeatzen edo parte hartzen duen ekimenak

63. taula: Garean. Haurrentzako jarduerak.

Ekimen izena	Jolas-Solas	Txokolipuinak
Antolatzaileak	3 (kudea + 2 begirale)	3 + ipuin kontalaria
Xede-taldea	4-7 urte	5-8 urte
"Publikoa" (saioko)	20 haur	35 haur
Maiztasuna	hilean 2, 16 urtean	hilean 1, urtean 8
Iraupena	90 min	60 min

64. taula: Garean. Heldu-gazteentzako jarduerak.

Ekimen izena	Irakurle kluba	Kultur errota	Lizarran Kantuz
Antolatzaileak	lagun 1	2 lagun	2 lagun + musikariak (1-3)
Xede-taldea	>16 urte	>16	guztiendako
"Publikoa" (saioko)	6 lagun	60 lagun	65 lagun
Maiztasuna	hilean 1, urtean 7-8	urtean 4	hilean 1, urtean 10
Iraupena	90 min	60-90 min	60 min

65. taula: Garean. Maiztasun handiko jarduerak (urtean 30-35).

Ekimen izena	Mintzakide	Bertso eskola
Antolatzaileak	2 kudeatzaile, teknikaria, sustatzaile taldea	2 lagun
Xede-taldea	>16 urte	>16
"Publikoa" (saioko)	30 lagun	10
Maiztasuna	astean 1 bildu, 30-35 urtean	astean 1, urtean 30-35
Iraupena	60 min	90 min

66. taula: Garean. Hedabideak (irratsaioa, web orria eta Kotarro aldizkaria)

Ekimen izena	Irratsaioa	Web orria	Kotarro aldizk.
Antolatzaileak	lagun 1	lagun 1	2 lagun + laguntz.
Xede-taldea	guztiendako	guztiendako	>12 urte
“Publikoa” (saioa)	-	-	700 ale banatu
Maiztasuna	astean 1, urtean 50	-	urtean 4 zenbaki
Iraupena	30 min	-	-

67. taula: Garean. Urtean behin egiten diren kanpainak.

Ekimen izena	Jaialai (jaietan)	Irakurri, Gozatu, Oparitu	D ereduaren aldeko Matr. Kanp.
Antolatzaileak	8-10 lagun	2 lagun	8 lagun
Xede-taldea	guztiendako	guztiendako	haurrak-familiak
“Publikoa” (saioa)	200 lagun	100 liburu hartzen dira	850 ikusle
Maiztasuna	urtean 1, (6 ekitaldi)	urtean 1	urtean 1
Iraupena	60 min (luza daiteke)	2 hilabete (maiatz-ekain)	60 min

6.8 Euskal Herrian Euskaraz

Lizarrako Euskal Herrian Euskaraz taldea 2011n hasi zen berrosatzen. EHE Lizarran, talde moduan 2000ko hamarkadaren lehen erdian desagertu zen eta ordutik aurrera eta 2011 bitarte presentzia txikia izan du.

2011an, Iruñeko EHE kontaktu batekin, taldea berrosatzeari ekin zitzaion eta 2012an taldea lau kidek eta laguntzaile batek osatuko dute. Urte honetan bertan lehendabiziko ekimenak antolatu dituzte ere (aurkezpena eta bertso afaria, euskalgintzako beste kideekin kontaktuak, diagnosia eta abar). Taldearen bilerak bi astean behin burutzen dira.

6.9 Bestelako eragileak

Euskalgintzako kide izan zein ez, badaude hainbat erakunde, elkarte edota eragile zeinak garrantzia berezia duten euskararen munduan. Bai haien helburuen artean euskara sustatzea dagoelako eta baita ere askotan euskaldun kopuru handiak biltzen direlako haien baitan. Azterlan honen helburua gairatzen badu ere, hemen hiru talderen ibilbidea laburki plazaratuko dugu.

Ezin aipatu gabe utzi euskararekin lotura duten zenbait erakunde. Hor daude La Bota Peña, La Bota Elkartea, Gure Geroa Elkartea, eta euskararen aldetik indar handia izan duen Gure Izkuntza Elkartea. Gazteen artean LiGA (Lizarrako Gazte Asanblada) eta Maria Vicuña Gaztelekua. Eta bestelako elkarteak, Irujo Etxea eta Mendizale elkarteak.

Bukatzeko, euskara haien jardun profesionalean txertatzeko asmoz Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzen ari diren Lizarrako hainbat entitate zerrendatu dira.

6.9.1 LiGA: Lizarrako Gazte Asanblada

Informazio iturria: gaur egungo (2012) LiGAko bi kiderekin elkarrizketa (urtetan arituak bertan).

a) Gazte Asanbladaren ibilbide historiko laburra.

LiGA, edo Lizarrako Gazte Asanblada, 1996an sortu zen eta urte horretan bertan lehendabiziko Gaztetxea okupatu zuten, ejertzitoaren kuartel ohia. Han 2002ra arte iraungo zuten, urte hartan bertatik kaleratu eta kuartela eraitsi baitzuten. Garaiak zirela eta, kuartela Lizarrako erdialdean egoteagatik edo eraikinak eskaintzen zituen aukerengatik, arrakasta handia izan zuten bai LiGAk eta bai Gaztetxeak ere.

Baina, kuartela eraitsi eta gero okupazio berri bati ekin zion LiGA-k eta gaur egunera arte (2012) iraun duen Pinupe gaztetxea sortu zuten. Honek baina, aurreko Gaztetxearen aurrean emaitza apalagoak lortu ditu. Alde batetik, eraikinak aukera gutxiago eskaintzen ditu (leku estalia txikia da, aparteko gelak ezin egitea, ingurua ere murriztua da basoz inguratua eta leku maldatsua delako...), bestetik eraikina hiriko erdigunetik urrunago dago eta azkenik ingurune soziala aldatu egin da (gazte gutxiago, Lizarratik kanpora ateratzeko ohitura-aukera gehiago, aisialdirako aukera gehiago...).

Horrekin batera, 2004an Euskal Jai Iruñako gaztetxe erreferentziala eraistean Nafarroako Gazte Asanbladek zein Gaztetxeek erreferentzialtasuna galdu zuten ere. 2005ean berriz Lizarra-Iruñea autobidea inauguratu zen, horrek erraztu zuen bai Estellerriak bai Lizarra berak Iruñara aisialdi bila joatea (2006an Lizarra-Logroño autobidea). Honekin batera gazteek urte gehiago ematen zituzten Lizarratik kanpo ikasketetan eta ezin ahaztu ere epealdi honetan intsumisioaren mugimenduaren gainbehera, okupazioak jasan duen errepresioa, ezker abertzaleko gazte erakundeek jasan dutena ...

Lehen esan bezala, 1996/2002 bitartean LiGAk eta gaztetxeak izan zuten erreferentzialtasun puntu bat galdu bada ere haien hausnarketa honakoa da: bi arrazoik ematen ziotela mugimendu honi indarra, kontzientziazioak eta aisialdirako aukera askeak. Gaztetxe berriarekin aisialdirako aukerak murriztu ziren, eta aldi berean beste aisialdi molde batzuk indartu ziren. Kontzientziazioaren aldeak ere jasan zituen zailtasunak (intsumisioaren indar galtzea, errepresioa, erreferentzialtasun falta...) baina lehengora itzultzen ari denaren irudipena dago.

b) Gaur egun. 2012.

Bai gaztetxea bai LiGA batzarre komun baten bitartez kudeatzen dira. Batzar hauek astero ospatzen dira. Parte hartzearen aldetik, gazte finkoak edo batzarretako parte hartzaileak 15 inguru dira; tarteka parte hartzen dutenak, ekimenetan laguntzen edota bideratzen dituztenak beste 25 bat dira. Beraz, guztira 40 pertsona inguruk parte hartzen dute konpromisoak hartuz.

Hauetatik 35 euskaldunak dira (eta batzarretan 12). Oro har, euskararen erabilpen handiagoa dute neskek mutilek baino. Gaztetxeko kide gehienak 22 eta 25 urte bitartekoak badira ere, 15 urtetatik aitzina topa ditzakegu bertan.

Bi gazteekin egin elkarrizketan euskararen inguruan agertutako erantzunak interesgarriak dira bertan plazaratzeko: “euskalduna ez den norbait badago ez da bidezkoa. Asanblada toki bat da non ongi ulertu behar den eta parte hartu behar den”, “joe, ez ditugu marjinatu [erdalduna] behar. Haiek ez dute eskatzen gaztelaniaz egiteko, guk geuk esaten dugu: eh, aizu, que est@ no entiende! ... bueno baina -jeh, tradúcame!- bai esaten dela, eta hori rollo bat da. Itzultzen egon beharra”, “kontraesana, kalean maiz ez dugu euskaraz egiten eta asanbladan bai?”, “ohartu ginen saiatu beharko genukeela euskaraz hitz egiten”.

Ekimenen aldetik, egunerokotasunetik at hiru jarduera mota daude. Batetik astero antolatzen direnak (astero bi ekimen eta bi astean behin auzolana), bestetik hilero antolatzen direnak eta azkenik urtean zehar egiten diren ekimen bereziak. Hauen artean ditugu urteurrenak (bi edo hiru aste irauten dutenak), kontsumismoaren kontrako gabonetako bi asteak, inauteri herrikoiak, jaietako txosnak ... eta udan, astero eta hilero jarduera gehiago antolatzen dira eguraldi hobea, egun luzeagoak eta gazte gehiago dagoelako. Euskara hutsezko jarduerak “ez dira asko”.

Galdetuta ea zenbateko erakargarritasun ahalmena zuen Gaztetxeak honen ekimenetan, ostiralero 30 pertsona inguru eta urtean zehar 500 pertsona ezberdin.

c) Ondorioak

Tamaina esanguratsua duen oso talde aktiboa eta gaztea osatzen dute. Lizarrako azpitaldeen artean, gazteak orokorrean euskara ezagutzen bigarrenak ditugu haurren atzetik; erabilpenean baina emaitzak kaxkarragoak dira. Gazte Asanbladaren kasu konkretuan, euskara ezagutza aldetik emaitza oso onak dituen taldea bada ere (%80-k baino gehiagok dakite euskaraz), erabilpen aldetik maila askozaz apalagoan dago.


Gazteak lehentasunezko helburu izanik, eta LiGA-k Lizarrako gazte askoren artean duen eragina kontutan hartuz; LiGArekin elkarlana bultzatu beharko litzateke eta haiekin jarrerak eta ezagutza-baliabideak jorratu.

d) Gaztetxeko bloga, euskararen erabilera^{lv}

Pinupe Gaztetxeak, bere ohiko jardunaren baitan blog bat kudeatzen du; berau, LiGA-k zein bestelako eragileek erabiltzen dute informazioa zabaltzeko. Blogaren euskararen erabilera neurtzeko 2010 eta 2011 urteak osorik eta 2012ko uztailaren 15era artean, webguneko orrialde nagusiko albisteen “azalen” hizkuntza erabilera neurtu da. Albiste hauek, esteka bat edo gehiago zutenean, ez dira estekak jarraitu; hortaz, soilik blogaren azalean agertzen zen informazioa aztertu da. Garrantzia berezia eman zaio albisteen izenburuaren hizkuntzari.


Euskararen erabilera neurtzeko lau maila kontutan hartu dira. Albistea *Euskaraz* bazen, albistea euskara hutsez (edo ia) idatzia zegoen; albistea *Elebiz* (*euskara lehentasuna*) bazen, informazioa bi hizkuntzatan ematen baldin bazen ere euskara lehenesten zen (euskarazko informazioa aurretik, euskara-gaztelania testuaren luzera antzekoa ...); albistea *Elebiz* bazen, edo ezin izan da erabaki euskarak lehentasuna zuenik edo gaztelania nagusitzen zen albistean; bukatzeko, albistea *Gaztelaniaz* baldin bazen, albistearen gehiena edo osorik gaztelaniaz idatzirik zegoen. Amaitzeko, kontutan hartu behar da ez dela albisteen luzera, gaia, ezta hauek Gaztetxearen komunitatean izan dezaketen interesa kontutan hartu.

37. grafikoa: Gaztetxeko blogeko hizkuntzaren erabilera hormako albisteetan



Ikusi ahal denez, 2010etik 2012ra bitarte, euskaraz idatzi diren albisteek etengabeko gorakada izan dute (%15,9tik %51,2ra), elebiz idatzi direnak euskarari lehentasuna emanez aldiz, etengabeko beherakada (%58,9tik %36,6ra). Gaztelaniari lehentasuna ematen zioten beste bi mailek ere beherakada izan dute, *Elebiz* (%15,9tik %9,8ra) eta *Gaztelaniaz* (%9,3tik %2,4ra).

38. grafikoa: 2010, 2011 eta 2012ko uztaila bitarteko albisteen hizkuntza



Bestetik, 2010ean 107 albiste aztertu dira, 2011n 94 eta 2012ko uztailera bitarte 41; 242 albiste osotara.

Azken bi urte eta erdiko euskararen erabilera ondoko grafikoan ikus dezakegu. Oro har, blogeko hormako albisteak elebiz idatzi izan dira (%51,7 euskarari lehentasuna emanez, %12,4 ez).

Laurdena inguru euskara hutsez edo ia idatzi dira eta %8,3a gaztelania hutsez edo ia. Honekin batera, aurreko taulan ikus daitekeen moduan, epealdi honetako joera euskararen erabilera handitzea izan da.

Idatzizko erabilerak, ahozkoak baino emaitza hobeak izan dituela ematen du.

6.9.2 Gure Izkuntza elkarte

Lizarran hainbat elkarte daude euskararenganako atxikimendua adierazten dutenak, hori dela eta interesgarria izanen litzateke hauen errealitatea ezagutzea Lizarrako euskalgintzarekiko ezinbesteko periferia osa baitezakete. Hauen artean ditugu Gure Geroa Elkarte, La Bota Peña, La Bota Elkarte edota hemen aztertuko dugun Gure Izkuntza Elkarte. Honako hau, Lizarrako euskalgintzaren parte izan dela esan genezake; gaur egun ere, neurri batean bada ere, izanik.

a) Ibilbidea

Gure Izkuntza elkarte 1978ko otsailaren 3an sortu zen Lizarrako gau eskolan euskara ikasten ari ziren hainbat lagunekin. Euskara ikasteaz gain euskaraz hitz egiteko guneak behar zirela ohartuta ekin zioten elkartearen sortzeari. Kide sortzaileak 31 izan ziren eta ondoko bost helburuekin sortu zuten elkarte:


68. taula: Gure Izkuntza elkarteko helburuak

Euskal kultura sustatzea, hitzaldi, mintegi, txango, erakusketa eta liburutegi zerbitzuaren bidez.
Eskola garaian dauden haurrekin, kirola sustatzea.
Bazkide ororen aisialdia ahalbidetzea.
Herrian antolaturiko ongintzazko egintzetan parte hartzea.
Biltzeko esparrua mantentzea, elkartearen zilegizko hedapena zein bazkideen aisialdia ahalbidetzeko eta elkartearen helburu sozialak erdiesteko.

Nahiz eta estatutuetan jasota ez egon (garaiko zailtasunak eta beldurrak direla eta), praxian kide izateko baldintza nagusi bat zegoen: euskalduna izan edo euskalduntze bidean izatea, praktikan honek suposatzen zuen euskaltegia izena emanda egotea.

Hasierako garai haiek gartsuak izan ziren, gau-eskolak, lokala lortzeko borroka (1978/06/03), Aizkolarien Nafarroako Txapelketa (1980/04/20) gogoangarria, ETB Lizarraldean ikusteko lanak (ETB 1982an sortu zen, Iruñerrian 1986an ikusten hasi zen eta hortik Nafarroako beste eskualdeetara zabaltzen joan zen), ETB Lizarraldean ikusi bitartean Gipuzkoako laguntzaileekin teleaio eta filmen grabazioa egiten zen eta Ikastolako haurrekin konpartitzen (asteburuetan helduekin) ... hamaika ekimen bertan jaio edo bertako laguntzarekin bideratu ziren garai haietan.

Honen lekuko 25. urteurrena ospatzean egindako ekintza kulturalen zerrenda osatu gabea, 39 grafikoa: Gure Izkuntza elkarteko ekintza kulturalak



1980. urtean 22 ekintza antolatu ziren, 1981/1991 bitartean 18, 1997 eta 1998an 5, eta 2001/2003 bitartean 4. Lehenik eta behin aipatzea hemen ez direla zerrendatzen ekimen guztiak, batzuk ahanzturan galdu direlako, beste batzuk data konkretu batean beharrean era jarraituan egin direlako (gau eskolak, Orreaga Elkartea, Lizarrako Euskara Batzordea). Baina hala eta guztiz ere Elkartearen ekintza-osasunaren isla izan daiteke; hori hala izanik, agerikoa da

1980tik 1991ra jasandako gainbehera, lau urtetako hutsunea, 1997/1998an biziberritzeko saiakera ...

Hasierako urteetako goraldia eta gero beherakada etorri zen. Hori ala izateko, pairatutako bi arazo aipatzea merezi du; batetik, kide asko euskara ikasteko prozesuan motz gelditu ziren elkartearen lema bete gabe, eta, bestetik, militantzia bikoitza. Hau da, Gure Izkuntzan dauden asko eta asko euskalgintzako erakunderen baten partaide dira aldi berean.

b) Gaur egun

Hori dela eta, 1990eko hamarkadaren bukaeran, eta batez ere 2000ko hamarkadaren hasieran, Elkartean bazkide izateko edota parte hartzeko baldintza berriak eztabaidatu ziren: kide berrientzako, ez zen nahikoa euskara ikasteko prozesuan izatearekin, baizik eta prozesu horretan egonik ere jada erosotasunez ulertzeko edo komunikatzeko gai izatea zen betebeharrak berria. Horretaz gain, bazkide berriak topatzeko kanpaina antolatu zuten. Tentsioak tarteko, azkenean Elkarteko batzarrak euskaraz egitea lortu zen azkenik; horrek baina, urtero ospatzen diren batzarretako parte hartzean beherakada izatea ekarri zuen. Gaur egun, juntakideak 6 dira eta batzarretako asistentzia 10 ingurukoa da.

Azken urteetan Gure Izkuntzak euskarari begira urtero aurrera daramatzen ekimenak ondokoak lirateke. Batetik, Korrika Kulturalerako jarduera bat antolatzen du (2009 eta 2011n adibidez Helduentzako Ipuin Kontalaria) eta kilometroa erosten du, bestetik Bai Euskarari Ziurtagiria mantentzen du (Zerbitzua Euskaraz mailan), Mus txapelketa antolatzen eta Agate Deunan afari-askaria egin. Horretaz gain, ekimen puntualen bat ere antolatu izan du, liburu aurkezpenak edo hitzaldiren bat kasu.

Ezin aipatu gabe utzi ere azpiegitura, bilerak direla, afariak direla edo euskararekin edozein ekimen antolatzeko leku bat behar izanez gero, atak beti zabalik dituen txokoa dugula hau. Gure Izkuntzak egun, bi izate dituela esan dezakegu: elkarte gastronomikoa eta euskararen sustatzailea; denborarekin zein gailenduko den ikusteko dago oraindik.

6.9.3 Irujo Etxea Elkartea

Irujo Etxea Elkartea 2000. urtean sortu zen, eta urte horretatik bertatik hainbat ekimen antolatu ditu. Nagusiki urtean hiru izan dira, batetik Azaro Kulturalak, bigarrenik Irujo saria eta hirugarrenik aldizkaria edo urtekaria.

a) Ekimenak, helburuak


69. taula: Irujo Etxea elkarteko helburuak

Lizarran euskal kultura bultzatuz eta zabalduz elkartearen presentzia areagotu.
Lizarraldeko herri garrantzitsuetan ekitaldiak eta ekintzak egin.
Gure kulturaren alde lan egiten duten pertsonak omendu "Don Manuel Irujo" sariaren bitartez.
Euskara eta gure kulturaren alde antolatzen diren ekintzetan parte hartu.

Orain arte egindako ekimenak aztertu egingo ditugu gainera, lehenik eta behin Irujo saria. 2001 eta 2012 bitarte hamabi saridun izan dira, urtez urte zerrendatuak: Jimeno Jurio (2001), Satrustegi (2002), P.M.Etxenike (2003), Goyo Monreal (2004), Jean Harischelhar (2005), Idoia Estornes (2006), Pablo Antoñana (2007), Benito Lertxundi (2008), Juan Jose Agirre (2009), Jose Manuel Finez (2010), Iñaki Perurena (2011) eta Joxe Ulibarrena (2012). Gehienak modu batean edo bestean euskararen alde eginiko lanarengatik sarituak.

Bigarrenik Azaro Kulturalak ditugu. Ekimen honetan, 2000. urtetik hasita eta 2011 bitarte azaro guztietan hiru ekimen kultural antolatu dira, hitzaldiak batez ere. 2000 eta 2011 bitartean 36 ekimen inguru antolatu dira; denak gaztelaniaz, euskarazko sarreratxo batekin. 33 ekimenetan landutako gaia aztertuta (2005ekoak falta dira), historia izan da nagusi (Vasconia, Nafarroa, Nafarroaren Konkista...), Irujoren omenez ere izan dira, debateak (hedabideak, Elizaren "inmatrikulazioak") ... eta euskararen ingurukoak bi 2010ean, hortaz %6 inguru.

40. grafikoa: Irujo Etxea elkarteko Urtekariak (2001, 2002, 2003, 2004 eta 2012)



Azkenik *Urtekaria* dugu, urtean behin argitaratzen den aldizkari mardula. Euskararen erabilpenaren aldetik honakoa dugu (2001, 2002, 2003, 2004 eta 2012ko urtekariak bakarrik kontsultatu ahal izan ditugu): 53 artikulua gaztelaniaz (euskarazko laburpentxoak lagunduta), 11 artikulua euskaraz edo nagusiki euskaraz edo Ele-biz eta 2 frantsesez (gaztelaniazko laburpenarekin).

Aipatu beharra dago, aurreneko lau urtekarien aldean, azken urtekarian (2012koan) ahalegin

handiagoa egin dela euskararen erabilpenaren aldetik, 16 artikuluetatik 3 Ele-biz eta 1 euskaraz izan dira, %25a euskaraz/elebiz hortaz. Lehen lau urtekarietan, bataz beste, %14 izan ziren euskaraz/elebiko artikulak.

b) Ondorioak

Euskararen alde gaztelaniaz egiten duen elkarteak dugu honako hau (Irujo Etxea sarituak euskararen alde eginiko lanagatik sarituak baina urtekarian erdarazko artikulak %80tik gora dira, Azaro Kulturalako hitzaldi ia denak edo denak gaztelaniaz ...) eta lantzen diren gaiak bai Azaro Kulturaletan bai *Urtekarian*, nagusiki historiaren ingurukoak dira.

6.9.4 Bai Euskarari Ziurtagiridunak^{lvi}

Gizarte-eragileek eskatuta, 2000ko hamarkadaren hasieran, Kontseiluak *Bai Euskarari Ziurtagiria* martxan jarri zuen hainbat erakunderen laguntzarekin. Honek helburu nagusi bat zuen: arlo sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragitea. Horrela, enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatzen du *Bai Euskarari Ziurtagiriak*. Hau da, entitate baten hizkuntza-egoera zein den ziurtatzen du. Horretarako, hiru maila eskaintzen zaizkie: “Zerbitzua eta lana euskaraz”, “Zerbitzua euskaraz” eta “Bidean”.

“Bidean” maila izateak euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen aritzea suposatzen du. Aurrera egiteko, eta, beraz, “Zerbitzua euskaraz” edo “Zerbitzua eta lana euskaraz” Ziurtagiriak eskuratzeko, hainbat baldintza bete behar dira. Baldintza hauek bost irizpidetan laburbiltzen dira: Erakundeko kideen hizkuntza gaitasuna, Irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia, Kanpo harremanak, Barne harremanak eta, azkenik, Programa informatikoak. Hauen baitan, orotara, 137 item aztertzen dira.^{lvii}

Beraz, Lizarran 2011n dauden Ziurtagiridun entitateak ikusiko ditugu, eskuratu duten mailaren arabera antolatuak. Horrekin batera Tafalla ageri zaigu, Lizarrarekin antzekotasun nabariak dituelakoan:

70. taula: Bai Euskarari Ziurtagiria Lizarran, Tafallan eta Nafarroan

MAILA	LIZARRA	KOPURU LIZARRA	KOPURU TAFALLA	NAFARROA
	Kulki Kultura eta Kirola www.kulki.org	1	2	Nafarroan 345 Ziurtagiridun daude (46-k <i>lana euskaraz</i> , 134-k <i>zerbitzua</i> eta 345-ek <i>bidean</i>). Horrela, 2011ko biztanleriari so eginez gero 1.861 biztanleko entitate Ziurtagiridun bat zegoen, Tafallan 759 biztanleko Ziurtagiridun bat eta Lizarran 2.375 biztanleko ziurtagiridun bat.
	Gure Hizkuntza Elkartea	1	1	Iruñean baina, 12 Ziurtagiridun besterik ez dira agertzen zerrendatuta, hortaz 16.494 biztanleko bat.
	Ametza, Berri eta Katxetas tabernak eta La Bota Elkartea	4	12	
GUZTIRA:	-	6	15	345

7 EUSKALGINTZARI INKESTA

2012ko otsailetik ekainaren hasierara bitarte, Lizarrako hainbat euskalgintzako erakunde edo eragileri inkesta egin zaio. Aukeratutako entitateak honako hauek izan dira: EHE Lizarra, Beinat Ettxepare AEK euskaltegia, Garean Euskaldunon Elkarte, Udaleko Euskara Zerbitzua, B.H.I. Lizarraldea Institutua, Lizarra Ikastola eta Remontibal eskola. Arieta haur eskolarekin, bildu arren, ez da inkestarik egin.

7.1 Inkesta

Inkesta horretan, erakundearen ezagutzarako galdera sorta bat zegoen; eragileen dibertsitatea ikusita (eskolak, elkarteak, herri mugimenduak, Udaleko saila ...) bakoitzak galdera sorta berezitua zuen. Inkestaren lehen zati horren emaitza aurreko ataletan plazaratutako informazioaren zati bat duzue.

Inkestaren bigarren atalean galdetegi komuna egin zaie eragile guztiei. Bertan **“Zer da euskalgintza? definitu, mesedez, beti ere Lizarrari begira.”** eta **“Zeintzuek osatzen dute euskalgintza Lizarran? Euskalgintzako kide al da zure erakundea?”** galdetu zaie.

Honekin batera, haien erakundeak zein jendarte-esparrutan eragiten zuen galdetzen zitzaien. Horretarako, ongi azaltzen zen neurtu nahi zena (bai inkestan bertan idatzita bai aurrez aurreko elkarrizketetan): *“Neurtzerako garaian, kontutan hartu beti ere Lizarra dugula erreferentzia eta ez dugula neurtu nahi zenbateko arrakasta duen baizik eta inbertitutako esfortzua. Mailaketa: 0: esfortzu oso txikia, 1: esfortzu txikia, 2: nahiko esfortzu txikia, 3: esfortzua, 4: nahiko esfortzua eta 5: esfortzu handia egiten dugu.”*. Hau da, jendarte esparru batean eragiten bazen, zein neurritako saiakera edo esfortzua egiten zen horretan, ez zer nolako arrakasta zuen. Inkestatuek bete duten taula ikusteko jo **7.1 Inkesta** atal honen bukaerara.

Inkestaren atalekin bukatzeko, azken zati bat zegoen. Bertan, “Jendarte Esparruak” taularen (**7.1 Inkesta** atalaren bukaeran) kopiak zeuden eta inkesta egin behar zutenei eskatzen zitzaien identifikatu zituzten Lizarrako euskalgintzako erakundeen gainean balorazio subjektiboa egiteko, iritziak zein aurreiritziak izan.

Inkestak egiterako garaian, erakundeko kide ezagun eta beteranoekin hitzordua adostu da. Bertan ikerketaren berri eman zaie, zegokien inkesta euskarri fisiko zein digitalean pasa (hala eskatuz gero) eta inkestaren gaineko ahozko azalpenak eman ziren. Behar izan zenean zalantzak argitu ziren bai elkarrizketan baita ondoren ere; amaitzeko inkesta betetzeko epea adosten zen.

Inkestaren helburu nagusiak bost izan dira. Batetik, euskalgintza hobe ezagutu (matrikulazio datuak, irakasleak, ekimenetako “ikuslegoa”, langileen ezaugarriak ...); bigarrenik, euskalgintzako kide bakoitzak lantzen dituen jendarte-esparruak ezagutu eta hauetan egiten duten esfortzua nolazpait neurtu; hirugarrenik, identifikatzea euskalgintzako kideak zeintzuk

diren inkesta egin dutenen iritzian; laugarrenik, euskalgintzako kide bakoitzak beste euskalgintzako kideekiko duen iritzia ezagutu (zein jendarte esparrutan eragiten/zein neurritan) eta honekin euskalgintzako kideen arteko elkar ezagutza landu; bosgarrenik eta azkenik, identifikatu euskalgintzako kideen artean lan esparru komunak izan ahal direnak.

Inkesta betetzeko garaian, konfiantzazko hasierako kontaktu horiek bideratu behar zuten parte hartzen zuten euskalgintzako taldearen barnean nola egin inkesta. Oro har, datu jasotze hutsa zena erakundean aditua zen kideren batek egiten zuen; eta euskalgintzaren definizioa Lizarran eta jendarte esparruen (bere erakundekoak izan zein euskalgintzako beste erakundeona izan) gaineke galdetegia kontaktuak berak edo hainbat kide arituren laguntzaz betetzen zuten.

71. taula: Eragileei pasatako "Jendarte Esparruak" inkesta.

JENDARTE ESPARRUAK	Eragiten?	Zein neurritan?*
0-3 haurren hezkuntza	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
3-12 haurren hezkuntza	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
12-16 gazteen hezkuntza	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
16-18 gazteen hezkuntza	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Helduen euskalduntze eta alfabetatzean	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
3-12 haurren kaleko-aisialdian	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
12-16 gazteen kaleko-aisialdian	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Helduen aisialdian	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Hizkuntz eskubideak jendarteratzean	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Euskararenganako iritzi publikoan	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Udalaren hizkuntza politikan	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Nafarroako hizkuntza politikan	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Bertze Erakundearen hizkuntza politikan	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Gure erakundeko kideen euskararenganako jarreran (irakasleak, garbitzaileak, kideak ...)	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Gure erakundeko erabiltzaileen euskararenganako jarreran (ikuslegoa, ikasleak, gurasoak, publikoa...)	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
Gure erakundearekin harremanetan dauden euskararenganako jarreran (kanpoko zerbitzuak, kontratuak, banketxea ...)	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5
	Bai - Ez	0 - 1 - 2 - 3 - 4 - 5

* Neurtzerako garaian, kontutuan hartu beti ere Lizarra dugula erreferentzia eta **ez dugula neurtu nahi zenbateko arrakasta duen baizik eta inbertitutako esfortzua**. Mailaketa: 0: esfortzu oso txikia, 1: esfortzu txikia, 2: nahiko esfortzu txikia, 3: esfortzua, 4: nahiko esfortzua eta 5: esfortzu handia egiten dugu.

7.2 Zer/Nor da euskalgintza Lizarran?

Inkestako “zer eta nor da euskalgintza” galderei emandako erantzunen azterketa.

7.2.1 Zer da Euskalgintza Lizarran?

Lehen esan bezala, Lizarran euskarari estuki loturik dauden zazpi erakunde eta eragileri eskatu zaie inkesta betetzeko. Bertan, “**Zer da euskalgintza? definitu, mesedez, beti ere Lizarrari begira.**” galdetzen zitzairen. Gogoratu beharra dago, inkestak urte luzez euskalgintzan eta zegokien erakundeetan aritutako kideei luzatu zaizkiela. Erakundearen izenean definizio eta iritziak emateko eskatu bazaie ere, iritzi edo definizio hauek ez dute zertan izan dagokien erakundearen iritzi ofizialak. Are gehiago talde batzuk kohesionatu edo erabat osatu gabe daudenean.

72. taula: Zer da euskalgintza Lizarran? Erantzunak.

ZER DA EUSKALGINTZA? definitu, mesedez, beti ere Lizarrari begira.
[GAREAN] Euskara bultzatzearen alde lan egiten duten erakundeak zein elkarteak.
[IKASTOLA] Lizarran, euskararen berreskurapen prozesua edo euskararen garapen osoa lor dadin eragiten duten gizarte erakundeak.
[EUSKARA TEKNIKARIA] Herri mailan euskara bultzatzearen alde horien jarduna eskaintzen duten pertsonak zein elkarteak.
[INSTITUTUA D eredua] Era konszientean euskararen normalizaziorako motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzeko ahalegina egiten duen talde edo erakundea.
[REMONTIBAL D eredua] Euskararen alde lan egiten duten guztiak.
[AEK] Euskararen alde, euskararengatik eta euskaraz lan egiten duten erakundeekosatzen dutena.
[EHE] Euskara eta euskal kultura bultzatzeko lana

Era guztietako erantzunak jaso badira ere, definizio horiek aztertzean komunean hainbat gauza dituztela ikus liteke:

73. taula: Zer da euskalgintza Lizarran? Erantzunen sailkatzea.

NORK egin	ZER egin	NOLA egin
-Taldea, (gizarte) erakunde edo elkarte (5) -Pertsona (1) -“Guztiak” (1)	-euskara (eta kultura) bultzatu (3) -euskararen alde (2) -euskararen berreskurapen prozesua/garapen osoa (1) -euskararen normalizaziorako motibazioa, ezagutza eta erabilera (1)	-lan egin, jardun (4) -euskararengatik eta euskaraz lan egin (1) -eragin (1) -sustatzeko ahalegin kontzientea (1)

Euskalgintza oro har **talde antolatu** bat da (talde, erakunde edo elkarte), **euskara bultzatu edo euskararen alde lan egiten** duena. Hala ere, interesgarria izan da bestelako erantzunetan euskalgintzako subjektu moduan “pertsona/guztiak” identifikatu izana, egin beharrekoan “euskararen berreskurapen prozesua edo normalizazioa” aipatu izana eta egiteko moduan “euskaraz” eta “ahalegin kontzientea” aipatu izana.

7.2.2 Nor da Euskalgintza Lizarran?

Aurreko ataleko galderaren osagarri, honakoa galdetzen zitzaien ere inkesta egin zuten 7 erakundeko kideei: **“Zeintzuek osatzen dute euskalgintza Lizarran? Euskalgintzako kide al da zure erakundea?”**. Erakunde bakoitzeko kideek aukeratutako euskalgintzaren partaideekin azpiko lerroetan dagoen zerrenda osatu dugu. Aukeraketa bakoitza, bozka bat. Laranja dauden erakundeek parte hartu dute inkestan:

74. taula: Nor da euskalgintza Lizarran?

ERAKUNDEA/ERAGILEA	BOZKAK
Garean	7
Euskaltegia	7
Ikastola	7
Remontibal, D eredua	6
Institutua, D eredua	6
Gure Izkuntza	4
Lizarrako EHE	3
Udaleko Euskara Zerbitzua	2
Arieta Haur eskola	2
Gaztetxea	2
La Bota Peña	2
Euskara Batzordea	1
Ikasle Abertzaleak	1
LAB	1
Norbanakoak	1

Ikus daitekeen moduan, elkarriketatuek nahiko erraz identifikatu dituzte euskalgintzako hainbat eragile: hezkuntzarekin harremana dutenak eta Garean Euskara Elkartea batipat.

Lizarrako EHE gutxiagok identifikatu izana logikoa da ere, inkesta egin bitartean hasi berriak baitziren. Udaleko Euskara Zerbitzua gutxi aukeratu izanaren arrazoiak bi zentzutan uler daiteke. Batetik, euskalgintzako kideen inguruan emandako definizioaren arabera, gehienek erakunde edo taldeak identifikatu dituzte subjektu moduan. Euskara Zerbitzua norbanako batek osatzen duenez, baliteke erakunde moduan interpretatu ez izana.

Bestetik, askotan aipatu dugun Udalaren euskararekiko jarrera nahiko kaxkarra izanik; horrek ere eragin ahal izan du Zerbitzuaren identifikazioan euskalgintzako kide moduan.

Arieta Haur eskolaren kasuan, ez zaio inkestarik pasa baina hala eta guztiz ere 2 bozka jaso ditu. Esan beharra dago, hirugarren erakunde bateko kideek ere, Arieta haur eskola Remontibalen barne jarri duela nolabait identifikatuz. Bestetik, lehen ikusi dugun Gure Izkuntza elkarteak ere aukeraketa asko jaso ditu, erdi bidean geratuz, hala nola LiGA edo Gazte Asanblada eta La Bota Peña.

7.3 Jendarte Esparruak


Jendarte esparruen inguruan, lehen esan bezala 16 galdera jarrita zeuden test moduan. Balorazioa 0 eta 5 bitartean egiteko eskatzen zitzaien non 0-k *Ez da eragiten* irudikatuko zuen. Inkestaren atal honetan bi zati zeuden, batetik erakunde bakoitzak bere burua ezagutaraztea

(hau da, bere burua definitzea jendarte-esparru esfortzuaren arabera) eta bestetik besteen gainean zuen iritzia edo aurreiritzia plazaratzea; Lizarrako euskalgintzak elkarren ezagutza duen ala ez ikusarazteko.

Lizarrako EHE ez da bertan agertzen osaketa prozesuan zegoelako, “Lizarrako diagnostikoa egiten ari gara, beraz, oraindik ez gaude inongo jendarte-esparruetan eragiten”.

7.3.1 Erakunde bakoitzak bere buruaz dioena

41. grafikoa: Jendarte esparruka, zein da erakunde bakoitzak egiten duen esfortzua.



zer: Udaleko Euskara Zerbitzua, ika: Lizarra Ikastola, ins: BHI Lizarralde, rem: Remontibal eskola, aek: Beinat Etxepare AEK euskaltegia, gar: Garean euskara elkarte

Jendarte-esparruka batz bestekoa 11,4 puntu izan dira, hau da Lizarrako 6 erakunde hauek batz beste atal bakoitzean egindako “esfortzua” (ardatza erakundea izan da eta ez da kontutan hartzen erakunde bakoitzak izan ahal duen indarra). Beraz, bi emaitza interesgarri atera ahal ditugu hemendik:

Batetik identifikatzea zein esparru ez diren ia jorratzen (bataz bestekotik behera) eta bestetik identifikatzea esparru komunak, hau da, zein esparrutan eragiten duten euskalgintzako zein taldek.

0-3 Hezkuntza, ohartu behar dugu bi erakunde ditugula esparru horretan profesionalki lanean, baina batek ez duela bozkatzetik izan (Arieta haur eskola), hortaz emaitza desitxuratua dugu hor. Bestetik, bi esparru multzo geratu dira batz bestekotik oso behera: hizkuntza politika (izan Udala, zein Nafarroa, zein bestelako Erakundeak) eta gazteen aisialdia eta hezkuntza.

Gazteen hezkuntzaren (adina, 16-18) emaitza kaxkarra inkesta bete duen Institutuko D ereduko kideak honen balorazio apalaren ondorio izan badaiteke ere, gazteen aisialdiarekin lotuko bagenu (adina, 12-16) euskalgintzak sektore horren gainean duen eragite txikia irudikatuko genuke. Nahiz eta inkestan adin tarte horiek zehaztu, pentsatzekoa da 18 urtetatik aurreragorako gazteen gaineko eragina ere ez dela hobe izango.

Hizkuntza politika dugu beste eragite edo esfortzu sektore oso apala; honek harreman zuzena du Kontseiluak egin azterketan (**4.2.1 Hizkuntza politikaren Euskal Herriko neurketa** atala) lortutako emaitzekin edo Euskarabideak eginiko inkestan suma daitezkeen ondorioekin (**5.3.5 Ondorio orokorrak** atala).

75. taula: Euskalgintzaren Jendarte Esparru komunak

JENDARTE ESPARRUAK	gar	aek	rem	ins	ika	zer
0-3 haurren hezkuntza	0	0	0	0	5	0
3-12 haurren hezkuntza	2*	0	5	0	5	3
12-16 gazteen hezkuntza	0	3	0	2	5	2
16-18 gazteen hezkuntza	0	3	0	2	0	1
Helduen euskalduntze eta alfabetatzea	4*	5	3	0	3	3
3-12 haurren kale-aisialdian	5	3	1	0	4	2
12-16 gazteen aisialdian	0	1	0	1	3	0
Helduen aisialdian	5	2	0	0	0	3
Hizkuntz eskubideak jendarteratzea	2	3	3	0	4	0
Euskararenganako iritzi publikoan	4	4	3	0	5	0
Udalaren hizkuntza politikan eragitea	0	2	3	0	0	0
Nafarroako hizkuntza politikan eragitea	0	3	3	0	0	0
Erakundearen hizkuntza politikan eragitea	0	1	3	0	0	0
Gure erakundeko kideen euskararenganako jarreraren (irakasleak, garbitzaileak, batzordekideak)	5	5	4	2	5	2
Gure erakundeko erabiltzaileen euskararenganako jarreraren (ikusleak, ikasleak...)	5	4	4	1	4	0
Gure erakundearekin harremanetan dauden euskararenganako jarreraren (gurasoak, kanpoko zerbitzuak, kontratuak, banketxea...)	5	4	1	0	3	0

Taula honi begiratzean, atalez atal sor daitezkeen zalantzaren bat edo beste kenduta, argi geratzen da eragite-interes gune komun asko daudela; elkarlanerako aukera handiak daude

beraz. Hori horrela izanik ezinbestekoa bilakatzen da, eragile guztien intereserako, hauen koordinazioa; eta, komenigarria bederen, elkarlana.

7.3.2 Erakundeek besteetaz diotena

Atal honetan euskalgintzako zenbait kidek elkarri buruz duten ezagutzaz eta aurreiritziez arituko gara. Aurreko atalean euskalgintzako kide batek egiten duen esfortzuaren nolabaiteko neurketa ikusi dugu, atal honetan ordea, gauza bera egingo dugu baina erakundeen arteko ezagutza edo aurreiritziekin.

Aurreko atalean ez bezala, aurkeztuko dugun taulan ez dira ez EHE ez Euskara Zerbitzua agertzen ez baitituzte balorazio nahiko jaso esanguratsuak izateko. Hala ere, eta nahiz eta haiek taulan ez agertu, haien besteekiko balorazioak bai kontutan hartu direla. Esan beharra dago, atalen batean erakunderen batek ez duela beste bat baloratu, ezagutza faltagatik.

Bukatzeko, ohar bat. Azken hiru “jendarte esparruak” kendu egin ditugu, zenbait taldetan ezin izan baitugu egoki baloratu emaitza. Inkestaren planteamenduan, akats bat dela medio, ez zen argi geratu nola baloratu behar zen beste erakundeen “eragina”. Azpiko taulan berdez ageri den zutabeetan kide bakoitzak bere buruaz dioena ageri da, zuriz dagoena berriz kide horren inguruan besteek haren gainean duten irudiaren batz bestekoa.

76. taula: Jendarte esparruak. Alderaketa, norberak bere buruaz vs besteek.

JENDARTE ESPARRUAK	gar	gar	aek	aek	rem	rem	ins	ins	ika	ika
0-3 haurren hezkuntza	1,5	0	0,6	0	1,0	0	0,0	0	4,7	5
3-12 haurren hezkuntza	1,2	2*	0,6	0	4,8	5	0,0	0	4,3	5
12-16 gazteen hezkuntza	0,8	0	0,6	3	0,0	0	4,3	2	4,3	5
16-18 gazteen hezkuntza	0,7	0	1,6	3	0,0	0	4,3	2	0,8	0
Helduen euskalduntze eta alfabetatzea	1,5	4*	5,0	5	1,5	3	0,0	0	1,7	3
3-12 haurren kale-aisialdian	4,7	5	0,4	3	2,8	1	0,0	0	2,2	4
12-16 gazteen aisialdian	3,0	0	1,0	1	0,0	0	1,0	1	1,8	3
Helduen aisialdian	4,3	5	3,5	2	0,4	0	0,0	0	1,0	0
Hizkuntz eskubideak jendarteratzea	2,2	2	3,8	3	1,8	3	1,3	0	1,3	4
Euskararenganako iritzi publikoan	4,0	4	4,0	4	2,8	3	2,2	0	2,8	5
Udalaren hizkuntza politikan eragitea	2,6	0	2,0	2	0,4	3	0,7	0	0,5	0
Nafarroako hizkuntza politikan eragitea	1,0	0	2,2	3	0,4	3	0,8	0	0,7	0
Erakundeen hizkuntza politikan eragitea	0,8	0	2,0	1	0,4	3	0,8	0	0,7	0
Batura	28,3	22	27,3	30	16,3	24	15,4	5	26,8	34
Aldea		-6,3		2,7		7,7		-10,4		7,2
Ehunekoak		-%28		%9		%32		-%200		%21

Hortaz, eta laburbilduz, esan genezake hobe ikusten duela euskalgintzak Garean eta Institutua haiek haien burua baino; Euskaltegia, Remontibal eta Ikastola aldiz, hobe ikusten dute haien

burua euskalgintzak haiek baino. Institutuaren egoera ere deigarria da, Institutuko kideak haren erakundeaz eginiko balorazioa eta euskalgintzako beste kideek haren gainean eginikoa arras ezberdina da.


Ondoko taulan jendarte esparru bakoitzean eragileak bere buruaz dioena eta besteek duten hari buruzko irudiaren arteko aldea adierazten da. Kolore gorrixkaz markatutako espazioek alde oso handia adieraziko lukete (3,0 eta 3,5 bitarteko aldea), haragi kolorekoek berriz alde handia (2,0 eta 2,9 bitarteko aldea) eta arrosa kolorekoek alde adierazgarria (1,0 eta 1,9 artekoa).

77. taula: Erakundeen elkarren arteko ezagutza edo balorazioaren arteko aldea.

JENDARTE ESPARRUAK	gar	aek	rem	ins	ika
0-3 haurren hezkuntza	1,5	0,6	1,0	0,0	0,3
3-12 haurren hezkuntza	0,8	0,6	0,2	0,0	0,7
12-16 gazteen hezkuntza	0,8	2,4	0,0	2,3	0,7
16-18 gazteen hezkuntza	0,7	1,4	0,0	2,3	0,8
Helduen euskalduntze eta alfabetatzea	3,5	0,0	1,5	0,0	1,3
3-12 haurren kale-aisialdian	0,3	2,6	1,8	0,0	1,8
12-16 gazteen aisialdian	3,0	0,0	0,0	0,0	1,2
Helduen aisialdian	0,7	1,5	0,4	0,0	1,0
Hizkuntz eskubideak jendarteratzea	0,2	0,8	1,2	1,3	2,7
Euskararenganako iritzi publikoan	0,0	0,0	0,2	2,2	2,2
Udalaren hizkuntza politikan eragitea	2,6	0,0	2,6	0,7	0,5
Nafarroako hizkuntza politikan eragitea	1,0	0,7	2,6	0,8	0,7
Erakundeen hizkuntza politikan eragitea	0,8	1,0	2,6	0,8	0,7
EZEZAGUTZA BATURA	15,9	11,6	14,1	10,4	14,6
EZEZAGUTZA BATAZ BESTE	1,2	0,9	1,1	0,8	1,1

Ezezagutza baturari begiratuz gero, erakunderik ezezagunenak Garean, Ikastola eta Remontibal direla ematen du. Bestetik, ezagutza maila baloratzeko 65 adierazle ditugu; hauetako 2tan oso ezezagutza maila altua agertu da (hau da, oso balorazio ezberdina egin dute jatorrizko erakundeak eta besteek), 11tan ezezagutza maila altua eta 14tan ezezagutza maila adierazgarria.

42. grafikoa: Euskalgintzaren elkar ezagutza



Inkestaren atal honen helburuetako bat izan da euskalgintzako kideek besteetaz zuten iritzia neurtzea, horrela “errealitatearekin” alderatzeko aukera emanez (norberak bere buruaz dioena) eta ondorioz elkarren artean dagoen ezagutza edo ezezagutza azaleraziz. Jorratu diren alorren %42an ezezagutza maila adierazgarriak topatu izanak arazo baten sintoma ematen du; etorkizuneko lana litzateke ezezagutza horren jatorria aztertzea eta berau txikitzea.

IV – DIAGNOSTIKOAN OINARRITUZ HAUSNARKETA

1. ARAZOAK

lkerketa honetan, orain arte Lizarrako euskal komunitatearen jatorria, egungo egoera eta eragile edo erakunderik ustez esanguratsuenak aztertu ditugu. Lizarra euskalduna ezagutzeko bide honetan arazo baten edo gehiagoren hainbat sintoma topatu ditugu. Atal honetan, arazo horien sintomak aipatu eta ondoren atzetik izan ahal den arazoa deskribatzen saiatuko gara.

1.1. Sintomak

Sintomen artean hiru urtetako haurren eskolatzeta dugu esanguratsuenetako bat. 2001-2011 bitartean 3 urterekin Lizarrako eskolatan D ereduan izena ematen duten haurren ehunekoa 15 puntu erori da. Euskarazko murgiltze eredueta izena ematen duten haurren kopurua mantendu bada ere, haur kopuru osoa handitu denez murgiltze ereduak suposatzen duen ehunekoa asko jaitsi da.

Kontutan hartzeko beste datu bat dugu kultura ezberdinetako haur eta gazteen eskolatzeta euskarazko murgiltze ereduan. Remontibal eskolan haurren %1,2ak besterik ez du kultura ezberdineko gurasorik, Ikastolako 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011ko hiru urtetako haurren matrikulazioan %6,6 izan dira, eta Institutuan, 2011-2012 ikasturtean %0. Sozio-ekonomia atalean aipatu dugun bezala, Lizarrako biztanleriaren %11 inguru zen atzerritar jatorrikoa 2011ko Lizarrako erroldan. Biztanleria honen ezaugarrien artean dago gazte izatea, eta hortaz, haurrak izateko adinean izatea. Gauza bera gertatzen da euskaltegiko matrikulazioetan, atzerritar jatorrikoak %1 besterik ez dira. Ematen duenez, Lizarrako euskal munduak ez du beste kulturetako jende asko erakartzen.

Beste sintoma bat dugu Udaleko egoera. Euskara Zerbitzua lortzen lehenetarikoa izan bazen ere (1989), euskararen inguruko araudiarekin ez da gauza bera gertatu. 1995etik 2012ra bitartean *eremu mistoan* kokaturik dauden 15 udalerrri handien artean (2.000 biztanlelik gorako guztiak) hamahiruk Euskararen Ordenantza indarrean jarri zuten. Lizarra ez dago horien artean.

Bestalde, Udalarekin jarraituz, gutxieneko plangintza bat aurrera eramanez ahal izateko ez daude beharrezko diru eta bestelako baliabideak. Lizarrako Udala, Nafarroan Euskara Zerbitzua duten Udalerrien artean, biztanleko gutxien inbertitzen duen udalerria da. Bestetik, euskararen ezagutzaren aldetik, Lizarrako Udaletxeko bulegoetako langile euskaldunak %12 dira (eta zer edo zer dakitenak beste %12), hau da, Lizarrak egun duen euskara ezagutza ehunekoaren azpitik ere badago.

Aurrekoarekin harreman zuzena du hiritarrek hautatutako “zinegotzien” %10 ere izan ez izana euskaldun 1991 eta 2011 bitarteko sei legegintzaldietan, edo alkate euskaldunik ez egotea. Bereziki aipagarriak dira bi legegintzaldi non ez den zinegotzi euskaldunik izan.

Horretaz gain, azterketa honetan hutsune handi bat dago, ikerketa kualitatiboen falta; eta bereziki, jendearen euskararenganako jarreraren gainekoak. Bide horretatik, 2008an Nafarroako Gobernuak egindako inkestak gai honetan emaitza interesgarriak ematen ditu. Inkestaren fidagarritasuna ezbaian jarri arren, antzeko beste eskualdeekin (Iruñerria eta Ekialdeko Nafarroa) alderatuta Estellerriko datuek joera egonkor bat markatzen dute: euskararen aldekotasunean antzeko emaitzak (batzuetan hobeak besteetan ez) baina kontrakotasunean mugako jarrera markatuagoak.

Bestetik, eta euskalgintzarekin egindako inkestetan, euskalgintzak berak hainbat bete gabeko jendarte esparru azaleratu dira: hizkuntza politika eta gazteak nagusiki. Hizkuntza politikan eragite ezak eragin ahal izan du, adibidez, Udalean topatu dugun egoeran.

Azkenik, euskalgintzaren artean elkar ezezagutza edo haien lanaren balorazio ezberdinen maila adierazgarriak (jorratutako adierazleen %42an) agertu zaizkigu ere. Elkarlanerako aukerak handiak izanik (ikusi **7.3.1 Erakunde bakoitzak bere buruaz dioena** atala adibidez), elkar ezezagutza nahikorik ez izateak elkarlan edo koordinazio horren falta agerian uzten du.

1.2. Krisia

Bereziki esanguratsua izan zen 2011/2012ko ikasturteko aurre-matrikulazioan gertatua; Haur Hezkuntzako lehen mailan D ereduan azken hamarkadan eman den bigarren aurre-matrikulazio kopururik handiena izan zen. 93 haur matrikulatu ziren Remontibalen eta Ikastolan; 2005ean bakarrik izan zen kopuru handiagoa, eta ozta-ozta, 94 haur.


Lizarra Ikastolak 59 aurre-matrikulazio izan zituen, eta paradoxikoki arrakasta honek arazoak sortu zizkion; gehienera jota 54 haur artatu baititzake eskolak. Remontibalen ere D ereduko bi gela sortu ziren 30 ikasletik gora izan baitzituen.

Hasiera batean, pozik izateko moduko datuak direla ematen du, baina lehen ikusi dugun bezala hamarkadako daturik kaxkarrenak ziren. Nola liteke Ikastola eta Remontibal pozik egoteko arrazoiak izatea eta aldi berean euskaltzaleak, ohartu izan bagina, kezkatzeko moduko egoeran izatea? Bestetik, gauza jakina zen Lizarrako Udalean euskararen egoera ez zela xamurra, baina, jabetzen al zen egoeraren larriaz? Eta honek duen eraginaz? Erakundeen garrantziaz eta ezinbestekotasunaz jakitun izanik ere, ba al dugu Lizarra euskaldunak iritzi propiorik?

Euskalgintzaren aktore gehienak ditugu Lizarran, eta haiek hainbat eremu betetzen dituzte, haur, gazte zein helduen hezkuntza kasu. Beste eremu batzuk baina ez dira aski betetzen, adibidez euskalgintzari egin inkestan argi geratu da Gazteen Kale Aisialdia, 16-18 Gazteen Hezkuntza eta Hizkuntza Politikak adibidez Euskalgintzako kideek jendarte esparruei eskaintzen dioten esfortzuaren batz bestekotik nahiko behera daudela (batz bestekoa 11,4 puntu bada, hauek 4 eta 6 puntu bitartean daude).

Bestalde, konpartitzen diren esparruetan ere, komunikazio falta dago. Hezkuntza aldetik, ez dago euskarazko murgiltze ereduaren aldeko kanpaina bateraturik, 2011ra arte Olentzeroren kalejiran ezin izan da elkarrekin atera eta abar.

43. grafikoa: Euskalgintzako erakundeen “harreman hodeia”




Ondoko diagraman ikus ditzakegu Lizarrako hainbat erakunde edo eragile oinarritzko bi aldagairen inguruan: “Haurren eskolatzea D eredu” eta “Helduek euskaldundu nahi”. Bertan, norberak eragiten edo eskaintzen duena eta jasotzen duena, modu oso arinean jarria eta ziurrenik ez era osatuan (*diagraman dagoena, bada, baina ez da den guztia*).

Diagramaren helburua zera da, irudikatzea erakunde bakoitzaren oinarritzko helburuen baitan egiten dena, euskalgintzari eta euskal komunitateari eragiten diola. Ekinbideak modu isolatuan egiteak, koordinaziorik gabe egiteak eta plangintza estrategiko baten baitan ez egiteak ez ditu ekinbide edo ahalegin horiek baliogabetzen. Bai, ordea, indarra kentzen diela eta ez duela ahalbidetzen izan dezaketen potentzial osoa garatzea.

Erakundeetaz aritu gara, eta hauek dituzten lehentasunak argiak eta beharrezkoak dira, baina, Estellerriko gurasoek euskarazko murgiltze eredu hautatzea haien seme-alabentzako zeinen arrakasta behar du? Eskolena huts-hutsean? Eta helduen euskalduntzea? AEKrena soilik? Eta haurren eskolaz kanpoko aisialdia? Edo helduen aisialdia? Barneratu beharko genuke eremu edo esparru baten lantzeak besteetan eragina baduela.

Kale Aisialdiaren sektorean harreman estuagoa badago ere, hala eta guztiz ere koordinazio falta nabaria da. Horrela, ekimen bateratuak izan ahal zirenak ez dira izan (bertso-afaria eta ikasturte bukaerako afaria), besteetan, ekimen bateratuak ezin zirenean izan egun berean antolatu dira (Gareanen helduentzako ekitaldi kulturala eta euskaltegiko irteeraldia; edo, Euskara Zerbitzuak ekarritako dokumental baten emanaldia eta Gaztetxeak antolatutako hitzaldi bat), edo zuzenean ekimen baten berri ez ematea. Adibide hauek hiru hilabeteren bueltan suertatu dira, 2012ko maiatzaren erdialdetik ekainaren hasierara bitartean; baina deskoordinazioaren eredu izan daitezke.

Laburbilduz eta modu grafiko batean azaltzeko, Lizarrako egoera hurrengo orrialdean dagoen irudiko “A” egoerarekin egingo luke bat. Bertan, euskara bultzatzen duten eragile eta indarrek modu nolabait kaotikoan eragiten dute, eta ahaleginen esfortzuak xahutzen dira emaitza mugatuak lortuz. “B” egoeran aldiz, eragile eta indar ezberdinek norantza berean jotzea lortuko lukete eta horrela helburua izan ahal dugun euskararen normalizazioan eragina biderkatu.

44. grafikoa: Indarren direkzionamendua. Plangintzaren kausa eta efektua^{lviii}

J. Inazio Markoren hitzetan “Interbentzio planifikatu bat motibatuko duen faktorea izango da kontingentzia arrotzei aurre hartu eta errealitate propioaren norabidea gidatu nahi izatea. Testuinguru horretan eragiletzak aktibatu egiten dira, indarren direkzionamendua antolatzeko eta eragin-ahalmena garatzeko. Eta hor gorpuzten da eskuartze estrategikoa, eragiletza horren ondorio gisa eta, aldi berean, eragiletza horren motore gisa.”^{lix}

Euskararen normalizazioak Lizarrarako “errealitate propioa” irudikatzeko balio ahal digu, eraldaketa hori lortzeko era askotako kontingentzia arrotzak ditugu eta hauei aurre egiteko eragiletzak aktibatu behar dira “indarren direkzionamendua” antolatzeko “eragile-ahalmena” handituz. Eskuartze estrategiko hori, eragiletzaren ondorio eta motore izango dugu.

Aldaketaren “abiapuntuan zirkunstantziei eta krisiari aurre egin nahi dion jarrera proaktiboa dago” eta “helmugan etorkizunaren irudikapen bat”. J. Inazio Marko irakaslearen hitzak probestuz, etorkizunerako tresna eta motore izango den elkarlana abiatzea proposatzen da lan honetan.

2. FASE BERRIRAKO HAUSNARKETA: Biziberritzetik Indarberritzera

2.1 Gaur egungo esfortzua


Lizarran euskaraz gaur egun egiten den lana nolabait baloratzen saiatuko gara puntu honetan. Horretarako, bi talde osatuko ditugu, batetik haurrak edo gazteak (0 eta 18 urte bitartean) eta bestalde gazteak edo helduak (18 urtetik aurrera). Ariketaren helburua bi adin talde horietan egiten den esfortzua erkatzea da, ea desproporziorik dagoen eta hala bada horren neurketaren hurbilpen bat egin. Horretarako hurrengo datuak kontuan hartu dira, denak 2011-2012 ikasturteari begira:

0-18 adin bitartean, Ikastolako ikasleak (689), Arietako euskarazko lerroko ikasleak (31), Remontibal eskolako D ereduko ikasleak (337) eta Institutuko D ereduko ikasleak (269) ditugu. Sinplifikatzearren, haur-gazte bakoitzak urtean eskolan 800 ordu euskaraz ematen dituela baloratu da (baita 0-2 haurrak ere). Bestetik, Euskara Zerbitzuak antolatutako Udalekuetako partaideak (21 haur, 7 egunez), Gareanek antolatzen dituen ekimenetako haur kopurua eta euskaltegiko asteburuko transmisio barnetegia (30 haur inguru bi egunez) kontutan hartuko ditugu.

Helduen artean berriz, Ikastolako irakasle eta hezitzaileak (50), Ikastolako langile euskaldunak (13, sukalde eta garbiketa kontutan hartu gabe erdaldun asko daudelako), Arietako hezitzaile euskaldunak (4), Remontibal eskolako D ereduko irakasleak (32), Institutuko D ereduko irakasleak (39), Euskaltegiko irakasleak (7) eta Euskara Teknikaria (1). Sinplifikatzearren, bakoitzari urtean 1.800 lanordu onartu zaizkio euskaraz lanean. Horretaz gain, Gareanen hileroko batzarretako partaideak (12), euskaltegiko asteburuko bi barnetegiak (84) eta euskaltegiko ikasleak (144) kontutan hartu ditugu, azken hauei urtean zehar bataz besteko 200 ordu onartu dizkiegu. Amaitzeko Gareanen ekimenen partaideak ere kontutan hartu ditugu.

Ikusi ahal denez, inondik inora ere ez da zehatza egindako estimazioa, baina hurbilpen moduan erabiltzeko balekoa delakoan, ondoko taulan ageri den emaitza eman digu.

45. grafikoa: Euskaraz, era antolatuan, inbertitzen diren orduak.



Honen arabera, Haur-gazteen artean, euskaraz era antolatuan ematen duten orduen %99,6a klasean emandako orduak lirateke; helduen artean berriz, pixka bat banatuagoa izango litzateke: %88,3a lanean euskaraz eta %9,7 (%10,6 euskaltegiko barnetegiak gehituko bagenitu) euskaltegiko ikasleak. Hala eta guztiz ere, ohartu inbertitzen diren orduen %2,7 besterik ez liratekeela.

2.2. Indarberritzea lehentasun.

Orain artean, euskal komunitatearen biziberritzea izan dugu lehentasun; haur eta gazteak helburu, hiztun komunitate berria sortzeko itxaropena nagusiki hezkuntzaren ardurapean utzi dugu. Lizarrako errealitatea baina, lehen gau eskolak eta Ikastola sortu zirenetik, zorionez, erabat aldatu egin da. 2001eko erroldari erreparatuta, 50 urtetik gorako 115 biztanlek dute euskaraz ongi mintzatzeko gaitasuna (adin tarte horretan, %2,6), 35-49 adin tartean 164-k (%5,7), 31-34 adin tartean jada 86 ditugu (%8,6) baina hazkundera zeharo handituko da 20-29 adin tartean 364 gazterekin (%18,2). Haurrak, nerabeak eta gazteenak kontutan hartuko bagenitu, 5-19 adin tartean 576 lirateke (%31,8).

2001ean fase berri baten hastapenak ezagutzen ari baldin baginen, 2012an, hastapenak baino, Lizarrako jendartea fase berri batean bete betean dagoela esan genezake. Lehen aipatutako kopuru horiekin hamar urte aurrera eginez, eta nahiz eta etorkinen biztanleria berriak eragingo zuen euskal komunitateak adin tarte bakoitzean duen pisu erlatiboan, ezin uka jada euskaraz mintzatzeko gai diren kopuru esanguratsuak ditugula adin tarte zabalean (3 eta 40 urte bitarte).


Orain arte egindako indarberritze saioetan, euskal komunitatearen trinkotzerako zailtasun agerikoa izan da biztanleria euskaldunaren pisu txikia; hori baina, aldatzen ari da eta jada %10 eta %20 bitarteko pisua dauka 30 urtetik 40 urtera bitartean euskaraz hitz egiteko gai den komunitateak; 20 urtetik 30 urtera %20 eta %30 bitartekoa izango da. Honi, gehituz euskara ezagutza maila ezberdinak dituzten lagunak, 40 urteko euskalduntze honetan fase aldaketa aldarrika dezakegu.

Baina, aurreko zenbakiak euskara erabiltzeko gaitasuna adieraz baldin badezakete ere, zer gertatzen da honen erabilpenarekin? Zein da euskaldunon komunitatearen egoera? Fase berri honetan lehentasunezko izan behar dute euskaldun hauen hizkuntzarekiko jarrerak eta euskal komunitatearen harreman sarearen azterketa. Sinpleki esanda, Bai Euskarari faseari Euskaraz Bai fasea gehitzea.

Hiztun komunitatea birsortu dugu azken hamarkadatan, orain berrehun urte edo gehiago Lizarran galdu genuen komunitate hori berreskuratu dugu. Bidea, izan den zailarekin ere, arrakastatsua izan da, komunitate hori baina ahul dago eta indarberritzeko momentua iritsi da. Hori nola egingo dugun, Lizarrako euskal komunitateak erabaki beharko du hemendik aurrera, bertan dauden norbanako, erakunde eta eragileek pentsatu beharko dugu nola.

Hurrengo orrialdean ikusi ahal dugu grafiko baten bitartez atal honetan aipatutakoa: 2001eko euskararen ezagutzaren errolda Lizarran 5 urteko adin-tarteka. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutenei (*Euskaldunak*) euskaraz nola hala hitz egiteko gai direnak (*la euskaldunak*) batu zaizkio grafikoan; horrela, adin-tarte bakoitzean biztanleria osoarekiko osatzen duten ehunekoa adieraziz.


46. grafikoa: Biztanleen ehunekoa euskaldunak eta ia euskaldunak. Lizarra, 2001eko errolda.



Txepetxen ikuspegiaren arabera bost dira talde soziolinguistikoak, AB (jatorrizko hiztun kulturizatuak), BA (heldu bertakotuak), A (jatorrizko hiztun primarioak), B (ikasten ari diren heldu eta gazteak, naturaltasunik lortu ez dutenak), eta O (mintzatzen ez direnak).^{ix} Taldekatze horri jarraikiz, gaineko grafikoan dugun geruza urdina AB, BA eta A litzateke. Hau da, euskara erabili edo ez, euskara erabiltzeko gaitasuna dutenak, gorriz dagoena B litzateke (euskaraz komunikatzeko gaitasunen bat badu) eta zuri dagoena O.

Nolabaiteko erosotasunez hitz egiteko gai izateak baina, ez ditu ezberdintzen AB, BA eta A lagunak. Gaur egungo Lizarran pentsatzekoa da multzo horietan (euskara ezagutza dutenen artean) gehienak A edo B direla. Hortaz, lehentasuna izan beharko luke A eta B horiek euskal komunitatearen gunera eramatea, AB eta BAra.

47. grafikoa: Lizarra 2012. Txepetx.



2.3 Arrakasta eta euskara.

Sakontze Egitasmoari izena jartzen dion fase berriari (*biziberritzetik indaberritzera*) hausnarketa bat gehitu nahiko nioke orain, honen iturburua 2010eko urtarrilean dugu. Egunkariaren epaiketa gori-gorian zegoela, Martxelo Otamendik hitzaldia eman zuen Lizarran.

Hitzaldi arrakastatsua izan zen, aretoa jendez lepo zegoen eta hainbat lagunek hitzaldia eskaileretan eserita edo aretoko atzeko partean, zutik, jarraitu behar izan zuten. Hitzaldirako

Argazkia: Martxelo Otamendi Lizarran. 2010eko urtarrila



kartelak euskara hutsez egin ziren, Gares eta Lizarrako euskaltegietako ikasleak haien klase orduan hitzaldira joan ziren ... eta hitzaldia euskaraz hasi zuen Martxelok.

Handik gutxira baina, pertsona batek hitzaldia moztu eta gaztelaniaz egiteko eskatu zuen, “hemen euskaraz ulertzen ez dugun pertsona asko gaude”, eta jarraitu, “ez dugu aukerarik izan, eskola frankistan ikasi baike nuen”... Martxelok, bere harridura aipatu eta gero, euskaraz eta gaztelaniaz egin zuen hortik aurrera. Handik egun batzuetara, hitzaldian gaztelaniaz egiteko eskatu zuen horrek, niregana hurbildu eta “eskerrak eskatu nuela gaztelaniaz egiteko bestela ...”; hitzaldian esan ez nituenak esateko aukera izan nuen.

Egun horretan, hitzaldian, zenbait euskaldunon artean samina zabaldu zen; batetik, ez genuelako egoera hori aurreikusi, eta bestetik ez ginelako gai izan egoerari buelta emateko, ezta saiatu ere. Mina ematen zigun, baina gure baitan ez genekien hitzez azaltzen zeinen sakona zen egoera horrek adierazten zuena: euskaldunok euskaraz egin ahal dugu, baldin eta arrakasta ez dugun. Eta zer da arrakasta? Sortzen dugunak jendea erakartzeko gaitasuna izatea, eta erakargarritasun horrek euskaldunon komunitatearen mugak gainditzea.

